



FITXA INDIBIDUALAK

2021EKO AZAROA

AURKIBIDEA



01	AIRE KIROLAK.....	03-04
02	ARQU-TIROA.....	05-06
03	ARRANTZA ETA KASTING.....	07-08
04	ARRAUNA.....	09-11
05	ATLETISMO.....	12-14
06	AUTOMOBILISMO	15-17
07	BADMINTON.....	18-19
08	BEISBOL ETA SOFTBOL.....	20
09	BELA.....	21-22
10	BOLEIBOLA.....	23-25
11	BOLOAK.....	26-27
12	BORROKA ETA SAMBOA.....	28-29
13	BOXEO ETA DD.AA.....	30
14	EHIZA.....	31-32
15	ERRUGBIA.....	33-35
16	ESGRIMA.....	36-37
17	ESKUBALOIA.....	38-39
18	ESKU PELOTA.....	40-42
19	FUTBOLA.....	43-46
20	GIMNASIA.....	47-49
21	GOLF.....	50-51
22	HALTEROFILIA.....	52-53
23	HERRI KIROLAK.....	54-55
24	HIPIKA.....	56-58

AURKIBIDEA



25	HOCKEY	59-60
26	IGERIKETA	61-62
27	IRRISTAKETA	63-64
28	JUDO ETA DD.AA	65-66
29	KARATE	67-69
30	KIROL EGOKITUA	70-72
31	MAHAI-TENIS	73
32	MENDIA	74
33	MOTOZIKLISMOA	75-77
34	NEGUKO KIROLAK	78-80
35	PADEL	81
36	PETANKA	82
37	PIRAGUISMO	83-84
38	SASKIBALOIA	85-87
39	SQUASH	88-89
40	SURF	90-91
41	TAEKWONDO	92
42	TENIS	93-94
43	TIRO OLIMPIKOA	95-96
44	TRIATLOIA	97-99
45	TXIRRINDULARITZA	100-101
46	URETAKO ESKIA ETA MOTONAUTIKA	102-103
47	URPEKO EKINTZAK	104-106
48	XAKEA	107

AIRE KIROLAK

1. Web orrialdea:

Web orria albiste aipagarriak daudenean eguneratzen da, hots, ez dute maiztasun zehatz bat ezarrita eta beraz, denboraldiren bat egon daiteke eguneratu gabe. Web orrialdea PTEk kudeatzen du.

Webguneko menuari dagokionez, lehenengo atalak **federazioari** buruzko informazioa biltzen du eta bigarrenak **aireko kirol modalitate** ezberdinak. Hirugarren atala **lizentziei** eta horien kudeaketari buruzkoa da. Ondoren, **dokumentazio** atal bat bereizi dezakegu eta bertan, estatutuei, araudiei... buruzko informazioa aurkituko dugu. Azkenik, **hauteskunde** eta **aseguruen** atalak daude. Gehitu webgunea gaztelaniaz baino ezin dela irakurri.

Azpimarratzekoa litzateke ez dugula aurkitzen klub edo federazioei, modalitateko instalazioei edo Euskadiko selekzioei buruzko informaziorik. Hori ez ezik, lehiaketan historialik edo kirolarien rankingik ere ez dugu aurkitzen.

Online izapideei dagokienez, **lizentziak** EKFB - Aterpe plataformaren bidez izapidetzen dituzte. **Lehiaketetako** inskripzioen kasuan, posible da online izapidetzea. Lehiaketetako **akten** inguruan, aipatu korreo elektronikoz kudeatzen direla, mediku parteen antzera. Ez dute beste gestio batzuetarako aplikaziorik.

Federakuntzak ez du **denda birtualik** ezta **eremu pribaturik** web orrialdean. Dena den, nahiz eta webgunek ez duen zerbitzu digitalik eskaintzen, federazioak badu baliza meteorologikoen haizea monitorizatzeko **aplikazio** bat.

2. Sare sozialak:

Sare sozialei buruz hitz eginez, **Facebook** soilik kudeatzen dutela esan dezakegu; @Federacion Vasca de los Deportes Aereos, eguneratuta ez duten sare soziala. Sare soziala parapenteko kideak kudeatzen du. Argitu behar da ez dutela streamingik egin inongo plataformaren bidez.



AIRE KIROLAK

3. Komunikazio estrategia:

Kirol klub eta federakuntzekiko komunikazioak korreo elektronikoko eta telefono bidez egiten dira. Ez dute aldizkari elektronikorik bidaltzen federatuei, eta federatuen datuak Aterpe plataformaren bidez kudeatzen dira.

4. Ekipamendu informatikoa:

Klubak ordenagailu eramangarri bat, mahaiko ordenagailu bat, inprimagailuak eta txartel eguneratuen inprimagailuak ditu. Ekipamendu informatikoa zabaltzea ondo etorriko litzaiekeela deritzote federazioaren digitalizazioan hobetzeko.

5. Telelana:

Ez dutela telelana erregularizatzeko sistemarik, batez ere federazioan langilerik ez dutelako. Hala eta guztiz ere, zuzendaritza batzordeen eta batzarren bilerak bitarteko telematikoen bidez egin dira pandemia garaian.

6. Digitalizazio estrategia:

Digitalizazioari dagokionez ez dute estrategiarik diseinatuta eta ez dute ezartzeko asmorik, izan ere, egoera digital egokia dutela uste dute. Hori dela eta, ez dute uste inolako mugarik dutenik, hala nola baliabide falta edo prestakuntza falta.

Federazioak bere egungo egoera digitala, 8 batekin baloratzen du.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasunaren inguruan, antibirusa eta segurtasun perimetrala dute eta hari gabeko sareen babesa dute. Hori ez ezik, hilero federazioaren datuen segurtasun kopiak egiten dituzte eta pasahitzak maiz eguneratzen dituzte. Horrez gain, aipatu dute zibersegurtasunarekin zerikusia duen guztia PTEk kudeatzen duela.





www.fvta-eatf.es

Helbidea:
Pza. Amadeo García Salazar
01007 Gasteiz
Korreo:
fvta.eatf@gmail.com
Telefonoa:
639 40 80 68

ARKU-TIROA

1. Web orrialdea:

Web orria maiz eguneratzen da, berriak edo gertaera aipagarriak sortzen direnean. Zuzendaritza batzordeko kide batek kudeatzen du.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** atal bat (azken albisteak) bereizi dezakegu, **harremanetarako** bigarren atal bat eta **lehiaketetako** hirugarren bat (hutsik dago). Hauek dira ondorengo atalak: **2020-2024 hauteskundeak**, **federazioak** (hutsik dago), **dokumentuak** (protokoloak, araudiak...) **albisteak**, **argazkiak** (hutsik dago), **bideoak**, **errekorrak**, **sariak**, **kirol aseguru**, **beste erkidego batzuk**, **ikastaroak** eta **RFETA**. Gehitu webgunea ezin dela euskaratu.

Azpimarratzekoa litzateke ez dugula informaziorik aurkitzen kirol modalitate bakoitzerako instalazioei buruz, ezta Euskadiko selekzioei buruz ere.

Online izapideei dagokienez, **lizentziak** Kirol Araudiak plataformaren bidez izapidetzen dira. FVTA-EATFk izapidetzen ditu, Nacex mezularitza enpresak bidaltzen ditu eta/edo eskura ematen zaizkie 3 lurraldeetako lehendakari. Ordainketa banku transferentzia bidez egiten da, eta behin lizentzia izapidetuta, datu guztiak Play off plataforman dagoen Espainiako Arku Tiroko Federakuntzari pasatzen zaizkio.

Lehiaketetan izena emateari dagokionez, adierazi behar da federazioak bidaltzen duela lehiaketaren deialdia eta webgunean argitaratzen dela. Ondoren, Forms inprimaki bat betetzen da eta banku-transferentzia bat egiten da, behar izanez gero ordaintzeko.

Lehiaketetako **akten** inguruan, aipatu arbitroek eskuz egiten dituztela, posta elektronikoz bidaltzen dituztela denbora jakin batean.

Aseguru medikoen parteen kudeaketari dagokionez, ezin da zuzenean webgunetik izapidetu; kirolariak istripuen parte bete behar dute eta e-mailez bidali federaziora.

Ez dute **denda birtualik**, federatuentzako eremu pribaturik edo bestelako aplikaziorik.





www.fvta-eatf.es

Helbidea:
Pza. Amadeo García Salazar
01007 Gasteiz
Korreo:
fvta.eatf@gmail.com
Telefonoa:
639 40 80 68

ARKU-TIROA

2. Sare sozialak:

Sare sozialen kasuan, nabarmentzekoa da ez dutela bat ere kudeatzen. Egin beharreko komunikazio guztiak webgunean argitaratzen dira, edo, modu pribatuan, e-mailez. Halaber, ez dute lehiaketen zuzeneko emanaldirik egin.

3. Komunikazio estrategia:

Kirolariekin posta elektronikoa, telefono eta WhatsApp bidez komunikatzen dira eta ez dute newsletterrik bidaltzen. Kirolarien datuak Kirol Lizentziak plataformaren bidez kudeatzen dira.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak ordenagailu eramangarri eguneratua, mahai gaineko ordenagailu eguneratua eta mahai gaineko ordenagailu zaharkitua ditu. Gailu eguneratu gehiago behar direla uste dute.

5. Telelana:

Pandemia garaian telelan sistema ezarri zuten, bilerak, zuzendaritza batzordeak eta batzarrak antolatzeko. Horretarako, Zoom bezalako plataformak erabili dituzte.

6. Digitalizazio estrategia:

Aipatu federazioak digitalizazio estrategia bat diseinatu duela, egungo egoera digitalera egokitzeko edo aurrera egiteko, lizentziak digitalizatzeko neurriekin, esaterako. Hala ere, digitalizatzeko orduan zenbait muga dituztela uste dute, hala nola, baliabide ekonomiko falta, bai Euskal Federazioarentzat, bai lurraldekoentzat.

Federakuntzak bere egungo digitalizazio egoera 9 batekin baloratzen du.

7. Zibersegurtasun politikak.

Zibersegurtasun politikari dagokienez, antibirus lizentziak eta segurtasun perimetrala, firewall-a, pasahitzen eguneratzea, datuak ziurtatzeko neurriak eta jardunbideak eta hari gabeko sareen babesa dituzte. Halaber, pasahitzak urtero eguneratzen dira eta segurtasun kopiak hilero egiten dira. Zibersegurtasunaren gaia zibersegurtasuneko enpresa batek kudeatzen du.





www.fvpvc.org

Helbidea:
Paseo de Errotaburu, 1 - 3ª planta
20018 Donostia
Korreoa:
fedvascapesca@gmail.com
Telefonoa:
943 46 67 90

ARRANTZA ETA KASTING

1. Web orrialdea:

Albistek, zirkularrak... daudenean eguneratzen da webgunea, eta federazioko langileek eguneratzen dute.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** atal bat (eguneratutako azken albisteekin), federazioaren **dokumentazio** ezberdina biltzen duen bigarren bat (batzarren aktak, araudiak, aseguruak, aurrekontuak...) eta **txapelketetako** hirugarren bat (deialdiak, sailkapenak...) bereiz ditzakegu. Hona hemen hurrengo atalak: **Euskal selekzioa**, **lizentziak**, **batzordea**, **klubak** (lurreko klubaren informazioa) eta **epaileak** (kideak, akordioak...). Orrialdea euskaraz eta gaztelaniaz irakur daiteke.

Azpimarratzekoa litzateke ez dela modalitate bakoitzeko kirol instalazioei buruzko informaziorik aurkitu.

Online izapideei dagokienez, lizentziak web orritik bertatik tramitatzen dituzte online inprimaki bat betez eta lizentziak kudeatzeko Kirol Lizentziak izeneko eremu pribatu bat dute. **Lehiaketen inskripzioei** dagokienez, aldiz, ezin dira telematikoki burutu.

Lehiaketen **aktei**, kirol zehapenen aurkako errekurtsioei eta mediku aseguruari dagokienez, guztiak korreo elektronikoz izapidetzen dira.

Halaber, **zerbitzu digitalen** inguruan ez da ezer aipatzeko, federakuntzak ez baitu ez **denda birtualik** ezta bestelako zerbitzu digitalik eskaintzen.

2. Sare sozialak:

Sare sozialen kasuan bakarrik kudeatzen dute eta webgunetik zuzenean sartu daiteke bertara. Facebook litzateke; Federación Vasca de Pesca Deportiva y Casting, ez da maiz eguneratzen, azken argitalpena 2021eko uztailean izan baitzen.

3. Komunikazio estrategia:

Federatuekin, klubekin eta lurreko federazioekin komunikazioak posta elektronikoz bidez egiten dira. Kirolarien datuak aurrez aipatutako Kirol Lizentziak aplikazioaren bidez kudeatzen dira.





www.fvpvc.org

Helbidea:
Paseo de Errotaburu, 1 - 3ª planta
20018 Donostia
Korreoa:
fedvascapesca@gmail.com
Telefonoa:
943 46 67 90

ARRANTZA ETA KASTING

4. Ekipamendu informatikoa:

Mahaiko ordenagailu bat dute, baina ez dago eguneratuta.

5. Telelana:

Federazioak telelana egiteko sistema bat du, online plataforma baten bidez, eta bilerak Zoom bidez telematikoki egiten dituztela adierazi dute.

6. Digitalizazio estrategia:

Ez dute ezer erantzun.

7. Zibersegurtasun politikak.

Zibersegurtasun politiketara igaroz, aipatu antibirusen lizentzia dutela eta pasahitzak aldiari aldiari eguneratzen dituztela. Dena den, ez dute firewall-a, ez dituzte lanpostuen sistema eragileak eguneratzen, ez dute informazioa eskuratzeko segurtasun neurririk ezarrita, ez dute jardunbide egokiei buruzko prestakuntzarik jaso, ez dute babesik hari gabeko sareetan, eta ez dituzte backup-ak egiten.





arrauna.eu

Helbidea
Paseo de Errotaburu, 1 - 3ª planta
20018 Donostia
Korreoa:
arrauna@arrauna.org
Telefona:
943 45 18 91

ARRAUNA

1. Web orrialdea:

Web orria federazioaren eta klubaren arteko komunikazioei buruzko gaiak daudenean, egutegiak, lehiaketak, emaitzak eta albisteak jarri behar direnean eguneratu ohi da. Federazioko idazkariak kudeatzen du.

Webguneko menuari dagokionez, **albisteen** lehen atal bat bereiziko dugu (txapelketei edo ikastaroei buruzko eguneratutako berriak) eta bigarren bat **federazioari** buruzkoa (batzarra, araudiak...). Horien ostean **lehiaketei** buruzko informazioa (egutegiak, emaitzak), **Euskadiko** hautaketari buruzko beste atal bat (emaitzak, hautaketa irizpideak...) eta **historiala** erakusten duen laugarren bat (estatistikak, historikoa...) daude. Azken atalak **irudiei** (argazki galeria), **klubeko txokoari** eta **estekei** (lurralde federazioak) dagozkie.

Azpiratzea da ez dugula informaziorik aurkitu kirol modalitate bakoitzereako dauden kirol-instalaziorik buruz.

Online izapideei dagokienez, honela kudeatzen da **lizentzien** inskripzioa: klubak Kirol Lizentziak plataformaren bidez egiten du eskaera, eta lurralde federazioari bidaltzen dio (konpromiso orria eta AEF-FVR aseguruan izena emateko zerrenda). Lurralde federazioak e-mailez bidaltzen dio dokumentazio guztia euskal federazioari, eta azken horrek argitaratzen ditu datuak. Kirolaria berria bada, alta emango zaio euskal federazioaren datu basean, eta kirolariaren datuak beteko dira Kirol Lizentziak plataforman. Ondoren, datu guztiak ondo badaude, aipatutako plataformak lortutako lizentzia fisikoa ematen da, eta lurralde federazioari bidaltzen zaio, dagokion klubari eman dezan.

Lehiaketetako izen ematei dagokienez, lehenengo urrats gisa, federazioak zirkular bat egiten du ekitaldiari buruzko baldintzekin, eta, horrekin batera, inskripzio orri bat bidaltzen du, klubek parte hartzen. Gaur egun, azken proba fasean dago, federazioak txertatuko zukeen lehiaketari dagokion inskripzio kudeatzaile bat, egutegiaren datak jarraituz. Ondoren, estropadan, emaitzak Excel orri batean lotzen dira, berariaz prestatuta, eta postaz eta WhatsApp bidez bidaltzen zaie parte hartzen duten klubari.

Lehiaketa bakoitzeko **aktak** paperean ematen dira, arbitro taldeari emateko bete ditzan. Ondoren, emaitzei gehitzen zaizkie, eta eskaneatu eta dagozkien karpitetan artxibatzen dira, paperean zein ordenagailuan.



ARRAUNA

Zehapenak, errekurtsoak eta apelazioak posta elektronikoaren bidez egiten dira, eta diziplina epaileak, aholkulariak edo abokatuak kudeatzen ditu.

Horrez gain, **mediku aseguruaren parteak** honela kudeatzen dira: klubak aseguru agentziari eskatzen dio parteak, eta federazioak oniritzia eman ondoren, ospitalean aurkezten du. Klubak posta elektronikoz bidaltzen dio parteak aseguru etxeari.

Bestalde, **zerbitzu digitalei** dagokienez, federazioak baieztatu du bideokonferentzia bidez online prestakuntzak ematen dituela eta errendimendu altuari zuzendutako zerbitzuak dituela. Era berean, webguneko gune pribatu batean klubek eta federazioko langileek (zuzendaritza batzordea eta epaileak) hainbat datu eskura ditzakete. Azkenik, federazioak ez du **denda birtualik**.

2. Sare sozialak:

Sare sozialen kasuan, federazioak sare sozialak kudeatzen dituela dio, baina Interneten ez dugu haren izenari lotutako konturik aurkitu. Aipatu dute administrazioa arduratzen dela arraunaren mundurako interesgarriak diren albisteak eguneratzeaz.

Ez dute lehiaketen edo partiden streamingik egiten.

3. Komunikazio estrategia:

Korreo elektronikoa erabiltzen dute federaziotik igortzen den informazio guztia helarazteko. WhatsApp unean uneko gaietarako erabiltzen dute, adibidez, korreoa berrikusi beharreko dokumentazioa dagoela jakinarazteko. Azkenik, telefonoa kontaktu pertsonala eta premiazko abisua egiteko erabiltzen da.

Bestalde, federatuen datu pertsonalak kudeatzeko, Excel, Access, Kirol Lizentziak plataforma eta inskripzioen kudeatzaile berria erabiltzen dituzte.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak mahaiko bi ordenagailu ditu, zaharkituta daudenak, baina laster hardware eta software eguneratuak dituen ordenagailu bat erosiko dute. Era berean, estropadetako lizentziak kontrolatzeko tablet bat dute, eta bi eramangarri ere zaharkituta daudenak. Eguneratutako gailu teknologiko gehiago edukitzea komeni zaiela diote.





arrauna.eu

Helbidea
Paseo de Errotaburu, 1 - 3ª planta
20018 Donostia
Korreoa:
arrauna@arrauna.org
Telefonoa:
943 45 18 91

ARRAUNA

5. Telelana:

Ez dute telelan sistematik ezarrita, baina bilerak bide telematikoz egiten dituzte Zoom eta Meet bidez; formatu presentzialera itzultzen saiatzen ari dira.

6. Digitalizazio estrategia:

Federazioak ez du digitalizazio estrategiarik, oraingoz eztabaidatu ez duten gaia baita. Hala ere, aipatu dute gai hau ez jorrazteko arrazoi bat baliabide ekonomiko falta dela, digitalizazioan ekintzak burutzeko beharrezkoa baita errekurtsio ekonomiko gehiago izatea.

Digitalizazioaren egungo egoera baloratu dute, 10etik 3rekin.

7. Zibersegurtasun politikak.

Zibersegurtasun politikei dagokienez, antibirus lizentziak, segurtasun perimetral eta firewall-a dute.. Pasahitzak bi hilabete behin eguneratzen dira, eta segurtasunkopiak astero egiten dira. Auditoriak egiten dituzte datu guztiak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko, eta haririk gabeko sareak babesten dituzte pasahitz batekin. Dena den, ez dituzte lanpostuen sistema eragileak eguneratzen eta ez dute segurtasun neurriei buruzko prestakuntzarik jaso. Amaitzeko, esan dute alderdi horiek guztiak enpresa espezializatu batek kudeatzen dituela, administrariarekin eta federazioko idazkariarekin batera.



ATLETISMO

1. Web orrialdea:

Web orria egunero eguneratzen da albisteekin eta zirkularrekin eta federazioko langileak arduratzen dira bere kudeaketaz.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** atal batean jarduerari buruzko zenbait berri agertzen dira, bigarrenan **federazioari** buruzkoak (lurralde federazioei, kirol klubei, modalitateko instalazioei, Zuzendaritza Batzordeari eta beste erakunde batzuei buruzko informazioa) eta hirugarrenean **dokumentuei** buruzkoak (lehiaketei buruzko informazioa, rankingak, oroigarriak, entrenatzaileak, atletak, epaileak...). Hurrengo sekzioak **zirkularrak** eta **estekak** dira. Ondoren, **egutegia** eta **rankina** dituen atal bat dago, eta, horien ostean **harremanetarako** azken atal bat aurkituko dugu. Emakumeen eta kirolaren (informatiboa), epaileen (horientzako gunea) eta Espainiako Atletismo Federazioaren Intraneterako loturaren atalak nabarmendu behar dira. Orrialdea euskaraz nahiz gaztelaniaz jarri daiteke.

Nabarmentzekoa da ez dugula informaziorik aurkitu selekzio autonomikoei buruz.

Online izapideei dagokienez, aipatzekoa litzateke Espainiako federazioak **lizentziak** kudeatzeko eta lehiaketetako izen emateak egiteko duen intraneta erabiltzen duela euskal federakuntzak; lehiaketa batean alta ematean ekitaldi hori egutegietan erakusten zaie. Halaber, lehiaketen **aktak** plataforma honetan erregistratzen dira.

Istripu parteak federatuaren eta aseguru etxearen artean kudeatzen dira.

Zerbitzu digitalei dagokienez, online prestakuntza batzuk egin dituzte federazioko estamentu desberdinei zuzenduak, Meeting edo beste aplikazio informatikoren bat bezalako plataforma digitalen bidez.

Denda birtualari dagokionez, ez dago ekipamendua edo bestelako osagarriak saltzen dituenik. Era berean, ez dago kirolarientzako, klubentzako, federazioentzako, epaileentzako edo teknikarientzako eremu pribaturik federakuntzaren webgunean, Espainiako federazioak duen eremu pribatua erabiltzen baitute.

ATLETISMO

2. Sare sozialak:

Web orritik ezin da sartu kudeatzen dituzten sare sozialetara zuzenean.

Alde batetik, Facebook dutela aipatu behar da; @euskoepaileak, eguneratu gabe mantentzen duten sarea. Bestalde, streaming batzuk egin dituzte YouTube-eko kanalaren bitartez; Euskal Atletismo Federazioa. Federazioaren bulegoak kudeatzen ditu sare horiek, eta edukien kalitatea hobetzeko nahia du.

3. Komunikazio estrategia:

Afiliatuekiko komunikazioak posta elektronikoaren eta web orrialdeko argitalpenen bidez egiten dira. Horrez gain, horiei buruzko informazio teknikoak Espainiako modalitateko federazioan erregistratuta dago. Ez dute boletín elektronikorik bidaltzen federatuei.

Federatuen datu pertsonalen kudeaketa aurrez aipatutako intranetaren bitartez egiten dute.

4. Ekipamendu informatikoa:

Klubak eguneratuta dauden ordenagailuak eta inprimagailuak ditu.

5. Telelana:

Pandemia eta konfinamendu garaian telelana ezarri zen Meet bidezko bilerekin, baina ez dago langileen erregulazio neurririk telelanari dagokionez.

6. Digitalizazio estrategia:

Euskadiko Atletismo Federazioaren kasuan ez da digitalizazio estrategiarik diseinatu aurrerapen digitala bermatzeko, batez ere baliabide ekonomiko, prestakuntza falta eta langile baliabide faltagatik.

Federazioak bere egoera digitala 5 batekin baloratzen du, eta dituen errekurtsu eta baliabideekin bere eskuetan dagoen guztia egiten duela azpimarratzen du.





www.fvaeaf.org

Helbidea:
Avda.de Cervantes, 5 -Edif.11-P 3^a-Dpto.14
48970 Basauri
Korreoa:
fvaeaf@fvaeaf.eus
Telefonoa:
944 40 90 99

ATLETISMO

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasunaz ari garela, antibirusak eta segurtasun perimetrala dituzte, Microsoftek eskaintzen dituen firewallak erabiltzen dituzte eta pasahitzak aldizka eguneratzea dituzte. Era berean, informazioa eskuratzeko auditoriak egiten dituzte, astero segurtasun kopiak egiten dituzte eta lanpostuen sistema eragileak eguneratzen dituzte. Azkenik, ez dute jardunbide egokien inguruko prestakuntzarik izan, eta haririk gabeko sarean babesa dute.



AUTOMOBILISMO

1. Web orrialdea:

Webgunea maiz eguneratzen da lasterketak dituzten asteetan, bai lasterketen aurretik eta ondoren. Administratiboa lasterketen inguruko informazio orokorra eguneratzeaz arduratzen da, eta federazioko kolaboratzaile bat, aldiz, sailkapenen emaitzak argitaratzeaz.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** aurkezpen atal bat aurkitu dezakegu azken albisteekin, bigarren bat **txapelketen** buruzko informazioarekin (modalitate bakoitzeko sailkapenak) eta hirugarren bat **egutegia** izeneko (ekitaldi ezberdinen data). Hurrengo atala **erregelamendua** litzateke (modalitate bakoitzeko araudia), eta horren ondoren **lizentziak** (online eskaera, izapidetzeko baldintzak...) atala aurkitu dezakegu. Horien ostean **federazioaren** informazio orokorra biltzen duen sail bat (estatutuak, lurralde federazioak, albisteak, zirkularrak...), **proben historikoa**, **esteka interesgarriak** (automobilismoko federakuntza, elkarte eta eskolak) eta **harremanetarako** atalak aurkitu ditzakegu. Web orrialdea euskaraz nahiz gaztelaniaz jarri daiteke.

Aipatu ez dugula euskadiko selekzioen inguruko informaziorik aurkitu orrialdean.

Online izapideei dagokienez, **lizentziak** web orrialdean dagoen online plataforma baten bitartez egiten dituztela diote, Ric izeneko enpresa baten bidez. Federatuek zuzenean tramitatu dezakete beraien lizentzia plataformaren bitartez, hots, ez dute lurralde federazioen bitartez egin behar. Euskal federakuntzak kirolariak ildo duen dokumentazioa berrikusten du eta lizentzia igortzen du behin dena zuzen dagoenean. Lizentzien ordainketa transferentzi bidez egiten dute, oraindik ordainketa pasarelarik ez baitute ezarri. Halaber, lasterketen **izen ematea** ere plataforma berdinetik egiten da prozesu berdina jarraituz, baina ordainketa zuzenean egin daiteke telematikoki, ordainketa pasarela ezarri berri dutelako. Gainera, plataforman bertan **eremu pribatu** bat aurkitu daiteke federatuei zuzendua, beraien datu pertsonal eta lizentziak eskuratzeko.

Jarraitzeko, lasterketako **aktak** digitalizatu gabe dituztela diote, izan ere, lasterketen ostean inprimatu eta korreo elektronikoko bidez bidaltzen dituzte.

Kirol zehapenen aurkako errekurtsioak korreo elektronikoz kudeatzen dituzte. **Aseguru medikoen** prozedurari dagokionez, lehendabizi euskal federakuntzari telefonoz deitzen diote, honek dokumentazioa prestatu eta korreo elektronikoko bidez bidaltzen du..



AUTOMOBILISMO

Zerbitzu digitalen inguruan, nabarmendu ez dutela ez formakuntzarik, ez **denda birtualik** kudeatzen. Hala eta guztiz ere, webgunetik federatuei abantailak eskaintzen dizkie, enpresa batzuekin akordioak dituzte federatuek beherapenak izan ditzaten. Beherapen horien kodigoa web orrialdean argitaratzen dute.

2. Sare sozialak:

Hainbat sare sozial kudeatzen dituzte, eta Facebook eta Twitter daude soilik webgunetik eskuragai. Hasteko, Instagram; @eaf_fva eta Facebook; @euskadiko.automobilismofederazioa kudeatzen dituzte, ia egunero eguneratzen diren bi sare sozial. Halaber, Twitter ere badute; @eaffva, hau ez da hain maiz eguneratzen. Hiru sareak zuzendaritza batzordeko kide batek kudeatzen ditu.

Bestalde, lasterketen **zuzeneko emankizunen** inguruan, behin Euskal Kirola telebistaren bidez lasterketa bat zuzenean bota zutela diote, baina ez dituzte gehiago egin. Hala eta guztiz ere, orain streaming bidez gehiago egin nahi dituztela nabarmentzen dute.

3. Komunikazio estrategia:

Lurralde federazio eta klubuen arteko komunikazioa korreo elektroniko,WhatsApp eta telefonoz egiten dute.

Federatu ororen datu pertsonalak lizentzien plataformaren bitartez kudeatzen dituzte.

4.Ekipamendu informatikoa:

Federakuntzak 3 ordenagailu, 6 mugikor eta 3 tablet dituzte, guztiak eguneratuta.

5.Telelana:

Federakuntzaren langileek pandemiaren geroztik Aterpe programa dute etxetik telelana burutu ahal izateko, bulegoko programa guztietara sartu ahal izateko etxetik. Zuzendaritza Batzordeak eta bestelako biltzar guztiak Zoom bidez egin dituzte orain arte eta berriro ere formatu presentzialera bueltatzen hasiko dira.



AUTOMOBILISMO

6. Digitalizazio estrategia:

Nahiz eta euskal federakuntzak ez duen digitalizazio estrategiarik diseinatuta, pauso ezberdinak eman ditu azken urtean digitalizazio arloan bai lizentzi eta izen emateei dagokienez. Gainera, akten bidalketa digitala eta zuzeneko emankizunak martxan jartzeko ideia ere badute.

Federakuntzak egungo digitalizazio egoera 7 batekin baloratzen du, eta errekurtsu ekonomiko falta eta pertsonal falta (bolondresekin lan egiten dutelako oro har) aipatzen ditu arazo nagusi bezala digitalizazioan aurrera egiteko.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politiken inguruan antibirus lizentziak dituztela esan dezakegu, firewall-a, pasahitzak ez dituzte eguneratzen, ez dute ikuskaritzak egiten, segurtasun kopiak maiz egiten dituzte, ez dute jardunbide egokiei buruzko prestakuntzarik jaso, lanpostuen sistema eragileak eguneratzen dituzte eta haririk gabeko sareak babesteko pasahitza dute. Alderdi guzti hauek enpresa batek kudeatzen dizkie.





Helbidea:
Paseo de Anoeta, 5-bajo
20014 Donostia
Korreo:
fedvasca@yahoo.es
Telefonoa:
943 46 93 70

BADMINTON

1. Web orrialdea:

Web orriari dagokionez, aipatu ez dutela federazioari, lehiaketei, rankingei, arlo pribatuari, denda birtualari edo lurralde federazioei edo instalazioei buruzko informazioa jasotzen duen web orrialderik.

Online izapideei dagokienez, **lizentziak** Espainiako Federazioaren orrialdearen bitartez izapidetzen dituzte, Todostorneos plataforman. Era berean, klubak arduratzen dira badminton **lehiaketetarako** izen emateak egiteaz. Bestalde, **mediku aseguruaren parteak eta kirol zehapenen aurkako errekurtsioak** posta elektronikoz kudeatzen dira.

2. Sare sozialak:

Facebook da erabiltzen duten sare sozial bakarra; @fedvascabadminton, baina ez dago eguneratuta. Federazioko idazkaria arduratzen da sarearen kudeaketaz.

3. Komunikazio estrategia:

Lurralde federazioen eta klubaren arteko komunikazioa korreo elektronikoz eta WhatsApp bidez egiten da.

Federatu guztien datu pertsonalak lizentzien plataformaren bidez kudeatzen dira eta, ondoren, Excel batean jasotzen dituzte.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak 3 ordenagailu ditu, guztiak eguneratu gabe.

5. Telelana:

Federazioak ez du langilerik, eta federazioa kudeatzen duten boluntarioak ez dira zuzendaritza-batzordeetan biltzen.





Helbidea:
Paseo de Anoeta, 5-bajo
20014 Donostia
Korreo:
fedvasca@yahoo.es
Telefonoa:
943 46 93 70

BADMINTON

6. Digitalizazio estrategia:

Ez dute digitalizazio estrategiarik, federazio txikia baita. Halaber, langile eta baliabide ekonomiko falta handia dagoela uste dute.

Federakuntzak egungo digitalizazio egoera 10etik 4 batekin baloratzen du.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politikei dagokienez, azpimarratu ez dituztela ezta oinarrizko funtzioak kudeatzen.





Helbidea:
Paseo de Errotaburu, 1 - 3ª planta
20018 Donostia
Korreo:
info@ebsf.es
Telefonoa:
943 11 64 64

<http://www.fvbs.net/>

BEISBOL ETA SOFBOL

1. Web orrialdea:

Beisbol eta Sofbol Euskal Federazioarekin komunikatzea ezinezkoa izan dela kontuan hartuta, ez dakigu webgunea zenbatean behin eguneratzen den edo nork kudeatzen duen.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** lehen atal bat bereizi dezakegu; bertan, kirol klubetarako eta federazioetarako estekak aurkituko ditugu. Bigarrenak **federazioari** buruzko informazioa ematen du, estatutuak esate baterako. Ondoren, **klubei** buruzko atal bat aurkitu dezakegu, baina hutsik dago, arautegiaren atala bezala. Jarraian, kirol hauek praktikatzeko instalazioen zerrenda bat dago. Azkenik, **hauteskundeetarako** eta **harremanetarako** atalak daude (araudiak eta artxiboak). Ez dago euskaratzeko aukerarik, baina atal batzuek euskarazko izenburuak dituzte.

Nabarmentzekoa da ez dagoela lehiaketei edo lehiakideen rankingari buruzko informaziorik.

Online izapideei dagokienez, webgunean ikus dezakegunaren arabera, lizentziak ezin dira telematikoki izapidetu, ezta lehiaketetako inskripzioak ere. Bestalde, webgunean ez dugu **zerbitzu digitalik** aurkitzen, hala nola denda birtuala, kirolarientzako eremu pribatua edo federazioak barne-gestioetarako erabiltzen duen aplikaziorik.

2. Sare sozialak:

Web orritik ezin da sartu kudeatzen dituzten sare sozialetara.

Alde batetik, aipatu **Facebook** dutela; @F.vASCA, eguneratuta duten sare soziala. **Twitter** ere badute; @sofboleuskadi, ez dago eguneratuta, eta azkenik, **YouTubeko** kanala dute; Beisbol eta Sofbol Euskal Federazioa, Twitterren antzera eguneratu gabe mantentzen dena.

Federazioarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izan denez, ez daukagu beste informaziorik hurrengo atalak bete ahal izateko.



www.euskalbela.es

Helbidea:
Paseo de Anoeta, 5-bajo
20014 Donostia
Korreoa:
fedvascavela@gmail.com
Telefonoa:
943 45 37 67

BELA

1. Web orrialdea:

Federakuntzaren web orria astero eguneratzen da eta lan hori federazioari laguntza eskaintzen dioten boluntarioek egiten dute.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** lehen atalean azken albisteak agertzen dira, bigarrenean **federazioari** buruzko informazioa (klub federatuei buruzko informazioa, diziiplina batzordeei buruzko informazioa, zuzendaritza batzordea...) eta **egutegiko** hirugarren atal bat, datozen estropadekin. Hurrengo atalak sailkapenen **rankinga** eta historikoa dira. Ondoren, **estropaden batzordea** (epaileak, ofizialak, teknikariak...) eta **hauteskundeak** izeneko eremuak ikus ditzakegu. Azkenik, **harremanetarako** atal bat dago. Orrialdea euskararaz nahiz gaztelaniz jarri daiteke.

Azpimarratzekoa litzateke ez dugula kirol modalitaterako dauden kirol instalazioei buruzko informaziorik, ez baitute entrenamenduetarako lokalik, eta ezta Euskadi Selekzioei buruzko informaziorik ere.

Online izapideei dagokienez, **lizentziak** Sailti Lizentziak plataformaren bidez izapidetzen dira eta ordainketa ere bertatik egiten da. Halaber, webgunetik bertatik ere eman daiteke izena **lehiaketetan** telematikoki.

Bestalde, gaur egun **aktak** ez dituzte digitalizatuta mantentzen; izan ere, iritzi ezberdinak daude, batzuek plataforma arrunt bat erabili nahi dute, eta beste zenabitek nahiago dute aktak erregistratzeko baliabide propioak erabili. **Istripuen eta lesioen parteak** korreo elektronikoz edo telefonoz kudeatzen dira, langile espezializatuen bidez.

Zerbitzu digitalei dagokienez, ez dago datu pertsonalak eskuratzeko eremu pribaturik, ezta kirol-ekipamendua saltzeko **denda birtualik** ere. Hala ere, badute estropadak kudeatzeko app bat, Sailti izeneko, belako klub gehienek erabiltzen dutena.





www.euskalbela.es

Helbidea:
Paseo de Anoeta, 5-bajo
20014 Donostia
Korreoa:
fedvascavela@gmail.com
Telefonoa:
943 45 37 67

BELA

2. Sare sozialak:

Sare sozialen kasuan, aipatu kudeatzen dituzten sare sozial bakarra ere ez dagoela aktibo, ez baitute edukia eguneratzen. Hala eta guztiz ere, **Instagram**; @fvv_ebf, **Facebook**; @federacionvascavela eta **YouTube**ko kanal bat dute, azken honen bidez ezagutzera eman ziren duela urte batzuk. Gainera, ez dute streamingik egiten plataforma horretan.

3. Komunikazio estrategia:

Federatuekin, lurralde federazioekin eta kirol klubekin e-mailez baino ez dira komunikatzen. Ez dago bazkideei zuzendutako newsletterrik, eta kirolarien datuak lizentzien aplikazioaren bidez kudeatzen dira.

4. Ekipamendu informatikoa:

Bulegoan ordenagailu eramangarri bakarra dute, eta ekipamendu informatiko gehiago erostea gustatuko litzaiekeela irizten dute.

5. Telelana:

Ez dute telelana erregulatzeko sistemarik, baina pandemiak iraun duen bitartean bilerak Zoom eta Meet bidez egin dituzte. Zuzendaritza batzordeak oraindik ere telematikoki egiten dira.

6. Digitalizazio estrategia:

Ez dago digitalizazioan aurrera egiteko plangintzarik edo estrategiarik, eta federazioak ez du neurri digitalak ezartzeko interesik erakusten. Aipatu dutenez, langile kualifikatuen falta eta plataformak erabiltzeko klubetako adostasun eza dira digitalizazioan aurrera egiteko dituzten arazo nagusiak.

Federakuntzak egungo digitalizazio egoera 10etik 5 batekin baloratzen du.

7. Zibersegurtasun politikak:

Nabarmentzekoa da zibersegurtasun politiken esparruan galduta daudela, ezagutza faltagatik eta gai hori irakasten dieten goi mailako erakundeekin komunikazio falta dela eta. Hala ere, antibirusa dute, segurtasun kopiak egiten dituzte eta pasahitzak eguneratzen dituzte aldizka.





www.fedvasvol.eu

Helbidea:
Pza. Amadeo García Salazar, 2
-2 (Mendizorroza)
01007 Gasteiz
Korreoa:
bef.fvvb@gmail.com
Telefonoa:
945 15 17 74

BOLEIBOLA

1. Web orrialdea:

Webgunea ez dago eguneratuta, eta Leverade izeneko enpresa espezializatu bat arduratzen da orriaren kudeaketaz.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** atal bat aurkitzen dugu, **albisteen** bigarren bat (ez daude eguneratuta) eta **boleibol** izeneko hirugarren bat (lehiaketen historiala erakusten da urte bakoitzeko). Hurrengo atalak **hondartzako boleibola** (lehiaketen historiala), **deskargak** (araudiak, egutegiak, protokoloak, Euskadiko selekzioa...) eta **loturak** (lurralde federazioen informazioa) dira. Orrialdea euskararaz zein gaztelaniz jarri daiteke.

Nabarmentzekoa da ez dugula informaziorik aurkitu kirol modalitaterako dauden kirol instalazioen inguruan.

Online izapideei dagokienez, alde batetik, **lizentziak** eta lehiaketetarako izen emateak webgunetik izapidetzen dira. Lizentziak Euskadiko Federazioak igortzen ditu eta ordainketa dagokion klubari faktura bidez egiten da.

Bestalde, **aktak digitalizatu** eta webgunera igotzen dituzte. Era berean, kirol zehapenen kudeaketa guztia idatziz egiten du Lehiaketa edo Apelazio Batzordeak eta klub guztiei jakinarazten zaie. Aseguru medikuen parteon kasuan email edo telefonoz bideratzen direla diote, lesioaren larritasunaren arabera, eta aseguruari bere araudiaren arabera jakinarazten zaio.

Azkenik, **eremu pribatu** bat aurkitu dezakegu, eta gune horrek hainbat pasahitz ditu webgunea erabiliko duen estamentuaren arabera: emaitzak kargatzeko, lizentziak izapidetzeko... Era berean, federazioak online egiten ditu prestakuntza edo ikastaroak. Azkenik, denda birtualik ez dutela gaineratu behar da.





www.fedvasvol.eu

Helbidea:
Pza. Amadeo García Salazar, 2
-2 (Mendizorroza)
01007 Gasteiz
Korreoa:
bef.fvvb@gmail.com
Telefonoa:
945 15 17 74

BOLEIBOLA

2. Sare sozialak:

Sare bakarra kudeatzen dute eta ezin da zuzenean web orritik bertara sartu.

Facebook kudeatzen dute; Federación Vasca de Voleibol/Boleibol Euskal Federazioa, astero eguneratzen dena, lehiaketen egutegiaren arabera, eta galderaren bat jasotzen denean. Federazioko langileak arduratzen dira argitalpen ezberdinak egiteaz.

Lehiaketen zuzeneko emanaldiak ere egiten dituzte, eta klub bakoitza arduratzen da horietaz.

3. Komunikazio estrategia:

Posta elektronikoa, WhatsApp eta telefono bidez egiten dira komunikazioak federatuekin, lurralde-federazioekin eta klubekin.

Kirolarien datuak web eta Excel bidez kudeatzen dira.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioan 2 mahaiko ordenagailu, 4 eramangarri eta 3 tablet daude. Horietatik, beharren arabera eguneratu dira, eta 2020an 2 ordenagailu eramangarri eta inprimagailu bat eguneratu ziren. Gailu gehiago izatea gustatuko litzaiekeela gaineratu du federakuntzak.

5. Telelana:

Federazioak telelaneko sistema bat du ezarrita langileentzat, eta horretarako web orria erabiltzen da. Halaber, bilerak eta batzarrak telematikoki egiten dituzte Zoom bidez.

6. Digitalizazio estrategia:

Euskadiko Boleibol Federazioak digitalizazio estrategia bat du diseinatuta, eta batez ere, aurrekontuaren ehuneko bat euskal klub guztiak digitalizatzeko inbertitzean oinarritzen dela diote, izapideak errazago egin ditzaten. Azpimarratu dute baliabide ekonomikorik eza dela digitalizazioan aurrera egiteko duten arazorik handiena.

Azkenik, federazioak bere digitalizazio egoera 10etik 7batekin baloratzen du.





www.fedvasvol.eu

Helbidea:
Pza. Amadeo García Salazar, 2
-2 (Mendizorroza)
01007 Gasteiz
Korreoa:
bef.fvvb@gmail.com
Telefonoa:
945 15 17 74

BOLEIBOLA

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politikei buruz hitz eginez, antibirusak eta segurtasun perimetrala dute, firewall-a, pasahitzak urtero eguneratzen dituzte eta lanpostuen sistema eragileak aldiari aldiari eguneratzen dituzte. Era berean, informazioa eskuratzeko auditoriak egiten dituzte urtero, eta Karpesky enpresaren aldetik jardunbide egokiei buruzko prestakuntza jaso dute, enpresa horri erosten baitizkiote antibirusen lizentziak. Horrez gain, hileroko segurtasun kopiak egiten dituzte eta haririk gabeko sarean babesa dute pasahitz bidez. Gaineratu dute zibersegurtasuneko alderdi guztiak webgunea kudeatzen duen Leverage S.L. enpresak berak kudeatzen dituela.





Helbidea:
Pza. Amadeo García Salazar, 2 -2 (Mendizorroza)
01007 Gasteiz
Korreoa:
fedeuskalbol@euskalnet.net
Telefonoa:
945 14 04 89

www.bolajoko.org

BOLOAK

1. Web orrialdea:

Federazioaren web orria oso geldirik dago, azken urte honetan ez da ezer eguneratu eta webgunearen formatua, edukia eta diseinua guztiz berritu nahi dutela diote.

Webguneko menuari dagokionez, **federazioaren** informazio orokorra jasotzen duen lehen atal bat ikus dezakegu (kirol-erakundearen antolaketa, kirol modalitate bakoitzaren historiala), **agenda** izeneko bigarren bat (atala hutsik dago) eta **berrien** hirugarren bat (eguneratu gabe dago). Hurrengo atalak **estekak** (lurrealde federazioen informazioa, Espainiako federazioaren informazioa...), **galeria**, **bisita-liburua** eta **kontaktua** dira. Gehitu webgunea gaztelaniaz baino ezin dela irakurri, hots ez du hizkuntza aldatzeko aukerarik.

Azpimarratzekoa litzateke ez dugula aurkitzen modalitate bakoitzerako dauden kirol instalazioei buruzko informaziorik, ez Euskadiko Selekzioaren inguruko informaziorik eta ezta lehiaketeki buruzko informaziorik.

Online izapideei dagokienez, aipatu federakuntzak Kirol Lizentziak plataforma erabiltzen duela **lizentziak** izapidetzeko. Lurrealde federazioak arduratzen dira federatuen datuak plataforman sartzeaz eta euskal federazioa, berriz, lizentziak inprimatu eta kudeatzeaz. Halaber, kuoten ordainketa lurrealde federazioen bidez kudeatzen da.

Bestalde, oso federazio txikia denez eta kirolari gutxi dituztenez, jokalariek presentzialki egiten dituzte **lehiaketetarako** izen emateak bolatokian.

Lehiaketetako **aktei** dagokienez, eskuz inprimatuta dituztela aipatzeko da. Horrez gain, federazioak ez du inoiz kirol zigorrik izan, eta, beraz, ez dute horiek kudeatzeko sistemarik. Aitzitik, aseguru medikoak kudeatzeko korreo elektronikoa erabiltzen dute.

Azkenik, esan federazioak ez duela zerbitzu digitalik eskaintzen, ezta denda birtualik ere.

2. Sare sozialak:

Federazioak ez du sare sozialik erabiltzen.





Helbidea:
Pza. Amadeo García Salazar, 2 -2 (Mendizorroza)
01007 Gasteiz
Korreoa:
fedeuskalbol@euskalnet.net
Telefonoa:
945 14 04 89

www.bolajoko.org

BOLOAK

3. Komunikazio estrategia:

Lurralde federazioekin eta beste erakunde batzuekin posta elektronikoz, WhatsApp bidez eta telefono mugikorraren bidez komunikatzen dira. Gehien erabiltzen duten komunikabidea emaila litzateke. Ez dute aldizkari elektronikorik bidaltzen federatuei.

Bazkideen datuak Excel bidez kudeatzen dira.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak 2 ordenagailu, 2 inprimagailu eta lizentzia inprimagailu bat ditu. Gailu guztiak eguneratuta daude.

5. Telelana:

Euskal Federazioen Batasunaren bidez bilerak online egiteko aukera duten arren, oraindik ez dute telematikorik egin; guztiak aurrez aurre egin dira. Era berean, ez dute telelana egiteko sistemarik ezarrita; hala ere, idazkariak disko erauzgarri bat erabiltzen du federazioaren informazioa etxera eramateko.

6. Digitalizazio estrategia:

Digitalizazioari dagokionez, webgunea eguneratzeko beharra ikusten duten arren, ez dute erakundearen eraldaketa digitala bermatuko duen estrategiarik diseinatu. Baliabide ekonomiko falta, pertsonal falta eta prestakuntza falta lirateke esparru honetan aurrera egitea eragozten dieten hiru arazo. Dena den, federazio txikia izanik eta adineko jendea izanda, ez dute beharrezkoa ikusten alderdi digitalak ezartzea.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasunaren inguruan, antibirusa eta segurtasun perimetrala dute, firewalla, lanpostuen sistema eragileak eguneratzen dituzte eta segurtasun kopiak egiten dituzte maiz. Hala ere, ez dituzte pasahitzak maiz eguneratzen, ez dute informazioa eskuratzeko ikuskaritzarik egiten eta ez dute jardunbide egokiei buruzko prestakuntzarik jaso. Azkenik, federazioak gaineratu du ez dutela wifirik.





www.kirolborrokak.org

Helbidea:
Julian Gaiarre, 48 - bajo
48004 Bilbao
Korreoa:
borrokak.fed@gmail.com
Telefona:
634 42 90 83

BORROKA ETA SAMBOA

1. Web orrialdea:

Webgunea hilero eguneratzen da, lehiaketei edo ikastaroei buruzko berriekin.

Webguneko menuari dagokionez, aipatu informazioa eskuratzeko erabiltzaile bat eta pasahitza behar dela, eta beraz, alderdi batzuk mugatuta daudela. Hori esanda, hona hemen atalak: **hasiera, dokumentuak, generoa eta emakumea, egutegia, emaitzak, klubak eta zuzendaritza batzordea**. Gainera, webgunea euskarara itzul daiteke.

Azpiratu behar da ez dugula modalitate bakoitzeko kirol instalazioei, etorkizuneko lehiaketei eta autonomia erkidegoetako selekzioei buruzko informaziorik aurkitu.

Online izapideei dagokienez, **lizentzien** izapideak Euskal Federazioen Batasunaren bidez egiten dira, eta hark kudeatzen ditu banku transferentzia bidezko ordainketak. **Lehiaketetarako** izen emateak lehiaketa antolatzen duen federazioaren bidez eta posta elektronikoaren bidez izapidetzen dira.

Lehiaketetako **aktak** digitalizatzeari dagokionez, adierazi ez dutela inolako aktarik idazten online. Bestalde, **kirol zehapenen aurkako errekurtsuak** e-mailez kudeatzen dira, **mediku aseguruaren parteak** bezala.

Bestalde, azpiratu ez dagoela federatuentzako, klubentzako eta federazioentzako **gune pribaturik**, lizentzia pertsonalak, txapelketak, parte hartu duten prestakuntzak... eskuratzeko. Era berean, ez dute **denda birtualik**, gestioetarako aplikaziorik edo beste edozein zerbitzu digitalik, hala nola prestakuntzarik.

2. Sare sozialak:

Webgunetik zuzenean eskuratu ezin diren hainbat sare sozial kudeatzen dituzte. **Instagram** kontua dute; @d.p.p.paisvasco, eguneratuta dagoena eta **Facebook** ; Euskadiko Borroka Federazioa, ez da eguneratzen. Azkenik, **Twitter** kudeatzen dute; @FedVascaLucha, nahiz eta ez den etengabe eguneratzen.





www.kirolborrokak.org

Helbidea:
Julian Gaiarre, 48 - bajo
48004 Bilbao
Korreoa:
borrokak.fed@gmail.com
Telefona:
634 42 90 83

BORROKA ETA SAMBOA

3. Komunikazio estrategia:

Batez ere korreo elektronikoa erabiltzen dute federazioko komunikabide gisa. Federatuen datu pertsonalen kudeaketa Euskal Federazioen Batasunak egiten du.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak ordenagailu eramangarri zahar bat du, baina ez dute beharrezkotzat jotzen ekipo informatikoa berritzea.

5. Telelana:

Langileek ez dute telelana egiteko sistemarik ezarrita. Batzarrei dagokienez, esan behar da modu telematikoan egin dituztela, Zoomi esker.

6. Digitalizazio estrategia:

Federazioak ez du estrategiarik, batez ere bertan lan egiten duen langilerik ez dutelako eta txikia denez, dena Euskal Federazioen Batasunak kudeatzen duelako.

Egungo digitalizazio egoera 10etik 2 batekin baloratzen du.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politikei dagokienez, esan dezakegu antibirus eta firewall (avast) lizentziak dituztela eta urteko segurtasun kopiak egiten dituztela.





www.euskadiboxeo.com

Helbidea:
C/Cercas Bajas, 5-Ofic.12-Casa del deporte
01007 Gasteiz
Korreo:
info@euskadiboxeo.com
Telefona:
945 13 69 72

BOXEO ETA DD.AA

1. Web orrialdea:

Boxeo eta DD.AAko Euskal Federazioarekin komunikatzea ezinezkoa izan dela kontuan hartuta, ez dakigu webgunea zenbatean behin eguneratzen den edo nork kudeatzen duen.

Webguneko menuari dagokionez, aipatu ez dutela atalik bereizita, informazioa orrialdean behera egin ahala aurkitzen baita. Hori esanda, azpimarratu **lizentziak** inskribatzeari buruzko informazioa, **txapelketei** buruzko informazioa, **emaitzak...** aurkitu dezakegula eduki gisa. Hala ere, webgunea zaharkituta dago eta informazio gutxi du.

Aipatzekoa litzateke kirol honetan aritzeko edo lehiatzeko instalazioei buruzko informaziorik ez dela aurkitzen, ezta Euskadiko selekzioei buruz edota lehiaketei edo lehiakideen rankingari buruzko informaziorik ere.

Online izapideei dagokienez, webgunean ikusten denaren arabera, lizentziak ezin dira telematikoki izapidetu, ezta txapelketetarako inskripzioak ere. Bestalde, webgunean ez dugu aurkitzen **zerbitzu digitalik**, hala nola denda birtuala, kirolarientzako eremu pribatua edo federazioak barne gestioetarako erabiltzen duen aplikaziorik.

2. Sare sozialak:

Ez dugu sare sozialik aurkitzen federakuntzari lotuak.

Federazioarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izan denez, ez daukagu beste informaziorik hurrengo atalak bete ahal izateko.





www.cazavasca.com

Helbidea:
Julian Gaiarre, 48 - bajo
48004 Bilbao
Korreoa:
fvcaza@outlook.com
Telefona:
94 473 50 06

EHIZA

1. Web orria:

Web orria, normalean, albisteak edo lehiaketak sartzeko beharraren arabera eguneratzen da, normalean 15 egunetan behin. Webgune hau federazioko langileek eguneratzen dute eta posible da euskarara itzultzea.

Webguneko menuari dagokionez, lehen atalean **federazioari** buruzko informazioa dago, eta bertan batzordeen, estatutuen, zuzendaritza batzordearen...berri ematen da; bigarrean, **zerbitzuei** buruzko informazioa ematen da (diziplinak, segurtasuna eta izapideak), eta, hirugarrena, **eskola** izenekoa (helburuak eta egoera). Azken atalak **lehiaketak**, **ikerketak zientifikoak** eta indarrean dauden **legediak** dira.

Nabarmentzekoa da ez dugula informaziorik aurkitzen modalitateko instalazioei buruz edo selekzio autonomikoei buruz.

Online izapideei dagokienez, aipatzekoa da ezin dela online **lizentziarik** izapidetu edo **lehiaketetan izena** eman, lurralde federazioen eskumena baita hori. Aitzitik, lehiaketen **aktak** euskal federakuntzak erregistratzen ditu. Bestalde, **kirol zehapenen aurkako errekurtsoak** edo **mediku-partek** ezin dira baliabide telematikoen bidez kontsultatu. Era berean, ez dute app bat beste kudeaketa batzuetarako.

Federakuntzak ez du **denda birtualik** kudeatzen, baina webgune berrian bat ipintzea pentsatu dute. **Gune pribaturik** ere ez dute, baina denda birtualarekin bezala, webgune berriarekin ere ezarriko da.

2. Sare sozialak:

Sare sozialei dagokienez, Facebook besterik ez dute kudeatzen; @fedcazaeusyadi, eguneratze etengabeekin mantentzen dute eta ikusle edo jarraitzaileak egunetan mantentzeko erabiltzen duten sare soziala litzateke. Federazioko kideek kudeatzen dute sare sozial hori. Webgunetik ezin da sare horretara sartu.





www.cazavasca.com

Helbidea:
Julian Gaiarre, 48 - bajo
48004 Bilbao
Korreoa:
fvcaza@outlook.com
Telefona:
94 473 50 06

EHIZA

3. Komunikazio estrategia:

Federazio eta klubekiko komunikazioak posta elektronikoaren eta WhatsAppen bidez egiten dira. Ez diete aldizkari elektronikorik bidaltzen federatuei.

Euskal federazioak Eusko Jaurlaritzak eta ASI enpresak sartutako plataforma informatiko batean gordetzen ditu federatuen datuak.

4. Ekipamendu informatikoa:

Klubak mahaiko ordenagailu, ordenagailu eramangarri eta inprimagailu eguneratuak ditu.

5. Telelana

Pandemia eta konfinamendu garaian telelana ezarri zen Meet eta Zoom bidezko bilerekin. Halaber, Whatsapp eta posta elektronikoa erabiltzen zituzten komunikabide gisa. Zuzendaritza Batzordeak eta Batzarrak ere bitarteko horiek erabiliz egin ziren, baina ez zen inolako neurririk ezarri.

6. Digitalizazio estrategia:


Digitalizazioari dagokionez, ez dute estrategiarik, baina urrats txikiak egin dituzte eremu digitalean; esaterako, web orri berria sortu nahi dute eta bertan gune pribatua, denda birtuala edo lehiaketetarako sarreraren salmenta bezalako alderdi digitalak gehitu nahi dituzte.

Federazioak bere egungo egoera digitala 7 batekin baloratzen du, eta digitalizazioan aurrera egiteko arazo nagusiak baliabide ekonomiko falta eta denbora falta direla irizten du.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasunaz ari garela, antibirusak eta segurtasun perimetrala, firewalla eta pasahitzak aldizka eguneratzea dituzte. Era berean, informazioa eskuratzeko auditoriak egiten dituzte, astean behin segurtasun kopiak egiteaz gain. Ikuskaritzak egiten dituzte datuen kudeaketa egokia dela bermatzeko, prestakuntza jaso dute alderdi hauen inguruan, eta haririk gabeko sareetan babesa dute.





Helbidea:
Paseo de Errotaburu, 1 - 3^a planta
20018 Donostia
Korreo:
secretaria@euskadirugby.eus
Telefonoa:
943 46 97 68

<http://euskadirugby.eus/>

ERRUGBIA

1. Web orrialdea:

Webgunea maiz eguneratzen da, astelehenero eguneraketak egiten saiatzen dira asteburuko partiden emaitzak igoz, eta ikastaro edo bestelako informazio berezia dagoenean ere eguneraketak egiten dituzte. Idazkaria eta web orrialdearen enpresa, Match ready, arduratzen dira bere kudeaketaz.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** aurkezpen atal bat aurkitu dezakegu azken albisteekin, bigarren bat **federazioari** buruzko informazioarekin (klub federatuei buruzko informazioa, lurralde federazioei buruzko informazioa, instalazioei buruzko informazioa, euskadiko selekzioko historiala...) eta hirugarren bat sailkapenak izeneko (maila bakoitzeko egutegiak eta emaitzak). Hurrengo atala **formazioa** litzateke (errugbiaren inguruko edukia biltzen du), eta horren ondoren **berriak** (eguneratuta), **agiriak** (araudia, zirkularra) eta **kontaktua** atalak aurkitu ditzakegu. Web orrialdeak euskaraz jartzeko aukera ematen du.

Online izapideei dagokienez, **lizentzien** programa bat dutela adierazi dute, Match ready izeneko, web orrialdearen enpresak sortua. Web orrialdean aurkitu daiteke zuzeneko sarbide bat plataforma honetara, eta klubak nahiz lurralde federazioak sar daitezke beraien lizentzia digitalak eskuratzen. Aplikazio berdinetik egiten dituzte lehiaketetako izen emateak, eta baita **akten digitalizazioa**. Klub bakoitzak bere aktak betetzen ditu eta behin epaileak aktak itxi dituenean, idazkariari zuzenean iristen zaizkio. Web orrialdean aktak ikusteko aukera dago, baina ez daude eguneratuta, aldatu egin behar dutela diote.

Kirol zehapenen aurkako errekurtsioak korreo elektronikoz kudeatzen dituzte eta **aseguru medikoen parteak** Axa aseguru etxearen programa propioaren bitartez.

Zerbitzu digitalen inguruan, ikastaro batzuk online egiten dituztela diote GoToMeeting plataformaren bitartez; korreoz bidaltzen zaie linka interesatuei eta web orrialdean bertan ere jakinarazpena jartzen dute edonork parte hartu dezan. Bestalde, aipatu noizbait sarreraren salmentaren bat egin dutela, web orrialdean link bat jarri eta bertatik erosi ahal izateko.

Zerbitzu digitalekin jarraitzeko, nabarmentzekoa litzateke euskal federakuntza MatchReady-rekin batera, mugikorreko aplikazio baten diseinuan lanean ari dela lizentzia digitalak mugikorretik eskuratu ahal izateko, gabonak baino lehen ateratzeko asmoa dute. Halaber, **denda birtualaren** diseinua ere martxan dutela adierazi dute.





Helbidea:
Paseo de Errotaburu, 1 - 3ª planta
20018 Donostia
Korreo:
secretaria@euskadirugby.eus
Telefonoa:
943 46 97 68

<http://euskadirugby.eus/>

ERRUGBIA

2. Sare sozialak:

Hainbat sare sozial kudeatzen dituzte, eta guztiak webgunetik eskura daitezke.

Hasteko, Facebook; @FederacionVascaRugby eta Twitter; @euskadirugby kudeatzen dituzte, eguneratuta mantetzen dituzten bi sare sozial. Halaber, YouTubeko kanal bat ere badute; Euskadiko Errugbi Federazioa / Federación Vasca de Rugby izenekoa, baina ez dute ezer argitaratu orain dela sei urtetik. Enpresa bat kontratatu dute aurtengo denboraldian sare sozialen kudeaketarako, izan ere, orain arte nahiko geldi eduki dituzte eta aktibo mantentzeko kontratatu dute enpresa berria. Bestalde, aipatzekoa da ez dutela kirol ebentuen emankizunik egiten eta oraingoz ez dute ideia hori planteatu.

3. Komunikazio estrategia:

Lurralde federazio eta klubuen arteko komunikazioa korreo elektronikoko, WhatsApp eta telefono bidez egiten dute. Hori ez ezik, euskadiko selekzioaren konbokatoriak web orrialdearen bitartez egiten dira. Federatu ororen datu pertsonalak MatchReady programaren bitartez kudeatzen dituzte.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federakuntzak 2 portatil, 3 mugikor eta mahaiko ordenagailuak dituzte, guztiak eguneratuta.

5. Telelana:

Nahiz eta federazioko bi langileek telelana egin zuten bi hilabeteetan soilik, ez dute sistemarik ezarrita. Dena den, bilera eta Zuzendaritza Batzarrak ahal den neurrian telematikoki egiten dituzte GoToMeeting plataformaren bitartez, baina presentzialki ere burutzen dituzte.

6. Digitalizazio estrategia:

Orain kontratatu duten enpresa berriak digitalizazio estrategia bat martxan jarriko du.

Federakuntzak egungo digitalizazio egoera 6 batekin baloratzen du, eta gai hauen inguruko ezagutza falta aipatzen dute arazo nagusi bezala, hots, formakuntza ondo etorriko litzaiekeela diote.





Helbidea:
Paseo de Errotaburu, 1 - 3^a planta
20018 Donostia
Korrea:
secretaria@euskadirugby.eus
Telefonoa:
943 46 97 68

<http://euskadirugby.eus/>

ERRUGBIA

7.Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politiken inguruan antibirus lizentziak dituztela esan dezakegu, firewall-a, pasahitzak aldizka eguneratzen dituzte (urtean bi aldiz), ikuskaritzak egiten dituzte, segurtasun kopiak noizean behin egiten dituzte, jardunbide egokiei buruzko prestakuntzarik jaso dute (gutxi jaso dutela diote), lanpostuen sistema eragileak eguneratzen dituzte eta haririk gabeko sareak babesteko pasahitza dute. Alderdi guzti hauek enpresa batek kudeatzen dizkie.





www.esgrimavasca.com

Helbidea:
Edificio CPT-Avda.de los Chopos, s/n
48991 Getxo
Korreoa:
esgrima@euskalkirola.eus
Telefonoa:
946 23 26 89

ESGRIMA

1. Web orria:

Euskadiko Esgrima Federazioak ez du web orrialderik federakuntzaren inguruko informazioaren berri emateko.

Online izapideei dagokienez, **lizentziak** Skermo izeneko web plataforma baten bidez egiten dituzte. Plataforma hori **lehiaketetan izena** emateko ere erabiliko da laster, orain arte izapide horiek korreo elektronikoz egin baitituzte. Nabarmentzekoa da lehiaketetako **aktak** ez direla digitalizatzen, eta **mediku aseguru**en parteak korreo elektronikoz kudeatzen direla. Bestalde, gehitu ez dutela **eremu pribaturik, denda birtualik, zerbitzu digitalik** edo kudeaketa ezberdinetarako aplikaziorik.

2. Sare sozialak:

Web orriaren antzera, ez dute lehiaketen edo gertaeren inguruko informaziorik zabaltzeko sare sozialik kudeatzen. Halaber, ez dute streamingik egiten.

3. Komunikazio estrategia:

Klubekiko eta lurralde federazioekiko komunikazio guztia posta elektronikoz eta telefonoz egiten da, proben, ordutegiaren eta emaitzen inguruko informazioa helarazteko.

Federatuen datu pertsonalak lehen aipatutako plataformaren bidez kudeatzen dira.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak ordenagailuak bakarrik ditu eta bestelako gailu gehiago edukitzea ondo legokeela gehitzen dute.

5. Telelana:

Ez dute telelaneko estrategiarik ezarri, baina Zoom eta Team erabili dituzte zuzendaritza batzordeak eta bestelako bilerak egiteko.





www.esgrimavasca.com

Helbidea:
Edificio CPT-Avda.de los Chopos, s/n
48991 Getxo
Korreo:
esgrima@euskalkirola.eus
Telefonoa:
946 23 26 89

ESGRIMA

6. Digitalizazio estrategia:

Federazioak ez du digitalizazio estrategiarik, atal hori kudeatzen ari dira gaur egun, eta langile eta denbora falta lirateke digitalizazioan aurrera egiteko dituzten arazo nagusiak.

Federazioak bere digitalizazio egoera 2 batekin baloratzen du 10etik.

7. Zibersegurtasun politikak:

Gaur egun Euskal Federazioen Batasunak kudeatzen ditu zibersegurtasun politikak, eta ez dute baliabide propiorik gai horiek kudeatzeko. Aipatu zibersegurtasunarekin lotutako atal guztietatik, jardunbide egokien inguruko prestakuntza baino ez dutela egin.





www.fvascabm.com

Helbidea:
Paseo de Errotaburu, 1 - 3ª planta
20018 Donostia
Korreoa:
info@fvascabm.com
Telefonoa:
943 45 35 59

ESKUBALOIA

1. Web orrialdea:

Web orria maiz eguneratzen da albisteekin eta gainerako atalak behar direnean eguneratzen dira. Orrialdea federazioko langileek eguneratzen dute.

Webguneko menuari dagokionez, lehen atalean **federazioari** buruzko informazioa dago, eta bertan batzordeen, estatutuen, zuzendaritza-batzordearen eta abarren berri ematen da; bigarrean, **lehiaketei** buruzko informazioa ematen da (izen-emateak, lehiaketen ordutegiak...), eta, hirugarrean, **selektioei** buruzkoa (kategoriak). Hurrengo atalak **arlo teknikoa**, **aseguruen informazioa** eta **berriak** dira. Ondoren, **covid** izeneko atal bat dago, eta, horren ostean, kirolariei ematen zaizkien **diru laguntzei zuzendutako atalak**. Webgunea euskaraz zein gaztelaniaz jar daitekeela gehitu behar da.

Nabarmemtzekoa litzateke ez dugula modalitate bakoitzerako dauden instalazioei buruzko informaziorik aurkitu.

Online izapideei dagokienez, aipatu **lizentziak** online izapidetzeko aukera dagoela eta federazioko kideek eurek kudeatzen dituztela. Era berean, eremu pribatu bat dute, eta, bertatik, kirol klubek beren kirolarien datu pertsonalak eskura ditzakete. Lehiaketen aktei dagokienez ere, federatuen eremu pribatuan erregistratzen dira.

Denda birtualari dagokionez, aipatu behar da federazioaren orrian bertan bazegoela bat, baina, gaur egun, klub bakoitza arduratzen dela bere denda birtualaz.

Zerbitzu digitalei dagokienez, batzuetan arbitroei zuzendutako ikastaroak egin izan dituztela diote, webgunean aurrez iragarri eta plataforma telematikoen bidez egin dituztela.

2. Sare sozialak:

Sare sozialei dagokienez, adierazi webgunetik Twitterreko kontura soilik sar daitekeela zuzenean. Hasteko, Instagram kudeatzen dute; @eef_fvascabm, eguneratze konstanteekin mantentzen ez den sare sozial bat. Facebook-eko kontu bat ere badute; @EEFVascaBM eta Youtube-ko beste bat; Federación Vasca de Balonmano Área Técnica eta Instagram ez bezala, ez dira eguneratuta mantentzen lehiaketei edo atletei buruzko berrikuntzekin. Bestalde, Twitter kontua dute; @EEF_FVascaBM, eguneratuta mantentzen dutena. Horiek guztiak federazioko lehendakariak kudeatzen ditu.





www.fvascabm.com

Helbidea:
Paseo de Errotaburu, 1 - 3ª planta
20018 Donostia
Korreoa:
info@fvascabm.com
Telefonoa:
943 45 35 59

ESKUBALOA

3. Komunikazio estrategia:

Afiliatuekiko komunikazioa posta elektronikoaren eta telefono mugikorraren bidez egiten dira. Ez diete aldizkari elektronikorik bidaltzen federatuei.

Horrez gain, webgunearen eremu pribatuan erregistratuta dago informazio teknikoa, eta kirol klubek eurek kudeatzen dute.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak ordenagailu, ordenagailu eta inprimagailu eguneratuak ditu.

5. Telelana:

Pandemia eta konfinamendu garaian, telelana ezarri zen Meet eta Zoom bidezko bilerekin. Halaber, Whatsapp eta posta elektronikoa erabiltzen zituzten komunikabide gisa.

6. Digitalizazio estrategia:

Digitalizazioari dagokionez, ez dute estrategiarik, baina urrats txikiak egin dituzte eremu digitalean, hala nola lizentzien digitalizazioa edo aktak modu digitalean.

Federazioak bere egoera digitala 8 batekin baloratzen du eta langileen prestakuntza faltaren ideia azpimarratzen du digitalizazioan aurrera egin ahal izateko.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasunaz ari garela, antibirusak eta segurtasun perimetrala, firewalla eta pasahitzak aldizka eguneratzea dituzte. Era berean, informazioa eskuratzeko auditoriak egiten dituzte astean behin segurtasun kopiak giteaz gain.

Duela hilabete batzuk zibereraso bat jasan zuten, eta, horren ondorioz, arreta handiagoa jarri dute alderdi digital horretan.



ESKU PELOTA

1. Web orrialdea:

Web orrialdea normalean astean hiru lau aldiz eguneratzen da, txapelketen emaitzak eta bestelako berriak argitaratuz eta zuzendari teknikoa litzateke orrialdearen kudeaketaz arduratzen dena.

Webguneko menuari dagokionez, **home** izeneko lehen aurkpezipen atal bat aurkitu dezakegu azken albiste eta informazio orokorrarekin, bigarren bat **txapelketen** ingurukoa (kartelera, dokumentuak, lizentziak) eta hirugarren bat **dokumentuak** izenekoa (aseguroak, araudia, estatutuak). Hurrengo atalak **federakuntzaren** bestelako informazioa biltzen du (zuzendaritza batzordea, modalitateak, klubak), eta honen ostean **berriak** (eguneratutako azken albisteekin), **multimedia** eta **kontaktua** izeneko sailak topa ditzakegu. Web orrialdeak euskaraz nahiz gazelaniaz jartzeko aukera ematen du.

Online izapideei dagokienez, lizentzien tramitea telematikoki burutu daiteke iaiztik, baina oraindik ez dute ezarrita ordainketa burutzeko pasarelarik. Dena den, kirolarien datu guztiak online tramitatu daitezke, eta azken pausoa egiteko, klubek korreo elektronikoz edo WhatsApp bidez ordainketaren ziurtagiria bidaltzen dute euskal federazioari. Izapide hori web orrialdean dagoen lizentzien zona pribatutik egin dezakete klubek soilik. Halaber, Esku pelotaren Euskal Federazioak, oraingoz Kirol Lizentziaren, Grupo campusek eramaten duen plataformaren, bitartez kudeatzen ditu lizentziak. Ildo beretik jarraituz, federazioak aipatzen du online egiten diren tramite guztiak (mediku azterketak, baimenak...) lurralde federazioak balidatu behar dituela, hots, behin klubek bidalketa egitean norbaitek berrikusi behar dituela. Euskal federazioa aztertzen ari da nola automatizatu dezaketen hori sistema batek zuzenean balidatu ahal izateko.

Online izapideekin jarraitzeko, lehiaketetan izen emateak korreo elektronikoko bidez gauzatzen dira

Bestalde, lehiaketetako aktak aurten estreinatu berri duten mugikorreko aplikazio bati esker digitalizatzen dira; orain arte intranetetik egiteko aukera izan dute. Aplikazioak txapelketa guztiak kudeatzen ditu, hauen programazioa eta emaitzak. Epailak akta digitalak egiten dituzte, erabilzaila eta pasahitza baten bidez sartu eta bertan pilotarien aukeraketa egin, emaitzak sartu, eta aktak klub bakoitzari eta federazioari bidali ez ezik, intranetean sartuta gelditzen dira datu guztiak. Aplikazioak pilotari izena du.

Kirol zehapenen aurkako errekurtsioei dagokionez, berriz, arestian aipatutako aplikazioaren bitartez epailak oharrak jartzen ditu errekurtsioaren inguruan eta bidali egiten dira oharrak intranetera. Behin intranetean oharraren datuak jaso direla, federazioak txekatu egiten du, eta telefono, WhatsApp eta korreo elektronikoko bidez notifikatzen du.



ESKU PELOTA

Aseguru medikuen parteak korreo elektroniko bidez kudeatzen dira, istripua izan duen pelotariak lurraldeko federazioaren bidez kudeatu behar ditu.

Zerbitzu digitalen inguruan, orain euskal pilotako entrenatzaile ikastaroa erdia online eta beste erdia aurrez aurreko formatuan egiten dutela aipatu genezake. Hori ez ezik, hilabete barru programa berezi bat martxan jarriko dute euskal pilotaren entrenamenduetarako, metodologia bat ezarrita duen herramienta informatiko bat sortu dute eta hori klubetara zabaltzen joango dira.

Zerbitzu digitalekin amaitzeko, **denda birtuala** dute eta ordainketa eta dena online egin daiteke Paypoll edo txartelaren bitartez. Denda birtuala federazioko beste pertsona batek kudeatzen du. Horrez gain, aipatu ez dutela sarreraren salmentarik egiten online, urtean bi aldiz bakarrik saltzen dituztelako sarrerak presentzialki.

2. Sare sozialak:

Hainbat sare sozial kudeatzen dituzte, eta guztiak webgunetik eskura daitezke.

Hasteko, Facebook; @EuskadikoEuskalPilotaFederakuntza eta Twitterreko kontu bat; @EPfederakuntza . Halaber, YouTubeko kanal bat ere kudeatzen dute Euskal pilota federazioa izenekoa, baina ez dute ezer argitaratu orain dela hiru urtetik.

Izendatutako sare sozial guztiak oro har bi hiru aldiz eguneratzen dira astean zuzendari teknikoari esker, eta txapelketa asko dituzten garaietan lau aldiz. Gainera, aipatzekoa da kirol ebentuen emankizuna facebook en bidez egiten dutela.

3. Komunikazio estrategia:

Email bidez egiten dute komunikazioa guztia eta ez dute newsletterrik bidaltzen. Federatuen datu pertsonalei dagokienez, Kirol Lizentzien datu basean kudeatzen direla esan dezakegu.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federakuntzak tablet bat, 2 ordenagailu, portatil bat eta mugikor bat du, eta momentuz gehiagoren beharrik ez dutela nabarmentzen dute, guztiak eguneratuta baitaude.



ESKU PELOTA

5. Telelana:

Federazioko bi langileek telelana egiten dute astean egun batzuetan eta batzarrei dagokienez pandemia garaian telematikoki egiten hasi ziren eta orain aurrez aurre edo telematikoki egiteko aukera dute. Telematikoki egiten dutenean Zoom plataformaren bidez egiten dute.

6. Digitalizazio estrategia:

Orain dela 2 urte diseinatu zuten digitalizazio estrategia eta estrategia horren barruan zeuden mugikorrek aplikazioa aktak digitalizatzeko, lizentzien tramitazio telematikoa eskaintzea eta klubetan entrenamenduen aplikazioa ezartzea. Beraz, argi dago estrategian zehaztu zituzten pausoak jarraitu dituztela eta erakundearen digitalizazioaren eraldaketarako zenbait ekintza jarri dituztela martxan.

Federakuntzak egungo digitalizazio egoera 6,5-7 batekin baloratzen du, eta formakuntza zenbait alderditan oso ondo etorriko litzaiekeela aipatzen dute, batez ere komunikazio estrategien inguruan.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politiken inguruan antibirus lizentziak dituztela esan dezakegu, firewall-a, pasahitzak aldizka eguneratzen dituzte (2 hilabetero), ikuskaritzak egiten dituzte, serbidorearen kopiak astero egiten dituzte eta baita kanpo diskoetan kopiak, ez dute jardunbide egokiei buruzko prestakuntzarik izan, baina federazioko langileak bere kabuz informatu dira, lanpostuen sistema eragileak eguneratzen dituzte (office 365 a dute kontratuta) eta haririk gabeko sareak babesteko pasahitza dute.



FUTBOLA

1. Web orrialdea:

Web orrialdea astero eguneratzen da, izan ere, astero berriren bat ipintzen saiatzen dira txapelketen inguruko informazio eta emaitzekin. Prentsa arduradunak kudeatzen du web orrialdeko informazio orokorra, eta lehiaketan emaitzen eguneraketa txapelketen arduradunei dagokie.

Webguneko menuari dagokionez, **federazioa** izeneko lehen atal bat aurkitu dezakegu azken albiste eta partiduen emaitzekin, bigarren bat **arautegiari** buruzkoa (estatutuak, zirkularrak...) eta hirugarren bat **txapelketen** inguruko informazioari zuzendua (kirol instalazioen bilatzaile bat aurkitu dezakegu azken atal horretan). Hurrengo atalak federakuntza barnean dauden **batzorde** ezberdinen inguruko informazioa biltzen du (epaile, entrenatzaile, teknikarien batzordeak), eta honen ostean **selektzioak** (emakume zein gizonen euskal selekzioen informazioa), **argitalpenak** (eguneratutako berriekin) eta **kontaktua** izeneko sailak topa ditzakegu. Web orrialdeak euskaraz nahiz gazelaniaz jartzeko aukera ematen du.


Online izapideei dagokienez, alde batetik, intraneta izeneko zona pribatu bat dute web orrialdean **lizentzien** kudeaketa burutzeko, zona pribatu hori klubetara zuzendua da, hots, klub bakoitzak bere lizentzia digitalak ikus ditzake erabiltzaile eta pasahitza erabiliz. Aipatutako zona pribatua klubentzat ez ezik, antolaketa barruan dauden kideentzat, hots, epaileentzat ere erabilgarria da. Oraindik ez dute martxan jarri intraneta federatu bakoitzaren datuetara sartzeko, interesgarria iruditzen zaie, baina lurraldeko federakuntzen antolaketari behatuz denen arteko kudeaketa amankomun bat bilatu beharko litzatekeela deritzote. Horrez gain, Euskal Kirol Federazioaren Batasuneko aplikazio bat erabiltzen dute lizentzien izapidetza gauzatzeko, Kirol Lizentziak izeneko. Lizentziak Espainiako Futbol Federakuntzara bidaltzen dituzte behin izapidetza guztiak egin ondoren.

Online izapideekin jarraitzeko, **lehiaketetan izen ematea** web orrialdearen bitartez ere egin daitekeela nabarmentzen dute.

Bestalde, lehiaketetako **akten** inguruan denak digitalizatuta daudela diote areto futbolekoak izan ezik, modalitate honetan zailagoa baita, dena den, digitalizatzeko prozesu hori bukatzearekin daude. Akta guztiak web orrialdean aurkitu daitezke digitalizatuta eta edonork ikus ditzake. Web orrialdeko enpresa berdinak egin zuen aktak digitalizatzeko eremua federakuntzaren web orrialdean.

Kirol zehapenen aurkako errekurtsioak klub bakoitzak zona pribatutik eskura ditzake, bakoitzak bere usuario eta pasahitzaren bidez. Egia da klub bakoitzak helegite bat aurkezten badu santzioari web orrialdean intranetaren bitartez edo emailaren bidez egin behar dutela.





FUTBOLA

Lizentzien **aseguru medikuen parteak** lurralde federazioen bitartez egiten dira. Kirolari eta epaileen aseguruak Espainiako Federakuntzak egindako mutua batek kudeatzen ditu, eta mutua horrek delegaritza ezberdinak ditu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Delegaritza bakoitzak bere aseguruak kudeatzen ditu.

Beste atal bati helduz, **zerbitzu digitalei** dagokionez esate baterako, sarrerren salmenta azpimarratu dezakegu. Euskal selekzioko partiduetan soilik saltzen dituzte sarrerak online, web orrialdean link bat ipini eta enpresa baten bidez saltzen dituzte. Horrez gain, hitzaldiak ematen zituzten YouTuberen bitartez pandemia garaian, streaming eta bestelako plataformen bitartez.

Futboleko federakuntzak ez du **denda birtualik** ekipamendua saltzeko, noizbait planteatu dute ideia, baina ez da aurrera eraman. Orain arte Astorerekin akordio bat zuten Astorek beraien web orrialdean euskal selekzioko arropa saltzeko.

Zerbitzu digitalekin amaitzeko, federakuntzak mugikorrerako app bat duela aipatzekoa da, EFF-FVF izenekoa. Web orrialdearen informazio orokorra ikusteko balio du, hots, klub baten emaitzak edota talde baten emaitzak jarrai diaitezke adibidez aplikazioaren bitartez, baita jokalaria batek bere informazioa eskura eduki ere.

2. Sare sozialak:

Hainbat sare sozial kudeatzen dituzte, eta guztiak webgunetik eskura daitezke.

Hasteko, Instagram; @eff_fvf kontu bat dute, Facebook; @EFF.FVF eta Twitterreko kontu bat; @EFF_FVF. Halaber, YouTubeko kanal bat ere kudeatzen dute EFF/ FVF izenekoa.

Izendatutako sare sozial guztiak prentsa arduradunak kudeatzen ditu, eta astero 2-3 argitaralpen egiten dira gutxienez, beraz, eguneratuta mantentzen direla argi dago.


Gainera, nabarmentzekoa da pasa den denboraldian Euskal Kirol Batasunaren Federakuntzak akordio bat egin zuela telebistarekin zenbait lehiaketen emankizunak gauzatzeko.

3. Komunikazio estrategia:

Klubekin intranetaren bitartez komunikatzen dira, eta horrez gain, emaila nahiz sare sozialak erabiltzen dituzte. Aldizkari digital bat ere argitaratzen dute urtarrilean eta uztailean informazioa partekatzen.

Federatuen datu pertsonalak Kirol Lizentziaren aplikazioaren bitartez kudeatzen dira.





FUTBOLA

4.Ekipamendu informatikoa:

Ordenagailuak, tabletak, pantaila bat kamararekin (batzarrak egiteko) , portatilak eta kamararen bat (epaileen saiaok eta entrenamenduak grabatzeko) du federakuntzak, guztiak eguneratuta.

5. Telelana:

Pandemia garaian telelana egin izan dute beste federakuntzen antzera, baina orain ez dute plataformarik ezarrita, presentzialki egiten dute lana bulegoan. Dena den, zuzendaritza batzordearen bilerak eta bestelako bilera batzuk Zoom bitartez egiten dituzte oraindik , hala ere ez dute erabakita horrela jarraituko duten edo ez, erabakitzeke dute, iritzi ezberdinak baitira federakuntza barnean.

6.Digitalizazio estrategia:

Erakundeak plan estrategiko orokor bat dauka diseinatuta, eta horren barruan badituzte zenbait alderdi digitalizazioaren ingurukoak. Adibide gisa futboleko klubuen lizentzien digitalizazio prozesuaren eraldaketa litzateke, aztertzen ari dira alor hau, klubak presentzialki federakuntzara joan behar ez izateko. Digitalizazioa lantzen jarraitu nahi dute federakuntzaren barruan, interesa dute gai honetan sakontzen jarraitzeko. Gainera, Espainiako federazioaren aldetik digitalizazio prozesu bat martxan dela diote, estatu mailan futbol federakuntza guztiak aplikazio berdinen barnean egotea nahi dutelako, batez ere lizentziei dagokienez.

Federakuntzak egungo digitalizazio egoera 7 batekin baloratzen du, oraindik ere hobetzeko duten arren egoera onean daudelako.

Bestalde, federazioak dio beraientzat zailagoa dela digitalizazioan aurrera egitea jende asko dutelako, klub asko kudeatzen dituztelako atzetik, eta beraz, pausoak ematea zailagoa dela, poliki-poliki egin behar direlako aldaketa guztiak. Administrazio aldetik aldaketak egitea zailagoa da, denen artean kudeatu behar direlako aldaketak, ondo transmititu behar da jende guztiari, ondo informatu arazoak sor ez daitezen...





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

www.euskadifutbol.eus

Helbidea:
Julian Gaiarre, 48 - bajo
48004 Bilbo

Korreoa:
administracion@euskadifutbol.eus

Telefonoa:
94 473 19 00

FUTBOLA

7. Zibersegurtasun politikak:

Federakuntzak kontratatuta duen enpresa informatikoak antibirusa eguneratzen die urtero, sistemaren bitartez eguneratzen dute, firewalla ere informatikoak eramaten die. Aldizkako eguneratzeak egiten dituzte beraien pasahitzetan eta auditoria bat egiten dute datu babesaren inguruan urtero. Informatikaren enpresaren bitartez jaso dute dokumentazioa, formakuntza jardunbide egokiei buruzko neurriei buruz. Sistemen eguneratzeak egiten dituzte, segurtasun kopiak egunero egiten ditu informatikoak, eta bakoitzak bere ordenagailuetan kanpo kopiak burutzen ditu. Azkenik, haririk gabeko sisteman pasahitza dute sistemaren babesa bermatzeko.



GIMNASIA

1. Web orrialdea:

Webgunea hileroko eguneratzen da, eta federazioaren eta web orriko enpresaren artean kudeatzen da.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** lehen atal bat bereizi dezakegu, historia, sare sozialak, azken berriak, babesleak... erakusten dituenak. Horren ostean, 2019an egin zen **gala** bati buruzko informazioa duen bigarren atal bat dute, lehiaketei buruzko informazio eguneratua duen **txapelketen** hirugarren bat eta **albisteen** beste atal bat (horiek ez daude eguneratuta, ez dute ezer argitaratzen 2021eko otsailetik). Jarraitzeko, **galeria** sail bat dute argazki ezberdinekin, **gimnasten** inguruko beste bat eta azken bat **sarreraren** salmentarako. Webgunea euskararaz nahiz gaztelaniz jarri daiteke.

Nabarmentzekoa litzateke ez dugula informaziorik aurkitu orrialdean kirol modalitate bakoitzerako dauden kirol instalazioei buruz, gimnasiako lurralde federazioei eta klubei buruzko informaziorik, ezta euskal selekzioei buruzko informaziorik ere.

Online izapideei dagokienez, Gimnasiako Euskal Federakuntzak Grupo Campus izeneko programa bat erabiltzen duela aipatzen du kirolarien **lizentziak** kudeatzeko garian. Programa hori ez dago webgunearekin lotuta, eta lurralde federazioak arduratzen dira lizentziak lantzeaz, eta euskal federazioa, berriz, lizentziak emateaz. Era berean, **lehiaketetarako izen emateak** ere arestian izendatutako programaren bitartez egiten dira, baina klubetako teknikariek bakarrik eman dezakete izena lehiaketetan betiere lurralde federazioen bitartez.

Bestalde, lehiaketetako **aktak** alde batetik kiroldegitik bidaltzen dira eta webgunean eguneratzen dira emaitza eta sailkapenen datuak; bestetik, federazioak korreo elektronikoz bidaltzen dizkie aktak entrenatzaileei. Horrez gain, federazioak egiten dituen izapideekin jarraituz, klubek **aseguru medikoen parteak** bete eta korreo elektronikoz bidaltzen dituzte.

Zerbitzu digitalei dagokienez, aipatu EuskalGym aplikatik online saltzen dituztela sarrerak Euskalgym izeneko nazioarteko ekitaldirako. Gainera, online prestakuntza ere eskaintzen dute, plataforma ezberdinekin egiten dute lan ikastaroak online eman ahal izateko.

Ez dute **denda birtualik**, ez dago federazioaren ekipazioa saltzen duen dendarik.

GIMNASIA

2. Sare sozialak:

Hainbat sare sozial kudeatzen dituzte, eta guztiak webgunetik eskura daitezke.

Hasteko, Instagram; @euskalgym kontu bat dute, azken aldiz uztailan eguneratu zena. Halaber, Facebook kudeatzen dute; @Euskalgym, hilean behin eguneratzen dute eta Twitterreko kontu bat; @Euskalgym, 2019ko azken galatik argitalpenik gabe mantentzen duten kontua. Azkenik, Euskalgym Euskadiko Gimnastika Federazioa izeneko YouTube kanala dute, eta, horren bidez, ekitaldi eta lehiaketen streamingak egiten dituzte. Facebooketik ere zuzeneko emanaldiak egiten dituzte.

Oro har, sare sozialak 3 bolondres eta kontratatuta duten enpresaren beste 3 pertsonen artean kudeatzen dira.

3. Komunikazio estrategia:

Kirolariekin korreo elektronikoa eta WhatsApparen bidez komunikatzen dira, eta ez dute newsletterrik bidaltzen. Horrez gain, federatuen datuak lizentzien aplikazioaren bidez kudeatzen dira.

4. Ekipamendu informatikoa:

Ekipamendu informatikoa eguneratua dute.

5. Telelana:

Sistema telematikoa bat ezarrita dute federazioko langileek telelana egin ahal izan dezaten, hau da, bilerak online egin ditzakete.

6. Digitalizazio estrategia:

Digitalizazio estrategiarik planteatu ez duten arren, digitalizatzeko falta zaien alderdi bakarra epaileen dokumentazioa dela aipatu dute, dena tabletan bidez egin ahal izatea eta emaitzak zuzenean webgunera joatea aktak digitalizatu ahal izateko.

Bestalde, erakundeak bere egungo digitalizazio egoera 10etik 9 batekin baloratzen du, eta gai honetan aurrera egiteko izan dezaketen arazo nagusia baliabide ekonomiko falta dela azpimarratzen dute.





www.euskalgym.com

Helbidea:
Paseo de Errotaburu, 1-3^oa
20018 Donostia
Korreoa:
info@euskalkano.eus
Telefonoa:
943 051 365

GIMNASIA

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politiken inguruan, antibirusen lizentziak nahiz firewall-ak dituztela esan dezakegu, pasahitzak aldi aldi eguneratzen dituztela, informazioa eskuratzeko segurtasun neurriak dituztela ezarrita, haririk gabeko sareetan babesa dutela, backup-ak egiten dituztela eta lanpostuen sistema eragileak eguneratzen dituztela. Ez duten gauza bakarra jardunbide egokiei buruzko prestakuntza neurriak dira.





www.fvgolf.com

Helbidea:
Plaza Euskadi, 1 - 4º
20002 Donostia
Korreo:
info@fvgolf.com
Telefonoa:
943 29 35 08

GOLF

1. Web orrialdea:

Webgunea egunero eguneratzen da ostegunetik igandera bitarteko golf txapelketei buruzko informazioarekin. Webgune hau administrariak eta federazioko kirol zuzendariak kudeatzen dute.

Webguneko menuari dagokionez, **Euskadiko Golf Federazioari** (nor diren, estatutuak, hauteskundeak...) buruzko informazioa duen lehen atal bat bereizi dezakegu. Hurrengo atala Gipuzkoa, Bikaia eta Araban dauden **klubei** eta golf zelaiei buruzkoa da. Hirugarren atala **zirkularrei** buruzkoa da, eta ondorengo **lehiaketan** ingurukoa. Horien ostean **ranking** atal bat dago atleten postuak erakusten dituen, eta **blog** bat duen beste bat, non golf lehiaketei eta ekitaldiei buruzko datuak idazten diren. Azkenik, **harremanetarako** atala aurkitu dezakegu. Adierazi hizkuntza alda daitekeela, bai euskarara bai gaztelaniara.

Nabarmentzekoa da ez dugula informaziorik aurkitu euskal selekzioei buruz.

Online izapideei dagokienez, **lizentziak** Googleren inprimaki baten bidez osatzen dira, eta, ondoren, atletek sinatu eta federazioak berak kudeatzen ditu. Era berean, **lehiaketetarako izen emateak** webgunetik egiten dira, baita txapelketen **aktak**, ordutegiak eta txapelketei buruzko informazioa ere.

Bestalde, **kirol zehapenen aurkako errekurtsuak** webgunean eskuratu daitezke jokabide kodearekin batera. **Aseguru medikoen** parteen kasuan, federatuek edo klubek formulario baten bidez datuak bidaltzen dituzte euskal federaziora honek kudeatu ditzan.

Interesgarria da webgunean arbitroen prestakuntza ikastaroetarako izena emateko eta informazioa eskuratzeko atal bat sartu berri dutela. **Zerbitzu digitalei** dagokienez, aipatu behar da ez dutela kirol-ekipamendua edo materiala saltzen duen **denda birtualik**, eta ezta **eremu pribaturik**, lurralde federazioen eremu pribatua erabiltzen baita.

2. Sare sozialak:

Hainbat sare sozial kudeatzen dituzte, eta guztiak webgunetik eskura daitezke. Hasteko, Instagram kontu bat dute; @fvgolf, duela hilabete baino gehiagotik eguneratu ez dena. YouTube ere kudeatzen dute; @Euskadiko Golf Federazioa, Instagramen antzera ez da maiz eguneratzen.

Kirol-buruak aipatzen duenez, aurreko bi sareen argitalpen urrien arrazoi nagusia, kirolari adingabeen





www.fvgolf.com

Helbidea
Plaza Euskadi, 1 - 4º
20002 Donostia
Korreoak:
info@fvgolf.com
Telefonoak:
943 29 35 08

GOLF

irudiak tratatzeak ematen dizkien arazoa litzateke, izan ere, gurasoengandik kexa ugari jaso dituzte zenbait kirolariri protagonismoa ematen dietelako eta beste batzuei ez.

Horregatik, gaur egun Twitter besterik ez dute aktibo mantentzen; @fvascagolf, web orrialdearekin konbinatuta dago Twitterreko albiste berriak webgunean atera daitezten.

Azpinarratu behar da ez dutela streaming bidezko emanaldirik egin.

3. Komunikazio estrategia:

Kirolariekin, klubekin eta lurralde federazioekin korreo elektronikoko eta WhatsApp bidez egiten dituzte komunikazioak; gehitu ez dutela newsletterrik bidaltzen.

Federatuen datuen kudeaketa golfeko lurralde federazioekin batera egiten da.

4. Ekipamendu informatikoa:

Ekipamendu informatiko eguneratua dute, pandemiaren hasieran gailuak (ordenagailuak eta eramangarriak) aldatu baitziren.

5. Telelana:

Ez dute sistema telematikorik ezarrita federazioko langileek telelana egiteko, baina zuzendaritza batzordeak eta bestelako bilerak telematikoki egin dituzte.

6. Digitalizazio estrategia:

Digitalizazio estrategiarik planteatu ez duten arren, aipatu dute Madrilgo Golf Federazioarekin alderatzen direla eta digitalizazioaren esparruan ekintza txikiak egin nahi dituztela; hala ere, langilerik eta baliabide ekonomikorik ez dagoenez ezinezkoa da urrats digital gehienak egitea.

Digitalizazio egoera 10etik 7,5ekin baloratzen dute, federatuei egokituta dagoelako.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politikei dagokienez, antibirus lizentziak dituzte, firewalla, pasahitzak aldi-aldi eguneratzen dituzte, informazioa eskuratzeko segurtasun neurriak ezarrita dituzte, haririk gabeko sareetan babesa dutela, backup-ak egiten dituzte eta lanpostuen sistema eragileak eguneratzen dituztela. Era berean, jardunbide egokiei buruzko prestakuntza neurriak jaso dituzte.





www.euskadikohalterofilia.org

Helbidea:
Araba kalea, 20 Postakutxa, 33
20800 Zarautz
Korreo:
euskadikohalterofilia@gmail.com
Telefonoa:
943 13 23 75

HALTEROFILIA

1. Web orrialdea:

Web orrialdea noizean behin eguneratzen da, astean behin. Web orrialdea egin zien enpresak, Grupo Campusek, egiten die orrialdearen mantenimendua eta federakuntzaren idazkaria, berriz, bestelako eguneraketaz arduratzen da. Orrialdea euskaraz nahiz gaztelaniaz jarri daiteke.

Webguneko menuari dagokionez, **informazioa** izeneko lehen atal bat aurkitu dezakegu (ongietorria, bulegoaren ordutegiak, batzar orokorraren informazioa), bigarren bat **kirol-datuei** buruzkoa (egutegia, emaitzak, rankinga, euskadiko liga) eta hirugarren bat **zuzendaritza teknikoaren** inguruko informazioari zuzendua (arautegia). Hurrengo atalak federakuntza barneko **batzordearen** informazioa biltzen du (epaileena) eta honen ostean **estekak** (halterofiliako kirol klubak datuak biltzen ditu) eta **kontaktua** izeneko sailak topa ditzakegu. Aipatzekoa da, bestalde, orrialdeko atal bakoitzeko informazioa irakurtzeko pdf bat deskargatu behar dela, hau da, ezin da informazioa zuzenean irakurri atal bakoitza klikatzean. Web orrialdeak euskaraz nahiz gaztelaniaz jartzeko aukera ematen du.

Online izapideekin hasteko, nabarmentzekoa da ezin direla **lizentziak** web orrialdetik tramitatu, ezta lehiaketetako izen emateak. Azken tramite hori klub bakoitzak korreo elektronikoz edo telefonoz egin behar du. Halaber, web orrialdeak intranet bat du.

Bestalde, lehiaketetako **aktak** orain arte eskuz egin dituztela dio federazioak, dena den, orain Espainiako Halterofiliako Federakuntzak programa bat egin du aktak digitalizatzeko eta horren bidez akta batzuk digitalizatu dituzte, baina ez denak.

Jarraitzeko, **kirol zehapenen aurkako errekursoak** eta **aseguru medikuak** ere beste izapideen antzera korreo elektronikoz bidez gautzatzen dituzte.

Zerbitzu digitalei dagokienez, aipatu ez dutela ez denda birtualik ezta aplikazio berezirik edo bestelako zerbitzu digitalik eskaintzen.

2. Sare sozialak:

Sare sozialetara igaroz, ez dute sarerik kudeatzen, izan ere, arrazoi nagusia pertsonal eta formakuntza falta dela diote, federakuntzaren alderdi hauek eramateko idazkaria bakarrik baitago. Era berean, federakuntzak ez du streamingik egiten lehiaketen emankizunetarako.





www.euskadikohalterofilia.org

Helbidea:
Araba kalea, 20 Postakutxa, 33
20800 Zarautz
Korreo:
euskadikohalterofilia@gmail.com
Telefonoa:
943 13 23 75

HALTEROFILIA

3. Komunikazio estrategia:

Korreo elektronikoa eta WhatsApp erabiltzen dute batez ere federakuntzaren komunikazioan. Federatuen datu pertsonalen kudeaketa Accessen bidez egiten dute.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federakuntzak ordenagailu bakarra du ofizinan eta ez dute portatilik langileek teleana burutu nahi badute. Gailu gehiagoren beharra dutela azpimarratzen dute, ondo etorriko litzaiekeela.

5. Telelana:

Pandemia dela eta bilerak telematikoki egiten hasi ziren Jitsi plataformaren bitartez, eta oraindik ere Zuzendaritza batzordeak eta bestelako bilera batzuk telematikoki egiten jarraitzen dituzte.

6. Digitalizazio estrategia:

Ez dute digitalizazio estrategiarik planteatu, eta gaur egungo digitalizazio egoera 2 batekin baloratzen dute 10etik. Digitalizazioan aurrera egiteko arazo handiena zuzendaritza bartzordeko jendearen adin altua litzateke, izan ere ez dute denborarik eta digitalizazio gaietan duten ezagutza urria da. Hori ez ezik pertsonal falta eta errekurso ekonomiko falta dira bestelako arazoak.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politiken inguruan, antibirusen lizentziak nahiz firewall-ak dituztela esan dezakegu, pasahitzak noizean behin eguneratzen dituztela, jardunbide egokiei buruzko prestakuntza neurriak jaso dituztela, haririk gabeko sareetan babesa dutela, backup-ak egiten dituztela eta lanpostuen sistema eragileak eguneratzen dituztela. Ez dute informazioa eskuratzeko segurtasun eta ikuskaritzarik egiten.





www.herrikirolak.eus

Helbidea:
Astola Auzitegia, 26
48220 Abadiño

Korreo:
ehkfed@herrikirolak.eus

Telefonoa:
94 681 81 12

HERRI KIROLAK

1. Web orrialdea:

Webgunea hileroko eguneratzen da, maiztasun gutxirekin, berriren bat sortzen denean. Federazioko zuzendariak kudeatzen du, hots, federakuntzaren langile bakarrak. Aipatzekoa da webgunea euskarara itzul daitekeela.

Webguneko menuari dagokionez, lehen atala **hasiera** izeneko da (ekitaldiei eta albisteei buruzko informazioa), bigarrena **federazioari** buruzkoa eta hirugarrena **kirol modalitate** desberdinei buruzkoa. Hurrengo atalak federazioaren **hauteskundeei** eta **araudiari** dagozkie. Ondoren, **loturen** eta **kontaktuaren** atalak daude.

Nabarmentzekoa da ez dagoela informaziorik modalitate bakoitzaren instalazioen inguruan, lehiaketen inguruan, kirolarien ranking edo historiko bat edo euskal selekzioen informazioari buruz.

Online izapideei dagokienez, aipatu ezin direla **lizentziak** web orritik izapidetu, ezta **lehiaketetan izena** eman ere. Era berean, webguneak ez du **gune pribaturik**, ez federatuentzat, klubentzat edo epaileentzat.

Bestalde, federazioak dio lehiaketen **aktak** eskuz egiten direla. Jarraitzeko, **kirol zehapenen aurkako errekurtsuak** eta **mediku aseguruak** posta elektronikoen bidez kudeatzen dira, aipatutako gainerako izapideak bezala.

Zerbitzu digitalei dagokienez, esan ez dutela **denda birtualik**, ezta aplikazio berezirik edo bestelako zerbitzu digitalik ere.

2. Sare sozialak:

Sare sozialetara igaroz, nabarmentzekoa da ez dutela sarerik kudeatzen. Halaber, federazioak ez du streamingik egiten lehiaketen emanaldietarako.





www.herrikirolak.eus

HERRI KIROLAK

Helbidea:
Astola Auzitegia, 26
48220 Abadiño

Korreoa:
ehkfed@herrikirolak.eus

Telefonoa:
94 681 81 12

3. Komunikazio estrategia:

Batez ere posta elektronikoa eta WhatsApp erabiltzen dituzte federazioaren komunikazioan. Federatuen datu pertsonalak Excel bidez kudeatzen dituzte.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak mahaiko ordenagailu bat, ordenagailu eramangarri bat eta eskaneatzeko eta inprimatzeko impresora bat ditu, guztiak eguneratuta.

5. Telelana:

Bilerak ez ziren inoiz modu telematikoan egin, kide gutxi direlako eta beharretara egokitu ahal izan zirelako. Gauza bera gertatzen da batzarrekin eta zuzendaritza batzordeekin, aurrez aurre egin baitziren.

6. Digitalizazio estrategia:

Ez dute digitalizazio estrategiarik, eta 10etik 1ekin baloratzen dute digitalizazioaren egungo egoera. Digitalizazioan aurrera egiteko arazorik handienak baliabide ekonomiko falta, pertsonal falta eta prestakuntza falta dira; horregatik, digitalizazioari dagokionez ez dute ia zerbitzu edo izapide digitalik.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politikei dagokienez, esan dezakegu antibirusen eta firewall-en lizentziak dituztela, pasahitzak aldian-aldian eguneratzen dituztela, jardunbide egokiei buruzko prestakuntza neurriak jaso dituztela, haririk gabeko sarean babesa dutela, backup-ak egiten dituztela eta lanpostuen sistema eragileak eguneratzen dituztela. Hori guztia federaziotik kanpoko segurtasun enpresa batek egiten du, eta hark kudeatzen ditu datuak babesteko izapide guztiak.





www.fvh.org

Helbidea:
Julian Gaiarre, 44 - bajo
48004 Bilbao
Korreo:
hipica@fvh.eus
Telefonoa:
94 473 48 95

HIPIKA

1. Web orrialdea:

Webgunea ia egunero eguneratzen da zirkularrak, albisteak, lehiaketetako programak, emaitzak...argitaratuz. INP Formación izeneko enpresa batek kudeatzen du.

Webguneko menuari dagokionez, honako hauek aurki ditzakegu: **hasiera** izeneko lehen atala (hurrengo ekitaldiak, albisteak...), **federazioari** eskainitako bigarren atala (zuzendaritza-batzordea, erregelamenduak, klubak...) eta **diziplina** desberdinei zuzendutako hirugarren bat (araudiak, ekitaldiak, lotutako berriak...). Hurrengo atalak honako hauek dira: **prestakuntza** (ikastaroei eta izen emateei buruzko informazioa), **galopeak** (araudia, lehiaketak...), **egutegia** (data eguneratuak), **zirkularrak** eta **albiste** eguneratuak. Web orria gaztelaniaz baino ezin da irakurri.

Azpimarratu behar da ez dugula informaziorik aurkitzen lurralde federazioei buruz, kirol modalitate bakoitzerako kirol instalazioei buruz, euskal selekzioei buruzko informaziorik, ezta lehiaketen historialik ere.

Online izapideei dagokienez, **lizentzia** eskatzeko inprimaki bat bidali daiteke posta elektronikoz, edo on-line inprimaki bat bete web orritik. Euskal federazioa lizentziak emateaz arduratzen da, eta ordainketa diru sarrera/transferentzia bidez egiten da kontu korrontean, edo TPV birtual baten bidez.

Lehiaketa ofizialetarako izen-emateak online plataformaren bidez egiten dira, federazioaren webgunean bertan.

Bestalde, federazioak dio lehiaketetako **aktak** paperean egiten jarraitzen dutela, nahiz eta lehiaketetako langile ofizial gehienek eskaneatu eta pdf formatuan bidaltzen dituzten.

Kirol zehapenen aurkako errekurtsoei dagokienez, dokumentazioa korreo elektronikoz edo posta arruntez bidaltzen eta jasotzen dute, baita **mediku aseguruaren** parteak ere.

Horrez gain, webguneak klubentzako **gune pribatu** bat du. Galopes azterketetan izena emateko erabiltzen da (zaldizkoen/amazonen kirol titulazioak eskuratzeko). Halaber, lizentzia deskargatzeko federatuak mezu elektronikoko bat jasotzen du erabiltzailearekin eta pasahitzarekin, lizentzia formatu digitalean deskargatzeko.





www.fvh.org

Dirección:
Julian Gaiarre, 44 - bajo
48004 Bilbao
Correo:
hipica@fvh.eus
Teléfono:
94 473 48 95

HIPIKA

Zerbitzu digitalei dagokienez, aipatzekoa litzateke online ematen dituztela prestakuntzak INP Formakuntza enpresaren laguntzarekin. Azkenik, ez dute **denda birtualik**.

2. Sare sozialak:

Bi sare sozial kudeatzen dituzte, eta bat bakarrik dago orrialdera linkatuta.

Hasteko, Facebook; Federación Vasca de Hípica - Euskal Hipika Federazioaren kontu bat dute, egunero eguneratzen dena. Bestalde, YouTubeko kanal bat dute; Euskal Hipika Federazioa, non hainbat webinarretako bideoak zintzilikatzen diren, baina duela ia urtebetetik ez du jarduerarik. Sare horiek INP Formación enpresak kudeatzen ditu. Azkenik, gehitu behar da ez dutela partiden streamingik egiten.

3. Komunikazio estrategia:

Korreo elektronikoa, WhatsApp, telefono deia eta buletin elektronikoa bat erabiltzen dituzte komunikabide gisa. Webgunetik eman daiteke izena newsletterrean.

Federatuen datu pertsonalak kudeatzeko, Enbor izeneko lizentziatarako erabiltzen den datu-basea erabiltzen da.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak zerbitzari 1, mahaiko 2 ordenagailu eta 3 ordenagailu eramangarri ditu, guztiak eguneratuta.

5. Telelana:

Federazioak telelana egiteko sistema bat du ezarrita: urrutiko konexioa (rdp). Era berean, bilerak eta zuzendaritza batzordeak Zoom bidez modu telematikoan egiten dituzte.





www.fvh.org

Helbidea:
Julian Gaiarre, 44 - bajo
48004 Bilbao
Korreoa:
hipica@fvh.eus
Telefonoa:
94 473 48 95

HIPIKA

6. Digitalizazio estrategia:

Federazioak ez du digitalizazio estrategiarik diseinatuta, baina datu basea handitzeko eta aldatzeko asmoa duela adierazi du, digitalki eguneratzeko. Halaber, digitalizazioan aurrera egitea eragozten dieten bi arazo denbora eta prestakuntza falta direla gaineratu dute.

Orain duten digitalizazio egoera 10etik 5 batek baloratzen dute.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politikei dagokienez, esan behar da antibirus bat dutela, McAfee, eta informatika daraman enpresak (INP Formakuntza) firewall bat instalatuko diela laster. Pasahitzak urtero eguneratzen dituzte, astero segurtasun kopiak egiten dituzte eta pasahitz bat dute wifi sarea babesteko. Bestalde, gehitu ez dutela auditoretzarik egiten eta ez dutela praktika egokiei buruzko neurrien prestakuntzarik jaso.



HOCKEY

1. Web orrialdea:

Web orria ahal denean eguneratzen da, astero lehiaketen eta albisteen datuekin eta aldizka gainerako atalak. Federazioko lehendakaria arduratzen da orrialdearen kudeaketaz.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** atal bat (albisteak, federazioa zenbakietan, lehiaketak...), **albisteei** eskainitako bigarren bat eta **lehiaketei** zuzendutako hirugarren bat aurki ditzakegu. Hurrengo atalean federazioak egindako jardueren eta **programen** informazioa biltzen da, eta atal honetan federazioari buruzko informazioa dago (galeria, araudiak, mutua...). Azkenik, **harremanetarako** atala aurkituko dugu. Gehitu orrialdea ezin dela euskaraz jarri.

Nabarmentzekoa da ez dutela informaziorik modalitateko instalazioei edo kirolarien rankingari buruz.

Online izapideei dagokienez, Espainiako Federazioarekin app bat dute, APPWEB.RFH.COM izenekoa. **Lizentziak** haren bidez izapidetzen dira, eta Euskadiko Federazioak sarbidea du plataforman. **Lehiaketei** eta lehiaketen **aktei** buruzko informazio guztia ere aplikazio berarekin kudeatzen da, baina hori bai webgunean ikus daiteke.

Bestalde, **kirol zehapenen aurkako errekurtsioak** eta **mediku aseguru**en parteak posta elektronikoz kudeatzen dira. **Zerbitzu digitalei** dagokienez, plataforma telematikoen bidez prestakuntza, ikastaroak egin direla aipatu behar da. Aitzitik, ez dute **denda birtualik**, ezta **gune pribaturik** ere.

2. Sare sozialak:

Sare sozialei dagokienez, Twitter besterik ez dute kudeatzen; @euskalhockey, baina ez da aktibo mantentzen. Halaber, federazioak ez du partiden streamingik egiten.

3. Komunikazio estrategia:

Batez ere korreo elektronikoa eta WhatsApp erabiltzen dute federazioaren komunikazioan.

Federatuen datu pertsonalak arestian aipatutako aplikazioaren bidez kudeatzen dira.



HOCKEY

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak hiru ordenagailu eta inprimagailu ditu, eta dutenarekin egokitzen diren arren, ordenagailu finko bat edo partidetarako gailuak eduki nahiko lituzkete.

5. Telelana:

Nahiz eta ez duten telelana erregularizatzeko sistemarik, pandemia garaian telelana burutu zen. Gainera, Zoom bidez bilerak eta zuzendaritza batzarrak egin dituzte eta aurten ere hala jarraitzen dute.

6. Digitalizazio estrategia:

Ez dute digitalizazio estrategiarik, baina baliabide gehiago izanez gero federakuntzaren egoera digitala aldatu nahiko luketeela diote.

Digitalizazioaren egungo egoera 10etik 6 batekin baloratzen dute, eta esparru honetan aurrera egiteko arazorik handienak baliabide ekonomiko falta eta alderdi digital guztiak kudeatuko dituen langile falta dela diote.

7. Zibersegurtasun politikak:

Antibirusak eta segurtasun perimetrala, firewall-ak eta auditoriak egiten dituzte, baita jardunbide egokiei buruzko prestakuntza eta neurriak ere. Pasahitzak ez dira aldi-aldi eguneratzen, eta horrek segurtasuna okertzen du. Disko gogorreko sistema eragileak eta barne kopiak eguneratzen dira, eta hari gabeko sareak babesten dira.





www.eif-fvn.org

Helbidea:
Julian Gaiarre, 50 - bajo
48004 Bilbao
Korreo:
info@eif-fvn.org
Telefonoa:
944 59 81 96

IGERIKETA

1. Web orrialdea:

Web orria beharrezkoa denean eguneratzen da, normalean astean bizpahiru aldiz. Kudeaketa horretaz federazioaren administrazioa eta federazioko boluntario bat arduratzen dira.

Webguneko menuari dagokionez, **igeriketa** izeneko lehen atal bat (egutegia, zirkularrak, emaitzak, errekorrak...), **waterpoloari** buruzko bigarren atal bat (igeriketarekin aipatutako alderdi berak) eta **igeriketa artistikoari** buruzko hirugarren bat bereizi ditzakegu. Hurrengo atalak **itsas zeharkaldiak** eta **salbamendu eta sorospena** dira. Webgunean beste atal batzuk daude, hala nola **Covid-19** (berriak), **egitura, modalitateak, epaileak, formakuntza, enlazeak, salmentak** eta **inprimakiak**. Gaineratu behar da webgunea euskaraz eta gaztelaniaz irakur daitekeela.

Azpimarratu behar da ez dugula modalitate bakoitzerako dauden kirol instalazioei buruzko informaziorik aurkitzen, ezta Euskadiko Selekzioei buruzko informaziorik ere.

Online izapideei dagokienez, **lizentziak** Google inprimaki baten bidez izapidetzen dira, eta, ondoren, Leverade plataformaren bidez, enpresa horrekin batera lan egiten baitute Espainiako Federazioarekin. Hala ere, ezin dira online ordaindu lizentziak. Modu berean egiten dira **lehiaketetarako** izen emateak eta lehiaketetako **aktak**, Leveraderen bidez hain zuzen ere.

Bestalde, **mediku aseguruaren parteal eta kirol zehapenen aurkako errekurtoak** e-mail bidez kudeatzen dira; izan ere, lehen aipatutako plataforma ezarri berri da eta oraindik ez du zerbitzu hori eskaintzen.

Zerbitzu digitalei dagokienez, online prestakuntzak egiten dituzte Meet eta Classroom bidez. Bestalde, nahiz eta web orrialdean salmenten eremu bat izan, bertan ekipamenduaren argazkiak eta prezioak soilik daude ikusgai, ezin baita online erosketarik gauzatu.

2. Sare sozialak:

Hainbat sare sozial kudeatzen dituzte, guztiak webgunetik eskura daitezkeenak.

Hasteko, **Instagram** kontu bat dute; @eif_fvn, etengabeko eguneratzeekin mantentzen dena. **Facebook** kontua dute; @fvn.eif, eta hori ere eguneratuta dago. Azkenik, **Twitterreko** kontu bat kudeatzen dute; @eif_fvn, eguneraketa etengabeekin mantentzen dena. Horiek guztiak federazioko boluntario batek kudeatzen ditu.





www.eif-fvn.org

Helbidea:
Julian Gaiarre, 50 - bajo
48004 Bilbao
Korreo:
info@eif-fvn.org
Telefonoa:
944 59 81 96

IGERIKETA

3. Komunikazio estrategia:

Kirolariekin eta beste federazio batzuekin komunikatzeko e-maila, WhatsApp eta telefono deia erabiltzen dute.

Federatuen datu pertsonalen kudeaketa Leveraderen bidez egiten dute.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak mahaiko ordenagailu bat, 4 eramangarri, 22 tablet, fotokopiagailua, inprimagailua eta router eramangarria ditu, guztiak eguneratuta.

5. Telelana:

Telolan sistema bat du ezarrita federakuntzak Aterpe izeneko plataforma baten bidez eta horri esker telematikoki antolatzeko gai izan dira. Batzarrei dagokienez, Microsoft Teamsi esker telematikoak egiten dituztela diote.

6. Digitalizazio estrategia:

Federazioak ez dauka digitalizazio estrategiarik arlo honetan aurrera egin ahal izateko, izan ere, oso digitalizazuta daudela irizten dute eta beraz, ez dute behar estrategiarik oraingoz. Dena den, formakuntzaren bat ondo etorriko litzaiekeela diote.

Egungo digitalizazio egoera 10etik 6 batekin baloratzen dute.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politikei dagokienez, esan dezakegu antibirus lizentziak dituztela, lanpostuen sistema eragileak eguneratzen direla eta hari gabeko sareak babesten dituztela pasahitz baten bidez. Segurtasun lizentzia Microsoftena da. BSegurtasun kopiak astero egiten dira. Pasahitzen babesari buruz ari garela, aipatu ez dituztela epe jakin batean eguneratzen, hots, pasahitz berdinak erabiltzen dituzte beti.

Azkenik, zibersegurtasunarekin zerikusia duen guztiak enpresa espezializatu batek kudeatzen diete.



IRRISTAKETA

1. Web orrialdea:

Webgunea ez da maiz eguneratzen, eta kudeatzeko ardura duen pertsona aldatzeko prozesuan daude.

Webguneko menuari dagokionez, **EHIF** izeneko lehen atal bat aurkitu dezakegu federazioaren informazio orokorra aurkezten duena (albisteak, hauteskundeak, lurralde federazioak, araudiak, gobernu organoak...), **Roller Freestyle**-ri buruzko bigarren atal bat (albisteak eta klubak) eta **Freestyle**-ri buruzko hirugarren bat (albisteak eta klubak). Hurrengo bi atalek bi modalitatetako albiste, klub eta lehiaketei buruzko informazioa ematen dute: **Lineako hockeya** eta **Patinetako hockeya**. Ondoren, **abiadura irristaketa** atal bat (albisteak, 2021eko egutegia, klubak eta Euskadiko txapelketen sailkapenak) eta **artistikoko** beste bat (albisteak, 2021eko egutegia, klubak eta lehiaketak) ikus dezakegu. Azkenik, azkeneko bi sailek ere federazioko beste bi kirol kategoria erakusten dituzte: **Roller Derby** eta **Skateboard**. Web orria gaztelaniaz zein euskaraz irakur daiteke.

Nabarmentzekoa litzateke ez dugula informaziorik aurkitzen modalitate bakoitzeko kirol instalazioei buruz, ezta Euskadiko selekzioko hautapenen inguruko erreferentziarik.

Online izapideei dagokienez, lizentziak intranet baten bidez izapidetzen dira, web orritik bertatik sar daitekeen intranet batetik hain zuzen ere. Lehiaketetako inskripzioak, akta digitalizatuak eta kirol-zehapenen aurkako errekurtsioak ere intranet horrekin kudeatzen dira.

Bestalde, mediku aseguruaren parteak posta elektronikoz kudeatzen dituzte.

Zerbitzu digitalei dagokienez, online prestakuntzak egiten dituztela aipatzen dute eta webgunean, erabiltzen ez den eremu pribatu bat ikus daitekeela. Horrez gain, **denda birtualik** ez dutela gehitzen dute.

2. Sare sozialak:

Hainbat sare sozial kudeatzen dituzte, guztiak webgunetik eskuragarri, Instagram izan ezik. Hasteko, Instagram kontua dute; @fvpatinaje, etengabe eguneratzen dena. Facebook kontua dute; Federacion Vasca de Patinaje - Euskal Herriko Irristaketa Federazioa, era berean eguneratuta mantentzen dena. Azkenik, aipatu Twitterreko kontu bat kudeatzen dutela; @fvpatinaje, eguneratzei edo albisteei dagokienez ere konstante mantentzen dena, eta YouTubeko kanal bat, duela urtebetetik argitalpenik gabe; FVP Patinajearen Euskal Federazioa - EHIF. Horiek guztiak lehendakariak eta gerentziak kudeatzen dituzte. Era berean, federazioak streamingak egiten ditu YouTube bidez.



IRRISTAKETA

3. Komunikazio estrategia:

Komunikazio guztia posta elektronikoko, WhatsApp eta telefono bidez egiten da. Federatuen datu pertsonalei dagokienez, arestian aipatutako intranet bidez kudeatzen dira.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak 8 ordenagailu eramangarri eta pantaila, 4G tabletak, smartphonea eta iPhonea ditu. Gailu eguneratuak dira, duela hilabete erosi baitzituzten.

5. Telelana:

Federazioko langileek telelan sistema bat dute ezarrita One Driveren bidez, eta bilerak Zoom bidez telematikoki egiten dituztela gaineratu dute.

6. Digitalizazio estrategia:

Federazioak digitalizazio estrategia bat duela adierazi du, eta erakundearen eraldaketa digitalerako plan horren barruan intranet propio bat diseinatzen ari direla gaineratu dute.

Federazioak digitalizazioaren egungo egoera 8 batekin baloratu du, eta digitalki aurrera egiteko arazo nagusia baliabide ekonomiko falta dela azpimarratzen du.

7. Zibersegurtasuneko politikak:

Zibersegurtasun politikei dagokienez, esan dezakegu antibirus eta firewall lizentziak dituztela, pasahitzak urtero eguneratzen dituztela, urtero segurtasun kopiak egiten dituztela, lanpostuen sistema eragileak eguneratzen dituztela eta haririk gabeko sareak babesten dituztela. Dena den, ez dute informazioa eskuratzeko auditoretzarik egiten, eta ez dute jardunbide egokiei buruzko prestakuntzarik izan. Zibersegurtasun politiken kudeaketaren arduradunari dagokionez, aldaketa prozesu batean dabiltzala aipatu dute.





JUDO ETA KIROL ELKARTEEN
EUSKAL FEDERAZIOA

euskaljudo.org

Helbidea:
Paseo de Errotaburu, 1 - 3ª planta
20018 Donostia
Korreoa:
secretario@euskaljudo.org
Telefonoa:
943 466 423

JUDO ETA DD.AA

1. Web orrialdea:

Federazioaren web orria astean behin eguneratzen da, edo eguneratzeko duten edukia dutenean, hala nola zirkularrak, albisteak... Federazioko boluntario batek kudeatzen du.

Webguneko menuari dagokionez, **aktualitateko** lehen atal bat (albisteak eta zirkularrak), **egutegiko** bigarren bat (oraindik igotzeke dago egutegia) eta gertaeren bilatzaile bat aurki ditzakegu. Hurrengo atalean, **federazioaren** informazio orokorra jasotzen da (organoak, estatutuak, hauteskundeak...), eta, horren ostean, **eskola federatiboa** (azterketetarako dokumentazioa, teknifikazio ikastaroak...), **lurralde federazioei** buruzko informazioa eta **dokumentuei** buruzko azken atala (COVID, irudi-eskubideen baimena...) dugu. Gehitu behar da webgunea gaztelaniaz eta euskaraz irakur daitekeela.

Azpimarratu behar da ez dugula aurkitzen kirol modalitate bakoitzerako dauden kirol instalazioei buruzko informaziorik, ez Euskadiko Selekzioei buruzko informaziorik eta ezta lehiaketan historialik ere.

Online izapideei dagokienez, oraingoz, **lizentzien** inskripzioak Excel baten bidez egiten dituzte. Excel hori lurralde federazioei bidaltzen zaie, eta haiek euskal federazioari bidaltzen diote datu guztiakin. Laster web aplikazio bat ezarriko dute, klubek, lurralde federazioek eta federazio autonomikoek partekatuko dutena. Aplikazio hori sortzeko baldintzak eta beharrak biltzen ari dira. Gauza bera gertatzen da **lehiaketetako** izen emateekin, Excel baten bidez egiten baitira.

Bestalde, federazioaren arabera, lehiaketetako **aktei** dagokienez, zirkularrak eta emaitzak digitalizatu egiten dira, webgunera igotzen dira eta e-mailez bidaltzen dira pdf formatuan.

Kirol zehapenen aurkako errekursoak eta mediku aseguruaren parteak posta elektronikoz kudeatzen dira, Word dokumentuak bidaliz.

Azkenik, federazioak ez du **zerbitzu digitalik** eskaintzen, eta ez dute kirol ekipamendua saltzeko **denda birtualik**.

2. Sare sozialak:

Hainbat sare sozial kudeatzen dituzte, guztiak webgunetik eskura daitezkeenak.





JUDO ETA DD.AA

Hasteko, Instagram kontua dute; @euskal_judo_federazioa eta Facebook kontua; Euskal Judo Federazioa, partidak eta lehiaketak daudenean maiz eguneratzen diren bi sare.

Azkenik, **Twitter** kudeatzen dute; @FVas_Judo, 2018az geroztik eguneratzen ez duten sarea. Bi sareak federazioko boluntario batek kudeatzen ditu.

3. Komunikazio estrategia:

Batez ere e-maila eta telefonoa erabiltzen dituzte federazioko komunikabide gisa. Posta elektronikoa komunikazio ofizialetarako erabiltzen da (zirkularrak, deialdiak, eskaerak, etab.), eta telefonoa, berriz, premiazko gauzetarako. Federatuen datu pertsonalen kudeaketa Excel bidez egiten da, datuak biltzeko, eta mahaigaineko aplikazio bat erabiltzen da.

4. Ekipamendu informatikoa:

Windows 10 eta office 365a dituzten ordenagailuak ditu federazioak. XP duen eramangarri bat, urtarrilean erretiratuko dena eta Windows 10a duen beste eramangarri batekin ordezkatu dena. Federazioak gailu teknologiko gehiago edukitzea ondo etorriko litzaiekeela deritzo.

5. Telelana:

Langileek ez dute telelana egiteko sistemarik ezarrita, baina batzarrak eta gainerako bilerak Zoom bidez egiten dituzte.

6. Digitalizazio estrategia:

Federazioak ez du digitalizazio estrategiarik, eta esparru honetan aurrera egiteko arazo nagusietako bat baliabide ekonomikoen falta dela azpimarratzen du. Federakuntzak egungo digitalizazio egoera 10etik 1 batekin baloratzen du.

7. Zibersegurtasun politikak:

Antibirusa, segurtasun perimetrala eta firewalla dituzte, eta lanpostuen sistema eragileak eguneratzen dituzte. Hilero segurtasun kopiak egiten dituzte eta haririk gabeko sarea babestuta dute. Azkenik, aipatu dute ez dituztela pasahitzak aldian-aldian eguneratzen, ez dutela informazioa eskuratzeko ikuskaritzarik egiten eta ez dutela jardunbide egokiei buruzko prestakuntzarik jaso. Federakuntzak ez du alderdi horien kudeaketaz arduratzen den pertsonarik.



KARATE

1. Web orrialdea:

Webgunea astero eguneratzen da, eta bulegoko administraria, presidentea eta federazioaren komunikazioa daraman pertsona arduratzen dira eguneratzeaz.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** lehen atal bat (ekitaldien egutegia, azken berriak, laguntzaileak...), **federazioaren** informazio orokorra duen beste eremu bat (hauteskundeak, zuzendaritza batzordearen aktak, lizentzien prezioak, aseguru medikoa...) eta **departamentu** izeneko hirugarren bat (araudiak, ikastaroei buruzko informazioa, eskola-kirola...) aurki ditzakegu. Horien ondoren **araudia**, **jarduerak** (egutegi eguneratuak), **diziplinak**, **gaurkotasuna**, **galeria** eta **harremanetarako** atalak daude.

Azpimarratzekoa da ez dugula informaziorik aurkitzen klub eta lurralde federazioei buruz, modalitate bakoitzeko kirol instalazioei buruz, eta ezta euskal selekzioaren inguruko informaziorik.

Online izapideei dagokienez, aipatu federazioak duela hiru urte sortu zuen plataforma propioa bat duela izapide ezberdinetarako: <https://extranet.karateeuskadi.eus/>. Plataforma horretara zuzenean sar daiteke webgunetik eta klubek, federatuek, lurralde federazioek eta euskal federazioak dute sarbidea. Klubek **lizentzien** alta eskatzen dute, lurralde federazioek lizentziak izapidetzen dituzte, eta euskal federakuntzak igortzen ditu. Gainera, lizentzien ordainketa TPV birtual baten bidez egiten da. Lehiaketetarako **izen-emateak** plataforma horretatik kudeatzen dira, baita lehiaketan **aktak** ere.

Lizentzien plataforma horrez gain, web orrian federatuentzako, klubentzako eta lurralde federazioentzako **gune pribatu** bat ere aurki dezakegu, eta bertatik lizentzia pertsonalak, txapelketak, parte hartu duten prestakuntzak... ikus daitezke.

Bestalde, **kirol zehapenen aurkako errekurtsioak** plataformatik kudeatzen dira, **mediku aseguruaren parteak** bezala. Halaber, plataforman istripu atal bat dago informazioa eskuratzeko, eta, ondoren, euskal federazioari jakinarazten zaio istripua posta elektronikoz.

Zerbitzu digitalei dagokienez, online prestakuntzak egiten dituzte, une honetan 2. maila egiten ari dira, bloke komunean dena online egiten dute eta bloke espezifikoan % 60 online egiten dute eta % 40 aurrez aurre. Mudle plataforma erabiltzen dute prestakuntzarako.

Bestalde, federazioa **denda birtual** bat diseinatzen ari da, eta hura bukatutakoan jarriko da martxan.



KARATE

2. Sare sozialak:

Hainbat sare sozial kudeatzen dituzte, guztiak webgunetik eskura daitezkeenak.

Hasteko Instagrameko kontu bat dute; @karate_euskadi eta Facebookeko kontu bat; Federación Vasca de Karate/Euskal Karate Federazioa, bi sareak astero eguneratzen dituzte maiztasun handiz. Azkenik, Twitter kudeatzen dute; @EkfFvk, 2020tik eguneratzen ez duten sarea. Komunikazio sail bat dute aipatutako sareen kudeaketaz arduratzen dena.

Bestalde, aurten zuzeneko ekitaldiak igortzen hasiko direla gaineratu dute, ziurrenik YouTube bidez egingo dute.

3. Komunikazio estrategia:

Batez ere posta elektronikoa erabiltzen dute federazioko komunikabide gisa.

Federazioak gaineratu du Eusko Jaurlaritzaren aldetik komunikazio zerbitzu bat jasotzea gustatuko litzaiokeela, hau da, federakuntzak prentsa oharrak eman eta Eusko Jaurlaritzak modu eraginkorrean zentraliza ditzan komunikabideetara iritsi ahal izateko.

Federatuen datu pertsonalak lehen aipatutako plataformaren bidez kudeatzen dituzte.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak 8 ordenagailu eramangarri eta mahaiko ordenagailu bat ditu egoitza nagusian. Denak eguneratuta daude eta ez dute uste gehiago behar dituztenik

5. Telelana:

Langileek ez dute telelana egiteko sistemarik, baina Drive Box erabiltzen dute dena hodeian edukitzeko. Batzarrei dagokienez, aurrez aurre eta modu telematikoan egiten dituzte Zoom erabiliz.



KARATE

6. Digitalizazio estrategia:

Federazioa informatikariekin plan bat diseinatzeko hasi da, eta jadanik digitalizazioan pausoren bat ematen hasi dira. Orain stock kontrolarekin eta online dendarekin ari dira, eta txapelketen kudeaketari dagokienez ere aldaketaren bat edo beste egiteko asmoa dute.

Federazioak egungo digitalizazio egoera 10etik 7 batekin baloratzen du.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politikei dagokienez, esan dezakegu Pandarekin antibirus- eta firewall-lizentziak dituztela, pasahitzak urtero eguneratzen dituztela, informatikako gai guztia eramaten dien enpresak informazioa eskuratzeko auditoria egiten diela, egunero segurtasun kopiak egiten dituztela, ez dutela jardunbide egokiei buruzko prestakuntzarik izan (presidentek bakarrik), lanpostuen sistema eragileak eguneratzen dituztela eta haririk gabeko sareak babesten dituztelapasahitz baten bidez.





Helbidea:
Ctra. Basurto-Kastresana, 70-2º Módulo 14
48002 Bilbo
Korreo:
info@deporteadaptadoeuskadi.org
Telefonoa:
94 473 02 44

<https://www.deporteadaptadoeuskadi.org/>

KIROL EGOKITUA

1. Web orrialdea:

Web orrialdea berria da, urtebete darama martxan eta kirol teknikaria litzateke partiden emaitzak eta albisteak eguneratzeaz arduratzen dena, eta federazioko idazkaria, berriz, webguneko dokumentuak eguneratzeaz arduratzen da. Lehiaketak daudenean web orria eguneratzen dute eta denboraldia hasten denean (irailean) web orriko dokumentu guztiak eguneratzen dituzte.

Webguneko menuari dagokionez, **federazioari** buruzko informazioa duen lehen atal bat bereizi dezakegu, bertan, kirol modalitateak, zuzendaritza batzordea, lizentzia motak... aurki ditzakegu. Bigarren atalak **klubei** buruzko informazioa azaltzen digu eta hirugarrenak **lehiaketetako** informazio eguneratua. Azken atalak **dokumentuak** (estatutuak, mediku aseguruaren parteak, Europako osasun-txartela), **estekak** (lurralde federazioen informazioa, estatu federazioen informazioa, babesleak), **gaurkotasuna** eta **kontaktua** dira. Webgunea euskaraz eta gaztelaniaz jar daiteke.

Nabarmentzekoa da ez dugula informaziorik aurkitu kirol modalitaterako dauden kirol instalazioei buruz.

Online izapideei dagokienez, aipatu **lizentziak** Kirol Lizentziak izeneko atalaren bidez kudeatzen direla. Klub edo lurralde federazio bakoitza atal horretan sartzen da erabiltzaile eta pasahitz batekin. Kirol-klubek beren datuak eskura ditzakete, dokumentazioa eransten dute, eta datu guztiak izapidetu ondoren, email bidez jakinarazten diote dagokien lurralde federazioari izapidetu nahi dituzten lizentziak. Lurralde federazioek dokumentazio guztia behar bezala erregistratuta dagoela berrikusi, eta haiek jakinarazten diote Euskal Federakuntzari lizentzia emititu dezan. Federakuntza aplikazioan sartu eta lizentzia emititzen du. Hauen ordainketa egiteko, faktura bat bidaltzen dute hiru hilean behin eta ordainketa banku transferentzia bidez egiten da.

Online izapideekin jarraitzeko, nabarmendu dute orain arteko **lehiaketetako izen emateak** korreo elektronikoz izapidetzen direla; dena den, urtea amaitu baino lehen sistema berri bat ezarri nahi dute. Kirol Lizentziak atalaren ondoan, taldeek lehiaketetan automatikoki izena eman ahal izateko atal bat gehitu nahi dute, lizentzien atalean bezala. Halaber, atal berri horretan bertan partiden deialdiak eta akta digitalizatuak sartu nahi dituztela gehitzen dute.

Mediku aseguruaren parteei eta kirol zehapenei dagokienez, dena posta elektronikoz kudeatzen direla esan dezakegu.





Helbidea:
Ctra. Basurto-Kastresana, 70-2º Módulo 14
48002 Bilbo
Korreoa:
info@deporteadaptadoeuskadi.org
Telefonoa:
94 473 02 44

<https://www.deporteadaptadoeuskadi.org/>

KIROL EGOKITUA

Zerbitzu digitalei dagokienez, aipatu ez dutela **denda birtualik**, ez dutela online sarrerarik saltzen eta ezta prestakuntza birtualik eskaintzen.

2. Sare sozialak:

Hainbat sare sozial kudeatzen dituzte, eta horiek guztiak webgunetik eskura daitezke. Lehenik eta behin, adierazi Instagram kudeatzen dutela; @fvda_keef, eguneratze etengabeekin mantentzen den sare soziala. Facebookeko kontu bat ere badute; @FederacionVascaDeporteAdaptado eta Twitterreko beste bat; @Fvda_Keef bi kontu, Instagram bezala maiz eguneratzen direnak. Horiek guztiak kirol teknikariak kudeatzen ditu, aktibo mantentzeaz eta partidaren emaitzak momentuan igotzeaz arduratzen da. Aipatzekoa da ez dituztela partidak zuzenean ematen eta oraingoz ez dute planteatu gai hori

3. Komunikazio estrategia:

Federazioekiko komunikazioak posta elektronikoz, telefonoz eta WhatsApp bidez egiten dira, nahiz eta azken hori saihesten saiatzen diren. Federatuen datu pertsonalak aipatutako lizentziak aplikazioaren bidez kudeatzen dira, behin aplikazioan daudenean datuak inprimatu eta karpeta batean fisikoki artxibatzen dira.

4. Ekipamendu informatikoa:

Klubak mahairako bi ordenagailu, bi ordenagailu eramangarri eta tablet bat ditu. Oro har, gailu guztiak eguneratuta daude bulegoko ordenagailu eramangarri bat izan ezik

5. Telelana:

Federatuetako langileek etxetik telelana egin dezakete VPN sistemaren bidez, bulegoko ordenagailuetara konektatzeko. Bilerak, batzarrak eta zuzendaritza batzordeak Zoom bidez egin dituzte pandemia garaian, oraindik ere asko erabiltzen dute sistema hori, baina berriz ere aurrez aurre egin dituzte, bide hori nahiago dutelako.





Helbidea:
Ctra. Basurto-Kastresana, 70-2º Módulo 14
48002 Bilbo
Korreoa:
info@deporteadaptadoeuskadi.org
Telefonoa:
94 473 02 44

<https://www.deporteadaptadoeuskadi.org/>

KIROL EGOKITUA

6. Digitalizazio estrategia:

Federazioak ez du digitalizazio estrategiarik, baina lehiaketetako inskripzioen atal berria bezalako alderdiak planteatu dituzte, edota, hurrengo urterako lizentzien atala eguneratu nahi dutela aipatu dute.

Federazioak bere egungo egoera digitala 8 batekin baloratu du, eta baliabide ekonomiko eta prestakuntza faltaren ideia azpimarratu ditu arazo nagusi bezala.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasunaz ari garela, antibirusak eta segurtasun perimetrala dute, firewall-ak, pasahitzak aldi berean behin eguneratzen dituzte baita lanpostuen sistema eragileak. Era berean, informazioa eskuratzeko auditoriak egiten dituzte, segurtasun kopiak ere maiz burutzen dituzte disko gogorretan eta hodeian. Datuen babesari buruzko prestakuntzak egin dituzte, eta hari gabeko sareen babesa dute. Informatika enpresa bat dute zibersegurtasun politiken kudeaketa horietaz guztietaz arduratzen dena.





www.mahaitenis.com

Helbidea:
Edificio CPT-Avda.de los Chopos, s/n
48991 Getxo
Korreoa:
tenisdemesa@euskalkirola.eus
Telefonoa:
94 623 26 89

MAHAI-TENIS

1. Web orrialdea:

Euskal Mahai-Tenis Federazioarekin komunikatzea ezinezkoa izan dela kontuan hartuta, ez dakigu webgunea zenbatean behin eguneratzen den edo nork kudeatzen duen.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** atal bat dago (egungo albisteekin), bigarren bat **federazioarena** (lurreko-federazioak, estatutuak, hauteskundeak...) eta hirugarren bat hiru probintzietako **klubei** buruzko informazioa azaltzen duena. Ondoren, **lehiaketen** atala (rankingak, selekzioak, nazioko eta eskualdeko txapelketak...), **aisialdiarena** eta **formakuntza** (ikastaro ezberdinak) izeneko atalak daude. Azkenik, **komunikazio** atal bat dago (albistek, zirkularrak eta estekak) eta **arbitroak** izeneko beste bat. Euskarara itzultzeko aukera dago.

Azpimarratzekoa da ez dagoela informaziorik modalitateko kirol instalazioei buruz.

Online izapideei dagokienez, web orrialdean bertan txapelketetan online izena emateko atal bat dutela ikusi dezakegu, erabiltzaile eta pasahitz baten bidez sar daitekeena. Horrez gain, webgunean Moodlerekin ikastaroak telematikoki egiten dituztela ikusi dezakegu. Bestalde, ez dakigu federazioak denda birtualik, eremu pribaturik edo aplikaziorik duen.

2. Sare sozialak:

Webgunetik ezin da sartu kudeatzen duten sare sozial bakarrera:

Facebook; @euskalmahaitenisfederazioa, eta eguneratuta mantentzen dute lehiaketei buruzko albisteekin edo informazioarekin.

Federazioarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izan denez, ez daukagu beste informaziorik hurrengo atalak bete ahal izateko.



www.emf.eus

Helbidea:
Pza. Amadeo García Salazar, 2-2
01007 Gasteiz
Korreo:
gasteiz-emf@emf-fvm.com
Telefonoa:
945 12 43 35

MENDIA

1. Web orrialdea:

Mendiko Euskal Federazioarekin komunikatzea ezinezkoa izan dela kontuan hartuta, ez dakigu webgunea zenbatean behin eguneratzen den edo nork kudeatzen duen.

Webguneko menuari dagokionez, lehenengo atala **Federazioari** buruzkoa da (antolaketa, lurralde-federazioak, klubak, estatutuak, araudiak...) eta bigarrena **diziplina** desberdinei buruzkoa (alpinismoa, mendiko lasterketak, ibilaldi nordikoa, mendiko eskia...). Jarraian, **lizentziak** izapidetzeari buruzko atal bat aurkitzen da, eta horren ondoren, **mendeurrenei** buruzko informazioa duen atal bat. Bestalde, **ingurumenaren** eta **segurbideren** atalak aurkitzen dira (programa berezi bat, mugikorrerako aplikazio bat azaltzen du). Azkenik, azpimarratu behar da **kontaktuaren** atala adagoela. Orrialdea euskaraz zein gaztelaniaz jarri daiteke.

Nabarmentzekoa da ez dagoela informaziorik lehiaketei edo lehiakideen rankingari buruz, modalitateko kirol instalazioei buruz edo lehiaketei buruzko informazioari buruz.

Online izapideei dagokienez, **lizentzia** eskatzeko Word dokumentu bat bete behar da, beraz, ez dugu izapide telematiko bezala kontsideratzen. Bestalde, webgunean ez dugu **zerbitzu digitalik** aurkitzen, hala nola denda birtuala, kirolarientzako eremu pribatua edo federazioak barne gestioetarako erabiltzen duen aplikaziorik.

2. Sare sozialak:

Web orritik zuzenean sar daiteke kudeatzen dituzten sare sozialetara.

Alde batetik, **Instagram** erabiltzen dute; @emf_fvm dutela, eguneratuta duten sare soziala. **Facebook** kontua ere badute; @EuskalMendizaleFederazioa eta **Twitter**; @Emffvm, Instagram bezala, etengabe eguneratzen diren sareak dira. Aipatu **YouTubeko** kanala daukatela; Euskal Mendizale Federazioa, aurrekoak ez bezala, ia ez du edukirik igotzen. Azkenik, **Flickr** erabiltzen dute; Euskal Mendizale, baina ez dute eguneratuta mantentzen.

Federazioarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izan denez, ez daukagu beste informaziorik hurrengo atalak bete ahal izateko.

MOTOZIKLISMO

1. Web orrialdea:

Webgunea astero eguneratzen da eta Campus enpresak kudeatzen du.

Webguneko menuari dagokionez, lau atal nagusi baino ez dituela ikusi dezakegu. Lehenengoa **egutegia** da, eta atal horretan kirol honi dagozkion lehiaketen datak argitaratzen dira. Ondoren, **Entrenamenduen Alta** atala dago, kirolariak NANarekin sartzan diren eremu pribatu baten antzekoa da. Hirugarren atala **entrenamendu aseguruari** buruzkoa da (informazioa eta formularioak). Azkenik, **lizentziei** buruzko informazioa aurkituko dugu.

Nabarmendu behar da ez dugula informaziorik aurkitzen modalitate bakoitzeko kirol instalazioei buruz, ezta euskal selekzioei buruz ere.

Online izapideei dagokienez, **lizentziak** izapidetzeko plataforma bat dute, Kirol Lizentziak izenekoak. Kirolariak datu batzuk betetzen dituzte eta, ondoren, ordainketa pasarela baten bidez lizentzia ordaintzen dute. Era berean, lehiaketetarako **izen-emateak** ere bertan egiten dira formulario baten bidez (datuak betetzeko) eta, ondoren, ordainketa pasabide baten bidez.

Bestalde, lehiaketen **aktak**, **mediku aseguruaren parteak** eta **kirol zehapenak aurkako errekurtsuak** posta elektronikoz kudeatzen dira.

Arestian aipatutakoaz gain, web orri berean federatuentzako, klubentzako eta federazioentzako **gune pribatu** bat aurki dezakegu, bertan izena eman lizentziak eskatu, entrenamenduetan alta eman, dokumentuak ikusi eta lizentzien prezioak ikusi daitezke.

Zerbitzu digitalei dagokienez, webgunearen bidez lasterketetarako sarreraren salmenta egiten dute, eta formularioan aipatu ez diren entrenamendu programari eta beste zerbitzu digital batzuei buruzko informazioa islatzen da.



MOTOZIKLISMO

2. Sare sozialak:

Hainbat sare sozial kudeatzen dituzte, guztiak webgunetik eskura daitezkeenak.

Hasteko Facebook kontu bat dute; Euskadiko Motoziklismo Federazioa, etengabe eguneratzen ez dena. Twitterreko kontua dute; @DeMotociclismo, Facebookaren antzera eguneratuta ez dagoena. Azkenik, YouTubeko kontu bat kudeatzen dute; EMF-FVM Motoziklismoko Euskal Federazioa, aurrekoak ez bezala maiztasun handiagoz eguneratzen dena.

Zuzendaritza batzordeko kide bat aipatutako sareen kudeaketaz arduratzen da.

Azkenik, lehiaketak zuzenean igortzen dituztela gaineratu dute Speedhive izeneko app baten bidez.

3. Komunikazio estrategia:

Kirolariekin zein beste federazio batzuekin komunikatzeko korreo elektronikoa, WhatsAppa eta telefono deia erabiltzen dituzte. Federatuen datu pertsonalak Kirol lizentziak bidez kudeatzen dira.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak mahaiko 2 ordenagailu eta ordenagailu eramangarri bat ditu. Denak eguneratuta daude eta ez dute uste gehiago behar dituztenik

5. Telelana:

Anydesk izeneko plataforma baten bidez telelana egiteko sistema bat dute. Baliabide telematikoen bidez antolatzeke gai izan dira. Batzarrei dagokienez, aurrez aurre eta modu telematikoa egiten dituzte Zoom erabiliz.

6. Digitalizazio estrategia:

Federazioak ez du digitalizazio estrategiarik esparru honetan aurrera egiteko. Espainiako federazioaren webgunearen, Eusko Jaurlaritzaren webgunearen edo Kirol Lizentziak plataformaren bitartez kudeatzen dute dena, eta beraz, ez dute ikusten neurri berriak ezartzeko beharrik, daudenak egokiak direla irizten baitute.

Federakuntzaren digitalizazio egoera 10etik 8 batekin baloratzen dute.



MOTOZIKLISMO

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politikari dagokienez, esan dezakegu antibirusen lizentziak dituztela, pasahitzak hileroko eguneratzen dituztela, lanpostuen sistema eragileak eguneratzen direla eta haririk gabeko sareak pasahitz baten bidez babesten direla. Duten segurtasun lizentzia Microsoftena da. Segurtasun kopien kasuan, aipatu hileroko egiten direla, pasahitzen eguneraketan antzera.

Zibersegurtasunarekin zerikusia duen guztia Segurdsades izeneko enpresa batek kudeatzen die.





www.nkef.eus

Helbidea:
Julian Gaiarre, 50 - bajo
48004 Bilbao
Korreoa:
info@fvdi-nkef.eus
Telefonoa:
94 459 82 04

NEGUKO KIROLAK

1. Web orrialdea:

Web orria lehiaketen eta berrien arabera eguneratu ohi da, urteko daten arabera. Hala ere, orokorrean astean behin eguneratzen da. ADW izeneko enpresa batekin lan egiten dute, eta enpresa hori eta federazioko langile batzuk arduratzen dira honen eguneraketaz.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** atal bat, eguneratutako **albisteen** bigarren bat, **federazioaren** informazioa duen hirugarren bat (lurrealde federazioak, zuzendaritza batzordea, araudia...) eta **federatuen** laugarren bat (lizentziak, egutegiak, aseguru medikoaren poliza...) bereizten ditugu. Hurrengo atalak **estazioak** (neguko kirolak praktikatzeko estazio ezberdinen inguruko informazioa), **klubak** (neguko kirol klubaren informazioa) eta **harremanetarako** azken atal bat dira. Webgunea euskaraz eta gaztelaniaz jar daiteke.

Nabarmenezkoa da ez dugula euskal selekzioaren inguruko informaziorik aurkitzen, ezta lehiaketen historialik ere.

Online izapideei dagokienez, aipatzekoa da **lizentziak** ez dituztela web orriaren bidez kudeatzen.

Lurrealde federazioek korreo elektronikoz bidaltzen dituzte federatuen datuak (federatu zenbakia, datu pertsonalak), eta euskal federazioak bere datu basean ((Access moduko batean) erregistratzen eta izapidetzen ditu lizentziak plantilla batzuk betez. Erregistro hori egin ondoren, azken urratsa dagokion Espainiako elur edo izotz federazioan izapidetzen da Espainiako federakuntzaren intranet baten bidez.

Lehiaketetako inskripzioak ere berdin kudeatzen dira, behin lurrealde federazioek datuak korreo elektronikoz bidaltzen dituztenean, euskal federazioak aurrez aipatutako Espainiako intranetetik izapidetzen ditu.

Bestalde, lehiaketen **aktak** pdf artxiboetan dituzte, posta elektronikoz bidaltzen dira Espainiako federaziora eta emaitza, sailkapenen zatia webgunean argitaratzen du euskal federakuntzak. Halaber, webgunearen barruan "Live timing" izeneko plataforma bat dute, edonork lehiaketen emaitzak eta denborak zuzenean jarraitu ahal izateko.

Kirol zehapenen aurkako errekurtsoei dagokienez, oraindik kasurik izan ez duten arren halakorik gertatuz gero. Espainiako federakuntzak euskal federakuntzari korreoz jakinaraziko lioke.





www.nkef.eus

Helbidea:
Julian Gaiarre, 50 - bajo
48004 Bilbao
Korreoa:
info@fvdi-nkef.eus
Telefonoa:
94 459 82 04

NEGUKO KIROLAK

Aseguru medikuetara igaroz, alde batetik web orrian eskuragarri dago poliza, federatuek informazio guztia izan dezaten. Istripuren bat izanez gero, dagokion lurralde federazioak euskal federazioa bidaliko du edo beraiek izapidetuko dute, eta euskal federazioa harremanetan jarriko da aseguruarekin. Asegurura deitzen den unean, zentro mediku batera bidaltzen da federatua, zentroak aseguratuaren datuak eskatzen ditu telefonoz, eta federazioak postaz bidaltzen ditu datuak parte batean.

Ez dute **zerbitzu digitalik** eskaintzen eta ez dute **denda birtualik**.

2. Sare sozialak:

Hainbat sare sozial kudeatzen dituzte, baina ezin dira guztiak webgunetik eskuratu.

Instagram kontu bat dute; @nkef_fvdi, Facebook; @fvdinkef eta Twitter kontu bat; @NKEF_FVDI.

Guztiak egunero edo bi egunetik behin eguneratzen dira, eta, beraz, oso aktibo mantentzen dituzte.

Izendatutako sare sozial guztiak federazioko langileek kudeatzen dituzte. Bestalde, nabarmendu ez dutela zuzeneko emankizunik egiten.

3. Komunikazio estrategia:

Klubekiko eta federazioekiko komunikazio guztia korreo elektronikoz egiten da, eta duela gutxi telegrama erabiltzen hasi ziren federatuei proben, ordutegien eta emaitzen berri jakinarazi ahal izateko.

Federatuen datu pertsonalak aipatutako lizentzien datu basearen bidez kudeatzen dira, Access moduko baten bidez.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak mahaiko 2 ordenagailu ditu berezko gailu bezala. Horrez gain, ordenagailu eramangarriak izatea ondo legokeela deritzote, langileek beraien ordenagailu eramangarriak erabiltzen baitituzte federakuntzan lan egiteko.





www.nkef.eus

Dirección:
Julian Gaiarre, 50 - bajo
48004 Bilbao
Correo:
info@fvdi-nkef.eus
Teléfono:
94 459 82 04

NEGUKO KIROLAK

5. Telelana:

Pandemia garaian telelana gauzatzeko eta etxetik konektatu ahal izateko AnyDesk sistema erabiltzen hasi ziren, orain, aurrez aurreko sistemara itzuli dira. Era berean, zuzendaritza batzordeak eta gainerako bilerak aurrez aurre egiten dituzte, nahiz eta Zoom bidez hainbat bilera telematikoki egin dituzten.

6. Digitalizazio estrategia:

Federazioak ez du digitalizazio estrategiarik, ADW enpresak digitalizazioaren inguruko alderdiak eramaten dizkiela aipatu dute, eta, beraz, esparru horretan estrategia bat diseinatu beharko balute, enpresa horrek egingo zuela adierazi du. Gainera, denboraldi hasieran daudela kontuan hartuta lan handia dutela diote eta, hortaz, digitalizazio estrategia bat diseinatzea pentsatuko balute epe luzera izango litzatekeela nabarmentzen dute. Hala ere, duela hiru urtetik hona zenbait alderdi hobetu direla irizten dute, hala nola sare sozialak eta web orrialdea.

Federazioak bere egungo digitalizazio egoera 10etik 8 batekin baloratzen du. Baliabide ekonomiko gehiago izango balituzte digitalizazioaren alderdi batzuk hobetzeko aukera izango lukete eta gai honetan gehiago sakonduko lukete.

7. Zibersegurtasun politikak:

Webgunea eramaten dien enpresa zibersegurtasun politiken alderdiez ere arduratzen da. Antibirusak, segurtasun perimetrala eta firewall-a dituzte. Pasahitzak urtero eguneratzen dituzte, eta datuen kudeaketa eta babesa zuzena dela bermatzeko urtero auditoria bat egiten dute. Aipatutako enpresaren bidez prestakuntza jaso dute jardunbide egokien neurriei buruz. Halaber, sistemak eguneratzen dituzte eta egunero segurtasun kopiak egiten dituzte. Azkenik, haririk gabeko sisteman pasahitz bat dute haren babesa ziurtatzeko.



PADEL

1. Web orrialdea:

Kontuan hartuta ezinezkoa izan dela Euskadiko Padel Federazioarekin komunikatzea, ez dakigu zein maiztasunekin eguneratzen den webgunea edo nork kudeatzen duen.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** lehen atal bat bereiziko dugu, eta bertan azken albistek aurkituko ditugu. Bigarrenak **federazioari** buruzko informazioa ematen du (estatutuak, organigrama, lurralde-federazioak...). Ondoren, **lehiaketa** atal bat aurkitzen dugu, liga, ranking eta abarrekin. Atal hauek daude ondoren: **adingabeak** (txapelketak eta lehiaketak), **prestakuntza**, **klubak**, **lizentziak** eta **dokumentuak**. Azkenik, **harremanetarako** atala dago. Gehitu euskarara itzultzeko aukera dagoela.

Azpimarratu behar da ez dagoela kirol modalitaterako dauden kirol instalazioei buruzko informaziorik.

Online izapideei dagokienez, **lizentziak** web orritik izapidetu daitezke, baita lehiaketetako inskripzioak ere. Era berean, ikastaroak telematikoki ematen dituztela ikus dezakegu eta extranet bat dutela. Bestalde, webgunean ez dago beste **zerbitzu digitalik**, hala nola denda birtuala edo federazioak barne gestioetarako erabiltzen duen aplikaziorik.

2. Sare sozialak:

Alde batetik, **Instagram** kudeatzen dute; @fvpadel sare eguneratua. Era berean, **Facebook**; @fvpadel eta **Twitter** kudeatzen dituzte; @fvpadel, Instagram bezala etengabe eguneratzen direnak. Azkenik, **YouTubeko** kanal bat dute; fvpadel, gainerako sareen antzera, eguneratuta mantentzen dena.

Federazioarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izan denez, ez daukagu beste informaziorik hurrengo atalak bete ahal izateko.



Helbidea:
Apartado de correos, 10.079
20302 Irun
Korreo:
josealbertobalbas@gmail.com
Telefonoa:
669 408 733

PETANKA

1. Web orria:

Euskadiko Petanka Federazioak ez du web orririk, beraz, ez du inork eguneratzen edo kudeatzen. Era berean, ez du **online izapiderik** lizentziak burutzeko, ezta **eremu pribaturik**, **denda birtualik** edo bestelako **zerbitzu digitalik** eskaintzen.

2. Sare sozialak:

Web orriaren antzera ez dute sare sozialik kudeatzen, eta, beraz, ezin dute lehiaketan, emaitzen eta bestelako berrien inguruko informaziorik zabaldu.

Federazioarekin harremanetan jartzea ezinezkoa denez, ezin ditugu osatu komunikazioari, ekipamendu informatikoari, digitalizazioari, telelanari eta zibersegurtasunari buruzko ondorengo atalak.

PIRAGUISMO

1. Web orrialdea:

Webgunea maiz eguneratzen da, astelehenero eguneraketak egiten saiatzen dira asteburuko partiden emaitzak igoz, eta idazkari teknikoak kudeatzen du orrialdea bera.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** aurkezpen atal bat aurkitu dezakegu azken albisteekin, bigarren bat **federazioari** buruzko informazioarekin (klub federatuei buruzko informazioa, lurralde federazioei buruzko informazioa, araudiak, lehiaketen emaitzak, modalitatei buruzko informazioa...) eta hirugarren bat **albisteekin**. Hurrengo atala lehiaketen **egutegia** da, eta horren ondoren, arbitroen eta teknikarien **formakuntza** ikastaroei buruzko informazioa duen atal bat ikus dezakegu, **lizentzien** beste bat (nola izapidetu, aseguruak, ziurtagiriak, tarifak...), **Emakumea eta piragua** izeneko gune bat (prebentzio protokoloa) eta **iradokizunen** azken eremu bat. Web orrialdeak euskaraz jartzeko aukera ematen du.

Azpimarratzekoa litzateke ezin dela kirol modalitaterako dauden kirol instalazioei buruzko informaziorik aurkitu, ez baitute entrenamenduetarako lokalik, ezta selekzio autonomikoei buruzko informaziorik ere.

Online izapideei dagokienez, une honetan kirolari eta klubentzako den eremu pribatu batetik tramitatu daitezke lizentziak. Webgunea Aterpe izeneko aplikazio bati lotuta dago, eta aplikazio horrek lizentziak izapidetzeko eta kudeatzeko balio du. Hala ere, datorren denboraldirako programa berri bat lantzen ari dira, emaitzen programarekin lotuta egongo dena eta lehiaketen emaitzak zuzenean ikusteko aukera emango duena. Bestalde, ezin da lehiaketetan telematikoki izena eman.

Lesioen kudeaketetara igaroz, ezin da webgunetik zuzenean izapidetu, kirolariek istripuen partea bete behar dute eta federazioara bidali korreoe elektronikoz.

Zerbitzu digitalei dagokienez, batetik, aipatu behar da federazioak online prestakuntza ematen duela bideokonferentzia bidez, ordutegi batekin eta irakasle batekin. Bestalde, orain, Federazioen Batasunak kudeatutako hezkuntza sistemaren barruko prestakuntza arautuarekin hasiko dira, eta hor plataforma bat izango dute, ikasleek nahi dutenean eduki hori eskuratzeko aukera izan dezaten.

Bestalde, ez dute denda birtualik, ez dago federazioaren ekipazioa saltzen duen dendarik.





PIRAGUISMO

2. Sare sozialak:

Ez dute sare sozialik kudeatzen pertsonal falta dela eta, izan ere, federazioak langile bakarra du. Lehiaketen zuzeneko emankizunik ere ez dute egiten.

3. Komunikazio estrategia:

Kirolariekin posta elektronikoko eta WhatsApparen bidez egiten dira komunikazio guztiak, eta ez dute newsletterrik bidaltzen. Kirolarien datuak lizentzien aplikazioaren bidez kudeatzen dira, eta aplikazio horrek Access baten antza duela aipatzen dute.

4. Ekipamendu informatikoa:

Mahaiko ordenagailu bat eta ordenagailu eramangarri bat dute bulegoan lan egiteko eta arbitroek beren ordenagailu eramangarriak dituzte, guztiak eguneratuta.

5. Telelana:

6. Digitalizazio estrategia:

Oraingoz, ezarri nahi duten digitalizazio alderdi bakarra lizentzien programa berria da, federazioari arazo gehien sortzen dizkion izapidea baita. Era berean, haien egoera digitala 6 batekin baloratzen dute, eta digitalizazioan aurrera egiteko arazo nagusia baliabide ekonomikorik ez izatea dela diote. Halaber, digitalizazio metodo berriak ezagutzeko prestakuntza jasotzea gustatuko litzaiekeela ere azpimarratzen dute.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politiketara igaroz honako hau esan dezakegu: ez dute ez birusen aurkako lizentziarik, ez firewallik, ez dituzte pasahitzak eguneratzen, ez dute inolako segurtasun neurririk ezarrita informazioa eskuratzeko, ezta prestakuntzarik egin jardunbide egokiei buruz, ez babesik haririk gabeko sareetan, eta ez dituzte backupak egiten ere.





Helbidea:
Plaza Federico Moyúa. 6-1º izda.
48009 Bilbo
Korreoa:
fvb@basketbasko.com
Telefona:
94 473 51 98

<https://basketbasko.com>

SASKIBALOA

1. Web orrialdea:

Web orria egunero edo bi egunetik behin eguneratzen da, eta prentsa arduradunak eguneratzen ditu albisteak orrialdean.

Webguneko menuari dagokionez, **gaurkotasunari** buruzko lehen atal bat bereizi dezakegu eguneratutako azken berriekin, bigarren bat **federazioaren** informazio orokorrarekin (historia, hauteskundeak, organigrama) eta hirugarren bat **lurralde federazio** bakoitzeko ligen emaitzekin. Hurrengo atalak honako hauek dira: **euskal liga** (maila bakoitzeko partiden informazioa), **liga nazionala** (maila bakoitzeko partiden informazioa), **selekzioak** (Euskadiko selekzioen informazioa) eta **arbitroen** azken bat (eremu pribatua, arbitroaren kluba). Orrialdea euskaraz nahiz gaztelaniaz jarri daiteke.

Nabarmentzekoa da ez dugula informaziorik aurkitu kirol modalitate bakoitzerako dauden kirol-instalazioei buruz, ezta saskibaloiko klubei eta lurralde federazioei buruzko informaziorik ere.

Online izapideei dagokienez, federazioak Optimal Way izeneko enpresa baten programa bat erabiltzen duela dio **lizentzien** izapidetza kudeatzeko. Ezin da lizentzien aplikaziora sartu web orriaren bidez, beste esteka baten bidez sartzen da. Lurralde federazioak lurralde txapelketetako lizentziez arduratzen dira, eta Saskibaloiko Euskal Federakuntza, berriz, Euskadiko lehiaketek; lurralde federazioek dokumentazio guztia igotzen dute aplikaziora, eta euskal federazioak emititzen du lizentzia azken pauso bezala. Halaber, aplikazio bera erabiltzen dute **lehiaketetan izena emateko**, eta bertan atal ezberdinak topa daitezke klub eta federazioentzat. Bertan federazioek kirol klubentzako datu guztiak eskuratzen dituzte, eta klubek, berriz, lizentziak, taldeek parte hartzen duten lehiaketei buruzko informazioa (partiden aldaketak ere kudeatzen dituzte) eta jokatzeko duten kategorietako emaitzak.

Webgunek **eremu pribatu** bat du arbitroentzat, eta bertan sartzen dira alta emateko nahiz beraien erabilgarritasuna aldatzeko. Horrez gain, kirol klubak gune pribatu batera sar daitezke clubes.basketbasko.com helbidetik erabiltzaile eta pasahitz batekin.

Bestalde, lehiaketen **aktei** dagokienez guztiak digitalizatuta daudela adierazi dute. Partidua amaitu ondoren akta webgunera igotzen da sailkapenen atalera, eta, hori ez ezik, taldeak bere akta eskuratu dezake arestian aipatutako aplikazioaren bidez.





Helbidea:
Plaza Federico Moyúa, 6-1º izda.
48009 Bilbo
Korreoa:
fvb@basketbasko.com
Telefonoa:
94 473 51 98

<https://basketbasko.com>

SASKIBALOIA

Webgunean aktaren aurrealdea baino ez da argitaratzen, eta aplikazioan aurrealdea eta atzealdea (informeak, zehapenak, partiduen atzerapenak...). Federazioak informea duen akta bat jasotzen duenean akta hori berrikusten du, informe hori lehiaketa batzordeari bidaltzen dio, eta batzordeak zehapena posta elektronikoko bidez jakinarazten die inplikaturako taldeei.

Aseguru medikoen parteei dagokienez, federatua lizentzia federatuarekin joaten da itunpeko zentroetara, eta han bertan irekitzen dietela parte aipatu dezakegu.

Zerbitzu digitala igaroz, federazioak Optimal wayren webguneari lotutako aplikazio mugikor bat du, ESF izenekoa. App-tik jokalariek eta entrenatzaileek bere lizentzia digitalak eskura ditzakete eta lehiaketan inguruko informazioa ikusi. Era berean, entrenatzaileek talde eta kategoria guztietako partidetak deialdiak egin ditzakete.

Beste zerbitzu digital batzuekin jarraitzeko, entrenatzaileen online ikastaroak egin dituztela adierazi dute eta, horretarako, federazioek erabiltzen duten plataforma propioa erabiltzen dutela. Azkenik, denda birtualik ez dutela aipatzekoa litzateke.

2. Sare sozialak:

Hainbat sare sozial kudeatzen dituzte, guztiak webgunetik eskura daitezkeenak.

Alde batetik, adierazi Instagram kudeatzen dutela; @basketbasko, eguneratuta mantentzen duten sare soziala. Facebookeko kontu bat ere badute; @Basketbasko, ekainaz geroztik argitarapenik ez du, eta Twitter; @Basketbasko, partiden eta emaitzen eguneratze etengabeekin. Horiek guztiak Federazioko prentsa arduradunak kudeatzen ditu. Lehiaketetako streamingei dagokienez, aipatu behar da partidak sare sozialetatik emititzen zituztela, batez ere Euskal Kopako partidak zituztenean.

3. Komunikazio estrategia:

Lurralde federazioekiko eta kirol klubekiko komunikazioak korreo elektronikoz edo telefono bidez egiten dira, baina ez dute buletin elektronikorik bidaltzen. Horrez gain, federatuen datu pertsonalak aipaturako lizentzien aplikazioaren bidez kudeatzen dira.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak mahaiko hiru ordenagailu eta hiru ordenagailu eramangarri ditu, guztiak eguneratuta.





Helbidea:
Plaza Federico Moyúa. 6-1º izda.
48009 Bilbo
Korreoa:
fvb@basketbasko.com
Telefonoa:
94 473 51 98

<https://basketbasko.com>

SASKIBALOA

5. Telelana

Pandemia zela eta Microsoft Teams eta OneDrive erabiltzen hasi ziren telelanerako. Batzarrei dagokienez, orain aurrez aurre egiten dituztela aipatu dute, nahiz eta zenbait batzar telematikoko egin dituzten, eta gauza bera Zuzendaritza Batzordeekin, modu telematikokoan eta aurrez aurre egiten jarraitzen baitute.

6. Digitalizazio estrategia:

Digitalizazioari dagokionez, ez dute estrategiarik planteatu, izan ere, digitalizatuta daudela diote, izapide guztiak telematikoki egiten dituztela eta gai honetan nahiko aurreratuta daudela esaten dute. Pandemiari esker, gailuak eta sistemak eguneratu zituzten eta alderdi digital gehiago ezarri izan zituzten. Federazioak gaur egungo bere egoera digitala 8 batekin baloratzen du, eta ez du digitalizazioan aurrera egitea eragozten dion arazorik aipatzen.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasunaz ari garela, antibirusak eta segurtasun perimetrala dute (Panda dute), firewalla, pasahitzak aldi berean behin eguneratzen dituzte eta lanpostuen sistemen eguneratzen dituzte (pandemia garaian sistema guztiak eguneratu zituzten). Era berean, ez dute informazioa eskuratzeko ikuskaritzarik egiten, baina Federazioen Batasunaren bidez jardunbide egokiei buruzko prestakuntza jaso dute. Horrez gain, segurtasun kopiak egiteko zerbitzari bat dute programatuta, eta kanpoko disko gogor bat dute. Azkenik, aipatu dute haririk gabeko sarean babesa dutela pasahitz baten bitartez.





SQUASH

1. Web orrialdea:

Webgunea txapelketa bakoitzarekin eguneratzen da, baita helarazteko dokumentu garrantzitsuren bat dagoenean ere. Gainera, tweetak automatikoki argitaratzen dira webgunean. Oma 3 izeneko enpresak kudeatzen du orrialdea.

Webguneko menuari dagokionez, **Federazioaren** atal bat bereiz dezakegu (nola federatu, zenbait protokolo, adibidez), bigarren bat **klubei** buruzko informazioarekin eta hirugarren bat **txapelketen** informazioarekin. Hauek dira hurrengo atalak: **berriak**, **estekak** eta **kontaktua**. Gehitu webgunea euskaraz eta gaztelaniaz irakur daitekeela.

Online izapideei dagokienez, webguneak ez du lizentziak izapidetzeko gunerik, telefonoz edo e-mailez izapidetzen dira. **Lehiaketetarako** izen-emateak, lizentziekin ez bezala, parte hartzailearen NANA erabiliz webgunearen bidez egiten dira. Horrez gain, web orrialdean eremu pribatu bat aurkitu daiteke klubei zuzendua.

Lehiaketetako **aktei** dagokienez, aipatzekoa litzateke federazioko pertsona bat arduratzen dela horiek webgunean argitaratzeaz. Bestalde, **mediku aseguruaren parteak** mutualitatearen bidez kudeatzen dituzte telefonoz eta e-mailez eta **kirol zehapenen aurkako errekurtsioak** posta elektronikoz.

Zerbitzu digitalen inguruan, aipatu app bat dutela txapelketak eta koadroak kudeatzeko, eta zuzenean arbitratzeko aukera ematen duela, emaitzak igoz eta txapelketaren jarraipena edozein lekutatik egitea ahalbidetuz.

Azkenik, gehitu ez dutela **denda birtualik**.

2. Sare sozialak:

Sare sozialen kasuan, webgunetik zuzeneko esteka bat dago kontu ezberdinetara sartzeko. Lehenik eta behin, **Instagram**; @squasheuskadi, etengabe eguneratzen duten sarea. Era berean, **Facebook**; @squasheuskadi, aldian-aldian eguneratua, eta **Twitter**; @squasheuskadi, eguneratze etengabeekin, gainerako sare sozialak bezala. Horiek guztiak Roberto Cantón FVS-ESFko lantaldeko kideak kudeatzen ditu.

Batzuetan streaming-ak egin dituzte Facebook bidez.





EUSKADIKO SQUASH FEDERAZIOA
FEDERACIÓN VASCA DE SQUASH

www.squasheuskadi.com

Helbidea
Edificio CPT-Avda.de los Chopos, s/n
48991 Getxo
Korreoa:
squash@euskalkirola.eus
Telefonoa:
94 623 26 89

SQUASH

3. Komunikazio estrategia:

Federatuekin, lurralde federazioekin eta beste kirol erakundeekin posta elektronikoko eta WhatsApp bidez egiten dira komunikazioak, eta ez dute newsletterrik bidaltzen. Kirolarien datuak EKFB lizentzia-plataformaren bidez kudeatzen dira.

4. Ekipamendu informatikoa:

Ez dute federazioaren berezko gailu informatikorik, eta, beraz, beharrezko ikusten dute zenbait gailu edukitzea.

5. Telelana:

Ez dute telelan sistemarik ezarri, baina bilera telematikoak egin dituzte pandemia garaian.

6. Digitalizazio estrategia:

Federazioak ez du digitalizazio estrategiarik, batez ere langileen denbora faltagatik. Haien egoera digitala 8 batekin baloratu dute, eta digitalizazioan aurrera egiteko arazo nagusia denbora falta dela aipatu dute.

7. Zibersegurtasun politikak.

Zibersegurtasun politikari dagokienez, aipatu datuak babesteko jardunbide egokiei buruzko prestakuntza egin dutela, pasahitzak urtero eguneratzen dituztela eta urteko segurtasun kopiak gauzatzen dituztela. Hala ere, EKFBk kudeatzen du datuen babesaren gaia, eta ez dakite zer azpiegitura duen eta Oma 3 arduratzen da web orriaren segurtasunaz.





www.euskalsurf.com

Helbidea:
Julian Gaiarre, 44 - bajo
48004 Bilbo
Korreoa:
ehsf@euskalsurf.com
Telefona:
94 473 51 25

SURF

1. Web orrialdea:

Web orria albisteak daudenean eguneratzen da, lehiaketen arabera izaten da eta federakuntzako langile batek eguneratzen du.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** atal bat bereizi dezakegu (eguneratutako azken berriekin, lurralde federazioen informazioarekin) bigarren bat **federazioaren** informazio orokorrarekin (historia, hauteskundeak, antolaketa) eta hirugarren bat **federa zaitez** izenekoa (online federatzeko eta istripuen aseguru). Hurrengo atalak honako hauek dira: **txapelketak** (izen emate eta informazio orokorra), **formakuntza** (maila bakoitzeko ikastaroak), **denda** eta **harremana**. Orrialdea euskaraz nahiz gaztelaniaz jarri daiteke.

Nabarmentzekoa da ez dugula informaziorik aurkitu surfeko klubengatik inguruan, ezta lehiaketen historialik edota euskadiko selekzioen inguruko aipamenik ere.

Online izapideei dagokienez, 2022. urtetik aurrera webgunearen bitartez **lizentzia** digitala martxan jarriko dutela diote. Orain arte lizentziak transferentzia bidez ordaintzen dituzte federatuek. Lehiaketetako izen emateak, aldiz, web orrialdetik egin daitezke online eta ordainketak kreditu txartelarekin egin daitezke zuzenean. Halaber, eremu pribatu bat dute orrialdean lizentzien kudeaketarako erabiltzen dena.

Jarraitzeko, lehiaketetako **aktei** dagokienez digitalizatu gabe dituztela diote. Kirol zehapenen aurkako errekurtsioak posta elektronikoz kudeatzen dituzte eta aseguru medikuak telefonoz eta korreoz.

Zerbitzu digitalen inguruan, federakuntzak sarrerengatik salmentarako eta entrenamenduen programaziorako enpresa batek sortutako plataforma bat erabiltzen du. Horrez gain, online ikastaroak ere ematen dituzte plataforma birtualak erabiliz. Azkenik, aipatu **denda birtual** bat dutela kamiseta eta jertseen salmentarako, web orrialdetik zuzenean sar daitezke eta enpresa batek kudeatua da.

2. Sare sozialak:

Hainbat sare sozial kudeatzen dituzte, eta guztiak webgunetik eskuratu daitezke.

Alde batetik, adierazi Instagram kudeatzen dutela; @euskalsurf, aktibo mantentzen duten sare soziala eta Facebookeko kontu bat ere badute; @euskalsurf, hau ere eguneratuta daukate, ia egunero zerbait argitaratzen dute bi kontuetan.





www.euskalsurf.com

Helbidea:
Julian Gaiarre, 44 - bajo
48004 Bilbo
Korreo:
ehsf@euskalsurf.com
Telefonoa:
94 473 51 25

SURF

Azkenik Twitter dute; @euskalsurf, hau ez dute erabiltzen, 2015.urtetik ez baitute ezer argitaratu. Horien kudeaketaz federazioko lankide bat arduratzen da. Horrez gain, lehiaketen zuzeneko emankizunak egiten dituzte sare sozialen bidez.

3. Komunikazio estrategia:

Federazioak emaila, boletin elektronikoa eta telefonoa erabiltzen ditu beste federakuntza eta klubekin komunikazioa gauzatzeko. Federatuen datu pertsonalak lizentziatarako sortutako herramientarekin kudeatzen dira.

4. Ekipamendu informatikoa:

Ordenagailuak, tabletak eta ekitaldietarako sistema informatiko berezi bat dute, guztiak eguneratuta. Ez dute uste gailu elektronikoko gehiago behar dituztenik.

5. Telelana:

Federakuntzako langileek telelana burutu dezakete eta zuendaritza batzarrak eta bestelako bilerak Zoom eta Meet bidez egiten dituzte.

6. Digitalizazio estrategia:

Federazioak digitalizazio estrategia bat diseinatu du eta horren barruan sartuko litzateke 2022.urterako lizentzien digitalizazio prozesua. Halaber, erakundearen digitalizazioan aurrera egiteko duten arazo nagusia errekurtsio ekonomiko falta dela nabarmentzen dute.

Federakuntzak beraien egungo egoera digitala 6 batekin balioesten du.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politiken inguruan, aipatu antibirus lizentziak, segurtasun perimetrala eta firewall-a dutela. Pasahitzak hilabetero eguneratzen dituzte eta sergurtasun kopiak astero egiten dituzte. Ez dituzte ikuskaritzak egiten datu guztiak zuzen kudeatzen direla bermatzeko, ez dute jardunbide egokien prestakuntza neurririk jaso, ez dituzte lanpostuen sistema eragileak eguneratzen eta ezta haririk gabeko sistemak babesten. Amaitzeko, esan alderdi guzti horiek federazioko lankide batek kudeatzen dituela.





Helbidea:
Julian Gaiarre, 44 - lonja 2^a
48004 Bilbao
Korreo:
fvtetf.tkdo@yahoo.es
Telefonoa:
94 473 51 34

TAEKWONDO

1.Web orrialdea:

Gaur egun federazioak webgunea ez du martxan akats tekniko baten erruz, eta federazioaren helburua web proiektu moderno bat abian jartzea da epe laburrean.

2.Sare sozialak:

Sare sozial bakarra kudeatzen dute, Facebook; @FedEuskadiTKD, eta astero eguneratzen da.

Federazioarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izan denez, ez daukagu beste informaziorik hurrengo atalak bete ahal izateko.

TENIS

1. Web orrialdea:

Web orria maiz eguneratzen da, berri aipagarriak gertatzen direnean; hala ere, ez dira 15 egun baino gehiago igarotzen eguneraketan artean. Federazioko langileek kudeatzen dute webgunea.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** lehen atal bat bereiziko dezakegu, azken albistek agertzen diren, bigarren bat **federazioari** buruzkoa (zuzendaritza batzordea...) eta hirugarren bat **albisteei** buruzkoa. Hurrengo atala **Vasconavarrioriojanocantabro** txapelketari buruzko informazioa da, eta azkena **lehiaketei** buruzkoa. Gaineratu ezin dela webgunea euskaratu.

Aipatzekoa litzateke ez dugula lurralde federazioei edoklubei buruzko informaziorik aurkitu, ezta Euskadiko Selekzioei buruzko informaziorik edota kirolarien marken rankingik ere.

Online izapideei dagokienez, **lizentziak** Espainiako Federazioaren bidez izapidetzen dira, kirolarientzako eta kirol klubentzako gune pribatu baten bidez; euskal federazioak berak ez ditu atal horiek kudeatzen. Aitzitik, **lehiaketetan** izena eman daiteke

Lesioen **aseguru medikoen** parteez ari garela, ezin da zuzenean webgunetik izapidetu; kirolariek istripuen parte bete behar dute, eta e-mailez bidali federaziora.

Zerbitzu digitalei dagokienez, nabarmentzekoa da federazioak online formakuntzak ematen dituela bai arbitroentzat eta bai bestelako prestakuntzentzat.

Horrez gain, aipatu ez dutela **denda birtualik**.

2. Sare sozialak:

Sare sozialen kasuan, **Twitter** soilik kudeatzen dute; @fvascatenis, albistek sortzen direnean eguneratuta mantentzen duten sare soziala, web orriarekin gertatzen den bezala. Gehitu ez dutela streaming bidezko zuzenkorik egin inongo plataformetan.





www.fvtenis.eus

Helbidea:
Julian Gaiarre, 50 - lonja
48004 Bilbao
Korreo:
administracion@fvtenis.eus
Telefonoa:
944 59 81 92

TENIS

3. Komunikazio estrategia:

Lurralde federazioekin eta beste erakunde batzuekin korreo elektroniko, telefono eta WhatsApp bidez egiten dituzte komunikazioak, eta ez dute newsletterrik bidaltzen. Kirolarien datuak Espainiako Tenis Federazioaren lizentzien aplikazioaren bidez kudeatzen dira.

4. Ekipamendu informatikoa:

Mahaiko ordenagailu bat, bulegorako ordenagailu eramangarri bat eta inprimagailuak dituzte, guztiak eguneratuta.

5. Telelana:

Pandemia garaian ez dute telelana erregularizatzeko neurririk hartu, baina Zoom, Meet eta beste plataforma batzuk erabili dituzte. Halaber, bide telematikoen bidez egin dituzte batzarrak eta zuzendaritza batzordeak.

6. Digitalizazio estrategia:

Ez dute digitalizazio estrategiarik planifikatu, baina digitalizatzeko aukera dutenean, ahal den neurrian egiten dute.

Era berean, haien egoera digitala 8 batekin baloratu dute, eta aipatu dute oraingoz ez dutela inolako mugarik digitalizazioan aurrera egiteko, beraien egoera digitala egokia baita.

7. Zibersegurtasun politikak.

Zibersegurtasun politikei dagokienez, antibirusen aurkako lizentziak, suebakiak, pasahitzen eguneratzea, datuak ziurtatzeko neurriak eta jardunbideak eta haririk gabeko sareen babesa dituzte.





www.euskaltiro.com

Helbidea:
Apdo. de Correos 445
01080 Gasteiz
Korreo:
euskaltiro@euskaltiro.com
Telefonoa:
945 14 94 40

TIRO OLIMPIKOA

1. Web orrialdea:

Webgunea urtero eguneratzen da, oro har, albisteak edo gertaerak argitaratzen dira. Federazioko kide batek kudeatzen du, aholkulari informatikoak.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** lehen atal bat dago, **lurralde federazioei** eta lehiaketan egutegiari buruzko informazioarekin. Ondoren, **federazioaren** atal bat dago (lurralde federazio guztietarako sarbidea, haien lehiaketak, araudia, rankingak...) eta **harremanetarako** azken atal bat. Gehitu ezin dela dela webgunea euskaratu.

Azpmarratu behar da ez dugula selekzio autonomikoei buruzko informaziorik aurkitu.

Online izapideei dagokienez, **lizentziak** lurralde federazioen bidez eta aurrez aurre izapidetzen dira, ordainketa bezala, aurrez aurre. Era berean, lehiaketetan izena ematen da.

Lehiaketetako aktei buruz ari garela, aipatu behar da posta elektronikoz egiten direla. Lesioak federazio horren kabinete juridikoaren bidez kudeatzen dira, posta elektronikoz. Aseguru medikoen parteak webgunearen bidez izapidetzen dira.

Ez dute **denda birtualik**, federatuentzako eremu pribaturik edo klubeko aplikaziorik.

2. Sare sozialak:

Sare sozialen kasuan, ez dute bakarra ere kudeatzen. Era berean, ez dute emanaldirik egiten streaming bidez.

3. Komunikazio estrategia:

Kirolariekin korreo elektronikoko, telefono eta WhatsApp bidez komunikatzen dira eta ez dute newsletterrik bidaltzen. Kirolarien datuak Excel baten bidez kudeatzen dira.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak bi ordenagailu eramangarri eta mahaiko ordenagailu bat ditu oraindik eguneratu gabe. Ez dute beharrezko ikusten gailu gehiago edukitzea.





www.euskaltiro.com

Helbidea:
Apdo. de Correos 445
01080 Gasteiz
Korreo:
euskaltiro@euskaltiro.com
Telefonoa:
945 14 94 40

TIRO OLIMPIKOA

5. Telelana:

Pandemia garaian ez dute telelanerako sistemarik ezarri, baina Zoomen bidez batzarrak egin dituzte.

6. Digitalizazio estrategia:

Aipatu behar da federazioak epe ertainera digitalizatzeko estrategia bat ezarri duela, egungo egoera digitalera egokitu edo aurrera egin ahal izateko, gailu elektronikoak eguneratuz, besteak beste. Hala ere, digitalizatzeko orduan zenbait muga daudela uste dute, hala nola langile edo prestakuntza falta.

Haien egoera digitala 10etik 5ekin baloratu dute.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasun politikari dagokienez, antibirusen lizentzia eta segurtasun perimetrala, suebakiak, pasahitzen eguneratzea, datuak ziurtatzeko neurriak eta jardunbideak eta hari gabeko sareen babesa dituzte. Pasahitzak bi hilean behin egiten dira, eta segurtasun kopiak hileroko. Zibersegurtasunaren gaia federazioko idazkariak kudeatzen du.





TRIATLOIA

1. Web orrialdea:

Web orrialdean astean behin gutxienez berriren bat ilotzen saiatzen dira, eta txapelketak eta lasterketak dituztenean hurrengo egunean jartzen dituzte emaitzak, eguneratuta mantentzeko web orrialdea. Honen kudeaketaz federakuntzaren lehendakaria arduratzen da eta aspektu teknikoaren eguneraketei dagokionez, aldiz, zuzendaritzako kide bat. Halaber, web orrialdea aldatzeko asmoa dute, eta egin nahi duten moldaketa bat antolatzaileei sarbidea ematea da beraien probaren inguruko informazio atala kudeatzeko orrialdean bertan.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** lehen atal bat bereizi dezakegu (azken berriak, sailkapenak, txapelketen informazioa, zirkuitoak, historikoa) bigarren bat **lizentzien** informazio orokorrarekin (izapidetzeko prozedura, prezioak...), eta hirugarren bat **asegurua** izenekoa (istripu baten aurrean jarraitu beharreko pausoak). Hurrengo atalak honako hauek dira: **araudiak** (kirol arautegia, lizentzien arautegia, Euskadiko txapelketako arautegia, epaileen arautegia...), **epaileak**, **zirkuitoa** (hutsik dago atal hau), **estekak** (lurralde federazioen informazioa), **klubak** (herri bakoitzeko bilatzaile batekin), **federazioa** (estatutoak, zuzendaritza batzordea) eta **dokumentuak** (2008-2012 urte bitarteko sailkapenen historiala). Nabarmentzekoa da webguneko atal bakoitzeko informazioa pdf batean eskuratzen dela, hots, ezin da zuzenean irakurri informazioa atalak klikatzean. Orrialdea euskaraz nahiz gaztelaniaz jarri daiteke.

Nabarmentzekoa da ez dugula informaziorik aurkitu kirol modalitate bakoitzerako dauden kirol-instalazioei buruz, ezta euskadiko selekzioaren inguruko informaziorik ere.

Online izapideei dagokienez, **lizentzien** izapidetza 2018 geroztik telematikoa da. RocktheSport enpresaren bitartez plataforma bat dute lizentzien tramitazioa burutzeko, eta hiru ataletan banatzen da probintzia bakoitzeko. Kirolari, klub, epaile eta teknikoek dute sarbidea plataformara. Klubek dokumentazioa ilotzen dute, lurralde federakuntzek dokumentazioa berrikusten dute, euskal federakuntzak azken berrikusketa burutzen du eta dena zuzena bada, lizentziak igortzen dituzte. Lizentzien ordainketa plataforma bertatik egin daiteke TPV baten bitartez.

Jarraitzeko, **lehiaketetako** izen ematea ere RocktheSport enpresaren webgune propio baten bidez egiten dute, izen ematea guztiz telematikoa izanez.

Lehiaketetako **aktak** eta informeak denak digitalki egiten dituzte word batean, dena den, egunean bertan fisikoki inprimatzen dituzte momentuan erreklamazioaren bat edo egoten bada. Aktak ez dituzte publiko egiten web orrialdean, emaitzak soilik.





TRIATLOIA

Bestalde, nahiz eta orain arte ez duten **kirol zehapenen aurkako errekurtsorik** izan, teorian, jakinarazpena lizentzien plataformaren bitartez egin daitekeela diote, bertan atal bat baitute horretarako.

Aseguru medikoen inguruan, aipatu webgunean prozedimenduaren pausoak eskuratu ditzaketela, eta ondoren, kirolariek istripu txostena korreoz bidaltzen dutela. Behin federakuntzak txostena jasota digitalki sinatu eta berriro email bidez bidaltzen dute.

Zerbitzu digitalera igaroz, aipatu aurten egoerak bultzatuta epaileen ikastaroa online egin dutela Zoom plataformaren bitartez. Horrez gain ez dute bestelako zerbitzu digitalik eskaintzen, izan ere, **denda birtual** baterako interesa dagoen arren ez dute ezer garatu bere inguruan.

Amaitzeko, nabarmendu ez dutela eremu pribaturik orrialdean federatu, federazio edo epaileentzat. Egia da web orrialdeko aurkezpen atalean intranet bat ikus dezakegula, baina eremu hau web orrialdean aldaketak egin ditzaketentzat soilik da.

2. Sare sozialak:

Hainbat sare sozial kudeatzen dituzte, baina ezin dira webgunetik eskuratu.

Alde batetik, adierazi Instagram kudeatzen dutela; @trieuskadi, eguneratuta mantentzen duten sare soziala eta Facebookeko kontu bat ere badute; Euskadiko Triatloi Federazioa, Instagram bezain eguneratuta. Azkenik Twitter dute; @EuskadiTriFed, hau besteak baino gutxiago eguneratzen dela diote. Oro har astean 3-4 aldiz eguneratzen dituzte, maiztasun handiz, eta lehendakaria litzateke guztien kudeaketaz arduratzen dena. Lasterketako zuzeneko emankizunei dagokionez, aipatu ez dituela federakuntzak berak egiten lan eta lasterketen iraupena dela eta.

3. Komunikazio estrategia:

Komunikazio estrategia bat du federakuntzak, eta nahiz eta oraindik ez duten martxan jarri guztiz horren barruan boletin elektronikoaren ideia dute ezarrita. Oraingoz emaila, watsapa eta telefonoa erabiltzen dute federazio eta klubekin komunikatzeko, eta normalean informazio orokorra denean korreo elektroniko bidez helarazten dute.

4. Ekipamendu informatikoa:

2 ordenagailu ditu federakuntzak eta biak eguneratuta daude.





TRIATLOIA

5. Telelana:

Federakuntzan langile bakarra dago, almagaren kudeaketaz arduratzen dena, eta beraz, ez du behar telelanaerako sistemarik. Dena den, zuzendaritza batzarrak eta ohiko deialdiak denak telematikoki burutzen dituzte Zoom bitartez.

6. Digitalizazio estrategia:

Ez dute estrategiarik planteatu digitalizazioari dagokionez jadanik nahiko aurreratuta daudela diotelako. Hala eta guztiz ere, digitalizazioan pauso gehiago eman behar izanez gero, formakuntza falta (ikustea zer falta zaien, komunikazio alderdian esate baterako), errekurtsio pertsonal falta eta errekurtsio ekonomiko falta aipatzen dituzte arazo bezala.

Federakuntzak 7,5 batekin baloratzen du bere egungo digitalizazio egoera.

7. Zibersegurtasun politikak:

Euskal Federakuntzen Batasunaren bidez enpresa bat kontratatu zuten zibersegurtasun politikak kudeatzeko. Hasteko, antibirus eta firewallaren alderdia pendiente dutela diote, ez baitakite eguneratuta dituzten edo ez. Horrez gain, pasahitzak aldizka eguneratzen dituzte, segurtasun kopiak maiz egiten dituzte, lanpostuen sistema eragileen azken aktualizazioa dute eta ikuskaritzak egiten dituzte informazio guztia egoki bideratzen dela bermatzeko. Jardunbide egokien prestakuntza neurriei buruz hitz eginez, esan arestian aipatutako enpresak txosten bat eman ziela informazio ezberdinarekin, jarraitu beharreko pauso ezberdinak zehaztuz. Amaitzeko, hari gabeko sarea pasahitz baten bidez babesten dute.





www.fvascicli.com

Helbidea:
Paseo Anoeta, 12 - 1º
20014 Donostia
Korreo:
fvc@fvascicli.com
Telefonoa:
943 45 70 69

TXIRRINDULARITZA

1. Web orrialdea:

Federazioak ez du webgunea eguneratzeko maiztasun zehatzik ezarrita, eta lehendakaria eta enpresa espezializatu bat arduratzen dira orrialdearen kudeaketaz.

Webguneko menuari dagokionez, **sarrera** lehen atal bat (azken albisteak, batzar orokorra, Kirol Lizentziarako sarbidea...), **berriak** eta **federazioaren** informazio orokorra duen hirugarren bat (batzarreko kideak) bereizi ditzakegu. Azken atalak **klubak**, **estekak** (lurralde federazioei eta txirrindularitzako beste erakunde batzuei buruzko informazioa), **babesleak** eta **kontaktua** lirateke. Aipatu webgunea gaztelaniaz zein euskaraz jar daitekeela.

Nabarmentzekoa da ez dugula informaziorik aurkitzen modalitateko instalazioei buruz edo euskal selekzioei buruz.

Online izapideei dagokienez, aipatu ez dutela lizentziarik izapidetzen eta lehiaketetarako izen emateak aurrez aurre egiten direla proba bakoitzean. Lehiaketen aktak pdf artxiboetan gordetzen dituzte eta kirol zehapenen aurkako errekurtsioak korreo elektronikoz izapidetzen dituzte. Azkenik, federakuntzak ez ditu mediku aseguruaren parteak izapidetzen.

Bestalde, webguneak Kirol Lizentziak izeneko eremu pribatu bat du, eta eremu horrek informazio pribatua eskuratzeko balio duela diote.

Txirrindularitza federazioak ez du denda birtualik eta ez du zerbitzu digitalik eskaintzen.

2. Sare sozialak:

Sare sozialei dagokienez, Twitter baino ez dute kudeatzen eta webgunetik eskuratu daiteke kontua. @ETXF_FVC, astero edo bi astez behin eguneratzen duten sare soziala. Federazioko komunikazio sailak kudeatzen du. Azkenik, gehitu ez dutela lasterketen streamingik egiten.





www.fvascicli.com

Helbidea:
Paseo Anoeta, 12 - 1º
20014 Donostia
Korreoa:
fvc@fvascicli.com
Telefonoa:
943 45 70 69

TXIRRINDULARITZA

3. Komunikazio estrategia:

Federakuntza eta klubekiko komunikazioak posta elektronikoko eta telefono bidez egiten dira. Ez dute aldizkari elektronikorik bidaltzen federatuei.

Federatuen datuak plataforma berezi baten bidez kudeatzen dituzte.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federazioak mahaiko 4 ordenagailu eta 2 ordenagailu eramangarri ditu, guztiak eguneratuta.

5. Telelana

Telelana egiteko sistema bat dute ezarrita, baina ez dakite nola duen izena. Era berean, ez dituzte ez batzarrak ez bestelako bilerak telematikoki egiten.

6. Digitalizazio estrategia:

Digitalizazioari dagokionez, estrategia bat dutela aipatzen dute, RFEC plataforma hain zuzen ere. Federazioak bere egoera digitala 6 batekin baloratzen du, eta ez du inolako arazorik aipatzen erakundearen digitalizazioan aurrera egiteko.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasunaz ari garela, antibirus eta segurtasun perimetraleko lizentziak dituzte, firewall-ak, lanpostuen sistema eragileak eguneratzen dituzte, astero segurtasun kopiak egiten dituzte eta segurtasuna dute hari gabeko sarean. Bestalde, ez dute informazioa eskuratzeko auditoretzarik egiten, ez dute jardunbide egokiei buruzko prestakuntzarik jaso eta ez dituzte pasahitzak eguneratzen. Zibersegurtasun politikarekin lotutako alerdi guztiak langile batek eramaten ditu.



URETAKO ESKIA ETA MOTONAUTIKA

1. Web orrialdea:

Eski Nautiko eta Motonautikaren Euskal Federazioak ez du web orririk albisteak, lehiaketei buruzko informazioa, emaitzak eta federazioaren informazio orokorra azaltzeko. Aipatzen dutenez federazioa denbora luzez egon da jarduerarik gabe, eta orain EKFB arduratzen da federakuntzaren kudeaketaz.

Online izapideei dagokienez, 2021eko denboraldi honetan lizentziak eta lehiaketetarako izen emateak Espainiako Federazioaren bidez izapidetzen dituztela diote. Orain eski nautikoan eta motonautikan maila nazionalen bakarrik lehiatzen dela aipatzen dute, eta horregatik kudeatzen dituela Espainiako Federazioak kirol zehapenen aurkako errekurtsuak eta lehiaketen aktak. Aseguru medikoak istripu protokolo jarraibideen arabera eta aseguru etxera telefonoz deituta kudeatzen dituzte.

Bestalde, ez dute **zerbitzu digitalik** eskaintzen eta ez dute kirol ekipamendua saltzeko denda birtualik.

2. Sare sozialak:

Web orriaren antzera, ez dute lehiaketen, albiste edo gertaerei buruzko informazioa helarazteko sare sozialik. Halaber, ez dute streamingik egiten.

3. Komunikazio estrategia:

Lurralde federazio eta kirol klubekiko komunikazio guztiak korreo elektronikoz, WhatsApeez eta telefonoz egiten dute.

Federatuen datu pertsonalak Excel baten bidez kudeatzen dira.

4. Ekipamendu informatikoa:

EKFB denez federazioaren kudeaketaz arduratzen dena, EKFB-ren ekipamendua dute.

5. Telelana:

Telelana egiteko sistema dute ezarrita, eta plataforma baten bidez burutzendute. Bilerak eta batzarrak Zoom bidez egiten dira telematikoki.



URETAKO ESKIA ETA MOTONAUTIKA

6. Digitalizazio estrategia:

Federazioak ez du inolako digitalizazio estrategiarik diseinatu erakundearen eraldaketa digitalean laguntzeko, duela gutxi hasi direlako berriro ere lanean.

Orain duten digitalizazio egoera 10etik 4 batekin baloratzen dute.

7. Zibersegurtasuneko politikak:

Zibersegurtasun politikei dagokienez, aipatzekoa da birusen aurkako lizentzia dutela, firewall-a, pasahitzak urtero eguneratzen dituztela, informazioa eskuratzeko segurtasun neurriak ezarrita dituztela, haririk gabeko sareetan babesa dutela, astero backup-ak egiten dituztela, lanpostuen sistema eragileak eguneratzen dituztela eta jardunbide egokiei buruzko prestakuntza izan dutela. Alderdi horiek guztiak EKFB-k kudeatzen ditu.





www.ehuif-fvas.org

Helbidea:
Paseo de Anoeta, 5-bajo
20018 Donostia
Korreo:
ehuif@ehuif-fvas.org
Telefonoa:
943 46 70 17

URPEKO EKINTZAK

1. Web orrialdea:

Gaur egungo web orria ez da maiz eguneratzen, izan ere, ez dago bolondresik edo weba eta sare sozialak kudeatzen dituen pertsonarik. Bi hilabete baino gehiago dira ez dela eguneratzen.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** atal bat bereizten dugu, jarduerari buruzko zenbait berri ematen dituena, bigarrena, **federazioari** buruzkoa (online federatzeko moduari buruzko informazioa, federatzeko prezioak eta poliza eta aseguruak), eta hirugarrena, **urpekaritza autonomoari** buruzkoa (urpekaritzako ikastaroak eta titulazioak). Hurrengo atalean **modalitate** ezberdinei buruzko informazioa dago (igeriketa hegatsekin, itsaspeko argazkia eta itsaspeko arrantza) eta honen ondoren, azken **kontakt**u atal bat dago. Web orrialdea ezin da euskarara itzuli.

Nabarmentzekoa litzateke ezin dela lurralde federazioei eta kirol klubei buruzko informaziorik aurkitu, kirol modalitate bakoitzerako dauden kirol instalazioei buruzko informaziorik, lehiaketei buruzko informaziorik (egutegiak, sailkapenak, agenda...), edo selekzio autonomikoei buruzko informaziorik ere ez. Era berean, ez dugu kirolarien rankingik edo lehiaketen historialik aurkitu.

Online izapideei dagokienez, lizentzia bat tramitatzeko aukera dago, baina ez plataforma beretik, datu inprimaki batekin eta banku transferentzia bat eginez baizik. Dena den, kirol klub bakoitzeko atleten lizentziak izapidetzeko aplikazio bat dute (GrupoCampusa). Hori ez ezik, Espainiako Urpeko Jardueren Federazioaren extranetean urpekaritza titulazioak eskuratu ditzakete federatuek.

Lehiaketetan izena eman nahi izanez gero, tramite hori ezin da telematikoki izapidetu, korreo elektronikoz kudeatzen baita fitxa batzuk betez.

Hegatsekin igeriketan bakarrik dago lehiaketen **aktak** eta emaitzak kudeatzen dituen app bat.

Kirol zehapenen aurkako errekurtsioak eta **istripu parteak** korreo elektronikoz bideratzen dira. Seguro medikuaren informazioa web orrialdetik deskargatu daiteke.

Federazioak ez du **denda birtualik** ekipazio edo bestelako osagarririk saltzen duenik, era berean, ez dago kirolarientzako, klubentzako, federazioentzako edo epaileentzako eremu pribaturik, webgunea kudeatzen duen langilerik ez dagoelako.





www.ehuif-fvas.org

Helbidea:
Paseo de Anoeta, 5-bajo
20018 Donostia
Korreo:
ehuif@ehuif-fvas.org
Telefonoa:
943 46 70 17

URPEKO EKINTZAK

2. Sare sozialak:

Sare sozialetara igaroz, ez dutela sarerik kudeatzen aipatu daiteke, izan ere, arrazoi nagusia pertsonal eta formakuntza falta dela diote. Dena den, streaming batzuk egin dituzte, baina ez daude erregularizatuta.

3. Komunikazio estrategia:

Afiliatuekiko komunikazioak GrupoCampus app-aren bidez egiten dira, eta horiei buruzko informazio teknikoa modalitateko Espainiako Federazioan erregistratuta dago. Horrez gain, aipatzekoa litzateke ez dutela newsletterrik bidaltzen federatuei. Federazioko bolondresen arteko barne komunikazioa WhatsApp bidez egiten dute.

Federatuen datu pertsonalen kudeaketa arestian aipatutako GrupoCampus plataformaren bidez egiten dute.

4. Ekipamendu informatikoa:

Federakuntzak eguneratuta dauden mahaiko ordenagailu eta ordenagailu eramangarri pare bat baino ez ditu.

5. Telelana:

Lehen esan bezala, ez dago federazioko langilerik, boluntarioak soilik, eta, beraz, ez dago telelanari dagokionez langileak arautzeko neurririk. Hala ere, pandemian batzarrak eta bilera telematikoak egin dira, eta aurtengo ikasturteari begira, batzarrak aurrez aurre egingo dituzte, eta zuzendaritza batzordeak telematikoki.





www.ehuif-fvas.org

Helbidea:
Paseo de Anoeta, 5-bajo
20018 Donostia
Korrea:
ehuif@ehuif-fvas.org
Telefonoa:
943 46 70 17

URPEKO EKINTZAK

6. Digitalizazio estrategia:

Digitalizazio estrategia zehaztu gabe badago ere, zuzeneko emankizunen proba batzuk edo denbora errealean emaitzak erakusten dituzten app-ak erabili dira lehenengo pausu bezala; aitzitik, modalitate batzuk beste batzuk baino errazagoak direla digitalizatzeko diote.

Federazioak berak hamarretik puntu 1ekin baloratzen du bere egoera digitala, eta langile falta, gailu elektronikoen beharra eta gai horiei buruzko informazioak eta prestakuntzarik eza azpimarratzen dituzte oztopo nagusi bezala.

7. Zibersegurtasun politikak:

Zibersegurtasunera igaroz, antibirusak eta segurtasun perimetrala dituzte. Astero egiten dira backupak eta lanpostuen sistema eragileak eguneratzen dituzte. Era berean, datu pertsonalak kudeatzen dituzten zenbait orritan, firewall-ak eta sarrera debekuak dituzte, baita gobernu onaren kode bat ere datuetarako sarbideetan eragiten dutenak datuak babesteko. Haririk gabeko sarea ez dute babestuta, publikoa baita wifi sarea.





www.xake.net

Helbidea:
Koldo Elizalde, 20-1º
20570 Bergara
Korreo:
fvajedrez@facilnet.es
Telefonoa:
943763239

XAKEA

1. Web orrialdea:

Euskadiko Xake Federazioarekin komunikatzea ezinezkoa izan dela kontuan hartuta, ez dakigu webgunea zenbatean behin eguneratzen den edo nork kudeatzen duen.

Webguneko menuari dagokionez, **hasierako** lehen atal bat bereiziko dugu, albistek eta lehiaketak erakusten dituena. Hurrengo atalek errore bat dute, agian pluginen konexioan, agertzen den informazioa hasierako orrialdekoaren berdina baita. Bosgarren atala **lurralde federazioetarako** esteka bat da eta horiei buruzko informazioa agertzen da. Gehitu posible dela euskarara eta ingelesera itzultzea orrialdea.

Azpimarratzekoa litzateke ez dugula modalitaterako instalazioei buruzko inolako informaziorik aurkitu, ezta Euskadiko Selekzioei buruzko informaziorik ere. Aitzitik, badago lehiaketei eta lehiakideen rankingari buruzko informazioa.

Online izapideei dagokienez, webgunean ikus dezakegunaren arabera, **lizentziak** ezin dira telematikoki izapidetu, ezta **lehiaketetako** inskripzioak ere, korreo elektronikoko edo WhatsAppez kudeatzen baitira. Bestalde, webgunean ez dugu **zerbitzu digitalik** aurkitzen, hala nola denda birtuala, kirolarientzako eremu pribatua edo federazioak barne gestioetarako erabiltzen duen aplikaziorik.

2. Sare sozialak:

Web orritik ezin da sartu kudeatzen dituzten sare sozialetara.

Alde batetik, esan **Facebook** kudeatzen dutela; @Euskal Xake Federazioa, hala ere, ez dago eguneratuta. Bestetik, **Twitter** ere badute; @VascaAjajedrez, hori ere ez dago eguneratuta.

Federazioarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izan denez, ez daukagu beste informaziorik hurrengo atalak bete ahal izateko.

